



Sagastilerri

JNO literatur lehiaketa





PROSA

IRAITZ AGIRRE

JON HAITZ LEGARRETA

IÑAKI ARRUTI

IRATXE ESNAOLA

MAITE AROZENA

ENEKO LEKUONA


MIKEL BABIANO

PALOMA QUINTANA

AINHOA UGARTEBURU

KATI OLAIZOLA

LIBRARY OF THE
UNIVERSITY OF CALIFORNIA
SANTA BARBARA
913 244 1000
2000 EILAR




irakaskuntza ertainetako

URRUZUNO

literatur lehiaketa 2001

LAN SARITUEN BILDUMA



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2001

Urruzuno Literatur Lehiaketa (16.a. 2001)

Irakaskuntza ertainetako Urruzuno Literatur Lehiaketa 2001 : lan sarituen bilduma / prestatzaileak, Blanka Castaño ... [et al.]. — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2001 or. ; cm. — (Sagastiberri)

ISBN 84-457-1728-6

1. Euskal literatura-XX. mendea-Lehiaketak. I. Castaño, Blanka. II. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. III. Izenburua 891.69"19"(064.3)

Argitaraldia:	1.a, 2001eko abuztua
Ale-kopurua:	2.600
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	www.ej-gv.net
Prestatzaileak:	Blanka Castaño, Iñaki Iturain, Santos Izagirre eta Iñaki Artola
Azala:	Jesus Iturriza
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposizioa:	Ipar, S. Coop. Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbo
Inprimategia:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbo
ISBN:	84-457-1728-6
Lege-gordailua:	BI - 2.010-01

AURKIBIDEA

Hitzaurrea		7
Urruzunotarren Club-a. Mari Jose Olaziregi		11
 Prosa. A maila		
La dolce vendetta	<i>Iraitz Agirre Aranguren</i>	19
Gizateriaren urratsak	<i>Jon Haitz Legarreta Gorroño</i> ..	33
Amaierarik gabeko gutuna	<i>Iñaki Arruti Arruti</i>	47
Egun arrunt bat gehiago	<i>Iratxe Esnaola Aldanondo</i>	53
Balbea errekak bere bidea darrai ..	<i>Iñaki Arruti Arruti</i>	61
Aita, zer gertatzen zaio munduari?	<i>Maite Arozena Velez</i>	73
 Prosa. B maila		
Askatasunaren bila	<i>Eneko Lekuona Artola</i>	87
Oroitzapenak	<i>Mikel Babiano Lpz de Sabando</i>	105
Beste mundua ezagutzen	<i>Paloma Quintana Martinez</i> ...	121
Askatasun taupada	<i>Ainhoa Ugarteburu Plazaola</i> ..	131
Xabi eta Fermin	<i>Kati Olaizola Gabirondo</i>	141

Poesia. A maila

Sua sutan	<i>Maite Uriarte Gil</i>	153
Argi amatatuetan itzal bat	<i>Odei Arregi Izagirre</i>	159
Bizitzaren drogak	<i>Odei Arregi Izagirre</i>	165
Bizitzaren mandamentuak	<i>Nagore Etxabe Iruretagoiena</i> ..	171
Azken itsas bidaia	<i>Maialen Sarasua Oliden</i>	179

Poesia. B maila

Udazkeneko ostera	<i>Oihan Zubizarreta Iribecampos</i>	187
Minbiziari	<i>Oier Zurutuza Arin</i>	193
Bizitza amets; eta zu?	<i>Ion Muñoa Errasti</i>	199
Zuhaitza	<i>Amaia Laka Arozena</i>	205
Hesiak gaitzen	<i>Nagore Arriolabengoa Bengoa</i>	211

Urruzunotarrak 1986-2001		217
---------------------------------------	--	-----

HITZAURREA

Urruzuno literatur lehiaketak hamasei urte bete ditu oraingoan. Lehiaketa honetako gazteak bezala “nerabezarora” heldu da adinez bederen. Gaztea heldutasunerako bide amaigabeen sartua da dagoeneko adin horretan. Gai-nontzekoak ere gazte hori errespetatzen hasten gara gero eta gehiago. Urruzuno Literatur Lehiaketa ere puntu horretara iristen ari da. Dagoeneko 16 urte beteak izateak trinkotasun eta sendotasun nabarmena ematen dio horrelako lehiaketari. Lehiaketa jaio berria zenean jaiotakoak dira gaur liburu honetan idazle, lehen lehiaketa hartan (1986) sarituetako hainbat aldiz gaur egungo idazle, kazetari, berriemaile, bertsolari ezagun ditugu.

Lehiaketaren inguruan gabiltzan helduok (irakasle, epaimahaiko, guraso, euskara teknikari...) urtez urte ikusten dugu mailari eusten zaiola eta irabazle ez izan arren hainbat gaztek oso egoki idazten duela euskaraz. Hortaz, azken urte hauetan hain ahul izan ditugun esparruak; kazetaritza, irratigintza, gidoigintza... modu erosoan hornitze-ko aukera izango da hurrengo urteetan seguruenik.

Urtero bezala goraiatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Berez-

ko iaotasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle izateko. Landu, trebatu eta aberastu behar izaten da berezko hori esku artean dugun mailara iritsiko bada.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Aurtengo epaimahaian literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu:

Manu Lopez Gaseni
M^a Jose Olaziregi
Arantxa Urretabizkaia
Joxe Mari Satrustegi
Josu Lartategi

Parte-hartzeari dagokionez, 2001. urte honetan 464 lan jaso dira: A mailan 175 prosan eta 58 poesian; B mailan, berriz, 182 hitz lauz eta 49 olerkian.

Dakizuen bezala, lehiaketak dituen 20 sariak lau atletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan: bosna sari atal bakoitzean. Aurtengoan, sari guztiak eman dira lau atal horietan. Bi sari irabazi dituztenak ere badira. Prosa arloko A mailan, Orioko Iñaki Arruti Arrutik eta Poesia arloko A mailan, Azkoitiko Odei Arregi Izagirrek bina sari irabazi dituzte. Bi sariak jaso ezin dituztenez, epaimahaiak, aipamen gisa, seigarren sari bat ematea erabaki du Prosa arloko A mailan. Lanak epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratu dira.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:

- Irailean 10 egun inguruko bidaia (Bretaña-Normandia-Holanda)
- Bidai poltsa norbere gastuetarako: 40.000 pezeta.

- Oroigarria. Iraileko sari-banaketan ematen zaie.
- Lanak *Sagastiberri* sailean argitaratzea. Liburua eskola denetara eta parte hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Horrez gain, urtero bi ikastetxeri egiten zaie aipamen berezia: aurten Beasaingo Loinazpe institutuari eta Mungiako institutuari. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaietan joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2001era bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberrako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein orrialdetan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu sari eta aipamen irabazleoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, epaimahaikoei eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Mari Jose Olaziregiri.

Besterik gabe murgil zaitez irakurle orrialde horixka hauetan aurkituko duzun zurrumbiloa eta freskotasuna dastatzera. Ez zaizu damutuko.

Euskara Zerbitzua

URRZUNOTARREN CLUB-a

Mari Jose Olaziregi



Uste dut *Poeta hilen club*-a izena zuela literatura-irakasle guztiz *enrroilatua* ateratzen zen filma hark. Irakasleak benetako arrakasta lortzen zuen literaturarekin ikasleak seduzituz eta oroitzen naiz inbidia pixka bat ere sentitu nuela bere lana hain ongi egiten zuen morroi hura ikustean.

Honezkero konturatuko zineten neu ere irakasle nauzuela. Normalean espezie *aspergarri-zaharkitu-umore txarrekoa* kontsideratzen duzuen jende mota horretakoa. Neu ere, Robin Williams-ek filmean egiten zuen modura, nire ikasleak literaturzaletzen ahalegintzen banaiz ere, ez dakit askotan zerbait lortzen dudan. Hala ere, bada gehienetan huts egiten ez didan estrategia bat: norena den esan gabe, Urruzuno lehiaketara aurkeztutako lanen baten pasartetxo bat irakurtzen diet ikasleei, eta benetan aitortu behar dizuet, harridura bat baino gehiago eragin izan ohi dudala trikimailu honekin.

Izan ere, azken hiru urteotan epaimahaikide izan naizen aldetik, Urruzuno Lehiaketara aurkezten diren lanen kalitatea benetan aipagarria dela esan behar baitut. Eta horrexek egiten du hain berezi lehiaketa hau: 15 edo 17 urtekin idatzitako altxor txikiekin topo egiteak. “Helduen”

lehiaketa batera baino gehiagotara aurkeztuko nukeen lanekin egin dut topo maiz eta benetan ongi pasatzen dut testuok irakurtzen. Penagarriena, segur aski, irabazle gutxi batzuk aukeratzea izaten da eta lan hau gehienetan zailegia suertatzen zaigu.

Baina itzul gaitezen ongi pasatze kontuetara, nire ustez hortxe baitago koska. Irakasleok askotan esan ohi dizuegu irakurtzea, literatur lan on bat irakurtzea, benetako plazer delako, abentura bat. Eta norbaitek esango dit benetako abenturak larunbat gauetan izaten dituela. Eta segur aski arrazoirik ez zaio faltako, niri ere dantzaleku *cool* batera joatea gustatzen baitzait,... eta Londreseko Sohoan bada, hobe. Baina hala ere, zerbait galtzen ari dela esango nioke irakurtzen ez duen gazte horri,... aspaldian tonikari buruzko iragarki batean esaten zuten modura, probatu egin behar dela, liburu bat irakurtzera ausartu.

Gerta liteke nobela bat edo poesia-liburu bat erabat aspergarria izatea, edo segur aski gu engatxatzea ez lortzea. Ez da ezertxo ere gertatzen, utzi liburua eta beste batekin ahalegindu. Aukera amaigabeak dituzu ahalegintzen jarraitzeko eta abentura berrietan murgiltzeko. Niri dago-kidanez, oraindik gogoan dut nolako emozioz irakurri nituen Emma-ren amoranteen ingurukoak *Madame Bovary* nobelan, edo 17 urtekin gustatzen zitzaidan Iker beltzaren haren oroimenez koadernoan kopiatu nuen Neruda-ren poema ezaguna. Berdin esan nezake Stevensonekin behin eta berriro aurkitu nituen altxorrez, M. Duras-ekin ikasi nituen amodiozko-begiradez,... edo Patricia Highsmith-i esker ezagutu nuen Ripley bihurriaz.

Badakit norbaitek esango didala aukeran interesgarriagoa dela Matt Damon-ek eta G. Paltrow-ek Ripley-ren

gainean egin zuten pelikula ikustea,... baina benetan diotsuet, Matt-en begi argiak zoragarriak izan arren, bihotzean daramadana oraindik Highsmith-ena da.

Hori baitu zoragarria irakurketak,... zure barrunbea benetan astintzeko ahalmena duela, mundua eta harremanak ikusteko modua aldatzen dizula. Horregatik esaten diet ikasleei irakurtzeko gauza onak, ez dela beharrezkoa bidaiatzea urrutiko itsasoak ezagutzeko, horretarako, Melville edo J. London-en lanak irakurri besterik ez dutela. Edo benetako hilketak, krudelkeriak, misterioak nahi badituzte, hortxe daukatela E.A. Poeren istoriotxo bat edo Hammet edo Chandler-en nobelatxo bat. Alegia, zerrendak ez duela amaierarik eta gustu eta pasio bakoitzerako liburu zerrenda luzea daukazula zain.

Hori guztia esan ondoren, gazte askok dituzten aurrejuzku okerrei buruz hitz egin beharko nuke jarraian. Ikasle izan ditudan askorentzat, literatura gauza aspergarria izan ohi baita eta idazleak inozo melankoliko koadrila bat. Oso oker daude, gaur euren ilea urdinez tindatzen duten *poymoderno* horiek baino lehen, XIX. mendean, Baudelaire jaunak halaxe egiten baitzuen, ilea urdinez tindatu eta langostino bat paseatu Pariseko kaleetan barna. Eta kontuz, ez daukat ezer ere ilea urdinez (gorriz, zuriz, morez,...) tindatzen dutenen kontra, kontua bestelakoa da: gaur egun modernotzat dauzkagun janzkera edo jokabide asko eta asko idazleek bere garaian aldarrikatu zituztela. Poe bera beti beltzez jantzita ibiltzen omen zen, gaur egun New York-eko afari *trendy* guztietan onartzen den kolore bakarra.

Zeresanik ez idazle jendea aspergarri edo espezie estralurtarrekoa dela pentsatzen dutenei buruz. Idazleak, gutako asko bezala, aspergarriak izan daitezke, baina, era berean,

arau moral baztertzailen kontrako borrokalariak ere bai (galde diezaiotela, bestela, Wilde-ri), edo drogazale amorratuak (Kerouac, Burroughs,...), alkoholikoak (zerrenda izugarri luzatzen da hemen, baina ezagunenak: Lowry, Poe, ...). Hau da, beste jardueratan bezala, denetarik daukagu idazleen artean. Erromantizismoaren ostean idazletza nolabaiteko ukitu malditoarekin lotu bada ere, ez da derrigorrezkoa markak, zernahi motakoak, apurtzen ibiltzea.

Idazle batek derrigorrezkoak dituen gauza bakarrene-takoak lana, ahalegina eta irakurzaletasuna izan ohi dira. Atxagak berak behin baino gehiagotan adierazi izan du inspirazio kontuak ongi daudela baina lanean harrapatzen bazaitu, hobe. Idazle izateko desirari gogor eusten ez dionak edo irakurzale ez denak, zailtasun handiak izango ditu literaturaren olimpora iristeko.

Eta hau guztia esan ondoren, urruzunotarren artean topatzen ditudan idazle gazteei animuak eman nahiko nizkieke. Segi dezatela, batez ere, literaturarekin ongi pasatzen. Literaturaren mundu honek engantxatu egiten baitu. Nork daki, orain artean ezagun egin zaizkigun hainbat urruzunotarrekin batera (H. Cano, G. Berasaluze, X. Gantzarain,...), etorkizunean ez ote zaizkigun beste hainbat lan liluragarriren egileak sortuko. Ordura artean, *enroilatu*a izan nahi duen irakasle honek irakurtzen jarraituko du, euren lanei esker, amets egiten.

Mari Jose Olaziregi

PROSA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

La dolce vendetta

Iraitz Agirre Aranguren
Almen ikastola
Eskoriatza

La bella Roma. Gazte nintzela iritsi nintzen Siziliatik hiri mirengarri hartara. Emakume burgesek soineko luzeak janzen zituzten, Asiatik ekarritako hegaztien lumekin apaindutako kapelak eta, eskuan zintzilik, uda hartan egiten zuen beroa sahiesteko zetazko eguzkitakoak. Behin eta berriz garbitutako zapaten takoiak kale zabal haietako adokinen artean trabatzen ziren eta marmarrean egindako madarikazioen ostean, senargaiak makurtu eta zurruma hura ateratzen saiatzen ziren. Dotorezia eta luxua izan ziren Erromara iritsi eta ikusi nuen lehen gauza.

Ni, Giorgio Estrada, Siziliako periferian ziren hainbat langile auzo arrunt bateko semea nintzen, sekula nire territorio propio zen auzotik irten gabea. Siziliako kaleetan barrena ere baziren emakume dotoreak, kapelu onddoez janzen ziren gizon perfumatuak, opera ikustera joan ohi ziren bikote aberatsak... baina Erromak bazuen halako zer deskribagaitz bat inoiz bertan egon ez zen nerabe iritsi berri batentzat, edo sikiera hori iruditu zitzaidan niri.

Trena Erromara iritsi bezain pronto, hogeigarren aldiz kontatu nituen zorroan gordetzen nituen txanponak; ez zen

diru asko, baina bizitza berri bati hasiera emateko ez zegoen hain txarto. Aitak azken aldian irabazitako dirua neraman eskumako poltsikoan eta hark izugarritzko erreparua ematen zidan, ikara. “Eta zorigaiztoko lapurren batek kendu izan balit?”. Ez zidan ordea, zorionez, inork lapurtu.

Tren geltokian beharrean zen zaindariari ezagutzen ez nuen amaren lehengusu baten alarguna bizi zen kaleaz galdetu nion. Ostatu non hartu behar nuen idea garbirik ez neukan, baina zinez bost axola zitzaidan lehengusuaren alargunarenean, emagaldu baten etxean edo Aita Santuarenean bertan gelditu behar banuen ere. Italia ez zen lurralde eroso hogeita hamarreko hamarkadan, eta are gutxiago ixiltasunean komunista sentitzen zen mutil gazte batentzat.

Alargunaren etxera iritsi nintzen. Ordu luzeak dotorezia eta luxuaren unibertsoan igaro eta hara iristea, txuritik beltzera igarotzea hainakoa izan zen. Hirigintza geometriko harrigarri batetik, kaosa nagusi zen zoko batean sartu nintzen, eraikuntzek inolako ordena edo legerik obeditzen ez zuen auzo batean. Han langile etxe txiki berdinerdin ilada mugagaitzak, hor landetxe itxurako etxe bat, hemen hiruzpalau pisuko eraikuntza bat. Danielaren etxea, nire amaren lehengusu Giusseperen alargunarena hain zuzen, aipatu landetxearen tankerakoa zen. Iritsi bezain pronto etxea inguratzen zuen puskatutako harresiaren parean gelditu nintzen, begi bistan nuenari so. Oiloak alde batetik bestera zalapartaka zebiltzan, zakurrak zaunkaka, katu begi-bakar bat arratoi baten atzetik korrika. Ihes egiteko gogoia sentitu nuen, baina kurraia Estrada familiaren ezau-garri zela sinistu nahirik, aurrera jo nuen. Baso tropikal antzeko haren erdian nintzelarik, emakume bat agertu zen atetik erratza eskuan zuelarik. “Hireak egin dik” pentsatu nuen “atso honek jo ta bertan hilko hau”.

– Maledetto piccolo! –egin zidan garrasi– ume madarikatua! Zenbat aldiz esan behar dizuet nire lurretan ez sartzeko, eh? Gero, gainera, apaiz alu horrengana joango zarete berriz erratzarekin jo zaituztedala esanaz!

– Daniela Ferro? –galdetu nuen hitz-totelka txapela eskuetan oraturik. Bere erantzuna madarikazio gehiago izan zirenez, altuago errepikatu nuen– Zu al zara Daniela Ferro, Giuseppe Marconiren alarguna?

Andrea berehalakoan isildu zen, galderak harrituta. Nor nintzen galdetu zidan eta Isabellaren semea nintzela erantzun nionean, erratza eskaratzean laga zuen. Presaka gerturatu eta besarkatu egin ninduen. Bere azalak zuen sats usaina erraietaraino sartu zitzaidan eta atzera egin nahi izan nuen, higuina ematen zidan hats hark. Ez nuen ordea deus esan eta sudur-zuloak itxi eta ahotik arnasa hartu beste erremediorik ez nuen izan.

Emakume txiki xamarra zen, oso argala eta bizkarokerra. Irripar egiten zuenean apenas bereizten ziren hortz zein haginak, ez zaintzearen ustelduragatik beltz-beltzak baizeuzkan. Barrura sartzeko gonbita luzatu zidan eta nire logela izango zena erakutsi jarraian. Ez zen logela oso handia, baina leihoa izan bazuen eta hark apur bat lasaitu ninduen, nire klaustrofiatik ihes egiteko bitartekorik onena baitzen. Inork ez zekien leku txikiek beldurra ematen zidatela, amak izan ezik, txikitandik leihoa zuen gela bakarrean jarri baininduen lotan, gainontzeko sei anai-arreben inbidiarako. Sekula ez zuen ordea deus esan eta zinez eskertzen diot hori, osterantzean auzoko haur koldarra ni izanen bainintzateke, Marko Txikiren ordez.

Egunak eman nituen lanpostu baten bila. Hasieran ez nuen ez zorterik izan, baina bi astetara Genovesi jaunaren

fruta dendan hasi nintzen beharrean. Gizon ona zen Genovesi jauna, beti laguntzeko prest dagoen horietakoa. Begiak malkoz blai zituela gogoratzen dut, Napolitik zetorkion ilobari lana eman behar ziola eta kalera bota behar ninduela esan zidanean. Sei hilabete eman nituen fruta dendan lanean eta senitartekoei diru apur bat bidali ahal izan nien behintzat.

Ferro andrearekin gaizki ohitzen hasia nintzen. Hasieran uste izandakotik harago, Daniela emakume zoragarria zen eta gainera, sukaldari bikaina. Aurreneko egunean ikusitako oilasko zalapartariak tipula erraz prestatzen zituenean, munduan zenik eta gizonik aberatsena nintzela pentsatzen nuen. Giorgi andrearen harategian gainontzeko erosleekin liskarrean ibilita lortzen zuen okela ere mundiala zen; etxean egindako torteliniak, hegoaldeko laranja azukre eta urez bustiak... Inguruko sukaldaririk onena zen, nahiz eta garbitze kontutan nahiko aldrebasa izan.

Genovesi jaunarenetik joan eta lauzpabost egunetara, erdialdera eramango ninduen tranbiaren zain nintzela, ni baino zaharragoa zen gizon bat eseri zen nire ondoan. Gizon dotorea zen, txapel onddoduna eta goitik behera perfumatua. Zapi gorri bat zeraman bularreko poltsikoan eta marrazko bere jantzia edertzeko asmoz, landutako makila bat eskuan.

– Buongiorno –esan eta agurra itzuli nion. Bere hizkerak kanpotar kutsua zuen, Frantzia ingurukoa. Ez nuen ezer ere esan.– Lanera al zoaz mutil?

– Ez, mandatu bat egitera noa erdialdera eta zortea izanez gero, ea lanik aurkitzen dudan ikustera. –bibote harrodun gizon haren itaunak apur bat harritu ninduen arren, “frantsesak horrelakoak izanen dituk” pentsatu eta isilik jarraitu nuen.

– Lan bila beraz, *génial* –ez zegoen zalantzarik, frantziarra zen. –Proposamen bat egin nahi dizut gazte. Arduraduna naizen hotelean zerbitzari bat behar dugu jatetxerako. Zuk itxura ona duzu eta berehala moldatuko zara behar berrira. Zer diozu?

Zer esan jakin gabe gelditu nintzen arren, berehala onartu nuen Delacroix jaunaren proposamena, zer egin nezakeen, bestela, horrelako aukera baten aurrean? Ferro andrearen enkargua guztiz ahaztu nuen eta nire nagusi izango zenaren atzetik abiatu nintzen. Europa hotela ez zegoen tranbia geltokitik hain urrun eta oinez egin genuen harainoko bidaia. Erromako hotelik garesti, handi eta ezagunena zen. Italiako oligarkia guztia bertara joan ohi zen eta baita, atzerritik joaten ziren dirudun guztiak.

Zerbitzuko atetik sartu ginen eta berehala utzi ninduen Delacroix jaunak chef-aren esku. Inork ez zidan ez nire izena galdetu, ez nongoa nintzen, ez ezertxo ere, zerbitzari janzkia jantzi nuen arte. Orduan soilik, beste zerbitzari bat gerturatu eta zer egin eta zer egin behar ez nuen gomendatu zidan handik joan nahi ez banuen. Beldurtuta nengoen. Ez nekien nora joan, zer esan eta zeinekin hitz egin. Nahaste-borraste hartan nintzela, chefa gerturatu zitzaidan.

– Nola duk izena mutil?

– Giorgio Estrada, jauna. –erantzun nion oraindik anabastuta.

– Ongi gazte. Sinatu ezak orri honetan. Ba al dakik zer egin behar duan hemen?

– Ez, jauna.

– Banekien. Delacroix nagusi hau ez duk sekula santan aldatuko. Berriak ekarri eta ez ziek deus azaltzen. Ez duk

oso zaila, baina egun bakarra daukak ikasteko, gauerako prest egon behar baituk.

– Baina... –harri eta zur nengoen.

– Sentitzen diat, Picolo, baina ez zeukeagu denborarik. Sinatu ezak orri honetan eta berehala etorriko duk Carlo laguntzera, ados? Arrivederci!

Han gelditu nintzen, geldi, aho-zabalik eta gaitzizen berri batekin. Berehala etorri zen Carlo ea Picolo nor zen galdezka. Egun guztia eduki ninduen platerak nola hartu, nola eramán, nola mahaian utzi, ontziak nola jaso, nola agurtu, nola..., nola ... nola... Nire ile nahasia behin eta berriz orraztu zuen, janzkia ongi jarri, aurpegia garbitu... Ispilura begiratu eta ez nuen nire irudia ikusi, Giorgio Estrada zen bai, baina ez betiko Giorgio Estrada. Ferro andrea kezkatuta egongo zela pentsatu nuen, nire izena madarikatzen edo agian lotan, ezin jakin baizitezkeen emakume hark nola erantzungo zuen horrelako egoera baten aurrean. Burutik kentzen saiatu nintzen eta nire lan berrian arreta jartzen.

Urte hartan egin zen festarik garrantzitsuena izan zen urtarrilaren seiko hura. Aristokraziako jendea etorri zen Venezia zein Florentzietatik, diktadorearen ministroak euren senitartekoekin, Erromako aberatsetan aberatsenak, musikari garrantzitsuak, idazleak... nik inoiz aurretik ikusi gabeko jendea.

Berehala iritsi ziren gonbidatuak euren soineko luze eta jantzi garestiekin. Emakumeak larruzko jaka dotorez jantzita zeuden eta gizonak, panazko traje landuekin. Carlok azkene-ko aginduak eman zizkigun aurreneko gonbidatuak iritsi eta jartzen hasi zirenerako. Niri, hamargarren eta hamaikagarren mahaietan zerbitzatzea suertatu zitzaidan, oso ongi gogora-

tzen dut hori. Jende gehiena iritsi zenean hasi ginen zerbitzariak aurreneko kanapeak eskaintzen: Izokin xerrak, foie be-roa, Mediterraneoko otarrainskak... hura guztia zerbitzen nuen bitartean, halako amorru ulergaitz batek jaten zidan barena. Nola zitekeen aberats madarikatu haiek hura jaten jardutea, gainontzeko herritarrak gosez hiltzen ziren bitartean? Han ziren guztiak madarikatu nituen behin eta berriz, horrekin ni ere sosegatuko nintzelakoan.

Hamaikagarren mahaira jo nuen kanapeak bukatu eta lehen platera eramateko asmoarekin. Ez nintzen mahai hartan eserita zirenak nortzuk ziren pentsatzen nekatu, baina otarrain zopa neramala, unibertsoko neskarik ederrera, miresgarriena eta perfektoena ikusi nuen. Hamazazpi bat urte izango zituen, ni baino pare bat urte gazteagoa. Begi handi berdeak zituen, masail lodi zurbilak, ezpain gorriska haragitsuak eta kopetan bilduta zuen ile beltzaran luzea. Berari begira geratu nintzen otarrain zopa bere aitaren praketara bota nuela konturatu gabe.

– Inozo halakoa! –oihu egin zuen gizon bibotedunak– ez al duzu ikusten guztiz zikindu nauzula ala?

– Barkatu jauna, nahi gabe izan da. –esan nion lotsagorriturik, neska zoragarri hark barre egiten zuen bitartean.

– Hori espero dut, nahita egin izanez gero jo eta bertan txikituko zintuzket eta. Enmanuela mesedez, ez ezazu barrerik egin. –agindu zion barrezka jarraitzen zuen neskari.

– Bai aita, –erantzuten zuen bitartean agurtu nuen isilean Enmanuela, bera ere niri so zela.

Sukaldean sartu eta ondoan zegoen zerbitzariari galde-tu nion ea nor ote zen Enmanuela, ateko leihotik begira

nintzaiolarik. Lankideak Enmanuela Angiolini zela aitortu zidan, diktadorearen, Duce berberaren gobernu-kide garrantzitsu baten alaba. Mina sentitu nuen bihotzean; unibertsoko neskarik ederrena ezagutu berri nuen eta faxista madarikatu baten alaba izan behar.

Gonbidatuek lehenengo platera jan bitartean itxaron genuen zerbitzari guztiok sukaldeko ate parean. Nire begirada irmo mantentzen zen begi berde haietan eta hauek ere nire begietara so zeuden lotsagabe. Irrifar egin nuen eta ezpain gorriska haiek ere berdin egin zuten. Bigarren platera zerbitzeko garaian denak berdin jarraitu zuen. Neskaren aitak mesfidati begiratzen zidan arren, ni bere alabaren edertasunean mozkortuta nengoen, beste inori kasu egiteko. Nire garunek eztanda egin zuten, azpizun platerarekin Enmanuelaren atzetik iragan eta inoiz aurretik usaindu gabeko perfumerik gozoena, erraietan barrena sartu zitzaidan. Azal hura ferekatzearen ezintasunean, nire zentzumen guztiekin baliatuz, orgasmo zoragarri bat sentitzen ari nintzen nire barrenean. Hamaikagarren mahaitik urrundu nintzen.

Sukaldeko atean zutik jarraitzen genuen zerbitzariok marrubizko izozkia mahaietara eramane zain. Hamaikagarren mahaira gerturatzea desio nuen eta hori imajinatzen nabilela, Enmanuela zutitu eta komunera joateko zutitu zen. Barruan sentitzen nuen ekaitza baretu zen orduan. Enmanuelaren presentzia ezak itsaslabarretan talka egiten duten olatuen baretzea ekarri zuen. Pentsatzen jarri nintzen. Eta ni ere komunera gerturatzen banintzen? Sikiera berarekin hitz egingo nuke. “Lotsagabe bat haizela pentsatuko dik. Eta ni bere atzetik joateko joan baduk? Ez, begiradaren bat edo beste egingo lidake. Zertan habil Giorgio? Amets bat besterik ez duk.” Nire buruari berriz pentsatzeko betarik eman gabe, komunera abiatu nintzen. Carlok harrিতuta begi-

ratu zidan, baina orduan berdin zitzaidan. Enmanuelarekin egoteko beharra sentitzen nuen, nahia eta desioa.

Emakumezkoen komunaren atean itxaron nuen. Begiak margotzen imajinatzen nuen, sudurra eta masailak hautsez makilatzen ... Atea zabaldu zen. Han zegoen, lehen bezain eder eta diztiratsu. Irrifartsu begiratzen zidan, hura guztia jolas bat bailitzan, eta agian izan bazen, nik aurkakorik nahi banuen ere.

– Buenasera –agurtu ninduen.

Zer esan jakin gabe gelditu nintzen, ikaratuta eta geldi. Berriz ere agurtu ninduen eta zer gertatzen zitzaidan galdetu.

– Kaixo, Giorgio naiz. –esan nion azkenik.

– Kaixo, ni Enmanuela. Pozten nau zu ezagutzeak.

Begira gelditu ginen besterik esan gabe. Bere edertasun hitsak barrua jaten zidan, odola irakiten, bihotza saltoka, burua eztanda egin beharrean, hankarte gogortzen eta aurretik inoiz sentitu gabea jazotzen. Lerdenegia zen nire unibertso txikia ezkututzen zuten begi lausotuetarako.

– Urduri al zaude? –zuzendu zidan itauna. Nik ezezkoa erantzun nion, kontrakoa zela begi-bistakoa izan arren. –Artega sumatzen zaitut. Nire presentziak larritzen al zaitu bada?

Ez nuen deus ere esan. Bere bidea egin zain dagoen ibai xidorra legez jokatu nuen, tentuz eta isilik, egoerak berea egin zezan itxaroten bezala. Gerturatu egin zen. Jakin bazekien bere gertutasunak liluratzen eta aldi berean beldurtzen ninduela, baina jarraitu egin zuen. Gustura zegoen. Behin eta berriz galdetu zidan ea urduri ote nengoen berarekin. Nire isiltasun etenaldi bakoitzeko pauso txiki bat egiten zuen aurrera. “Eta orain?” esan zuen azkenik.

Orduan sentitu nituen bere hatzamar gozoak nire masailetik behera labaintzen. Poliki nire aurpegira gerturatu eta ezpain heze, samur haiekin musukatu ninduen.

Nola jakin gabe sartu ninduen komun dotore hartan. Marmol txuriz apainduta zegoen guztia, larrosa gorriak lorontzietan, urrezko markuak ispiluetan... jazmin usainez perfumatutako leku hartan sentituko nuena ez zen berriro inoiz errepikatuko. Ez nuen berriro ere inoiz sentituko.

Soineko luze haren barruan ikusi nuen ene burua, itsasoko ur gaziaren usainak zorutzen ninduen bitartean. Diktadore ankerraren kastako baten sekretuak dastatzen ari nintzen, baina ongi sentitzen nintzen, paradisuari. Zoragarria izan zen nire gorputza here gorputzean sentitu nuenean. Sartu irten bakoitzak itotzen ninduen, hala eta guztiz ere, unibertsoan zenik eta gizonik aberatsena nintzelako arguilua nuen nire baitan. Hazia isuri nuen.

Enmanuelak erantzitako soinekoa jantzi eta ispilura zuzendu zen. Ileak bere lekura itzuli ostean, aurpegia garbitu zuen. Ni bere atzean altxatu nintzen eta berari so geratu. Bira eman zuen.

– Itzuli zaitez beharrera Giorgio, non sartu ote zaren galdezka ibiliko baitira gainontzekoak honezkero eta.

Horrela itzuli zen, buelta erdirik eman gabe, bere aita eta gainontzeko ministro eta dena delakoak ziren mahaira. Ez zidan begiratu ere egin hamaikagarren mahaira champagne-a banatzera joan nintzenean. Ez eta mahaitik altxatzeko aulkia atzeratu nionean ere. Komunean gertatutakoa ez zen, nonbait, deus izan berarentzat.

Zapalduta nengoen, zer boteretsuago batek makurrarazita. Enmanuelaren izena madarikatu nuen behin eta berri-

ro, behin eta betiko. Gorroto nuen. Higuina ematen zidan gorputz zoragarri hura ukitu izanak. Bere usainari aiher nintzaion, bere edertasunari, bere izateari...

Ez nuen berriro inoiz ere ikusi. Bere irudiak torturatu izan nau zenbait urte luzeetan, batez ere ametsetan. Ez nuen ordea inoiz ikusi, gaur arte. Dagoeneko ez naiz orduan nintzen bezain gaztea, nerabea edo ezjakina. Ikusi dut eta aurreneko aldi hartan sentitutako bera sentitu dut. Ederra zegoen oso, bere begi berde eta masail gorrituekin, baina zaharrago, imperfektoago. Europa hoteleko komunean egingakoaren sentipena nabaritu dut nire erraietan eta bero sentitu dut nire hankartea. Mila emakume eta emagalduk berrogei urte hauetan lortu ez dutena lortu du berriro Enmanuela Angiolinik, sekula ezagutu dudan emakumerik ederrenak, zorionez desagertutako diktadorearen ministroaren alabak, maltzurkeriaren ankertasunak. Gaurkoan, aldiz, ez naiz zapalduta sentitu zer boteretsu batek makurrarazita. Gaurkoan nik makurrarazi dut iragana, Enmanuela madarikatu horren hilotza egurrezko kaxa hartan ikusi dudanean. Inoiz aurretik pairatutako orgasmorik bortitzena izan da Erromako eliza dotore horretan sentitutakoa. Oh Madonna! Gorrotoak asaldatu nau nire apaltasunetik.

Molto grazie Enmanuela. Zureganako gorrotoa ezean, ez bainuen sekula horrelakorik sentituko. Zenbaitzuek bizitzaren ironia dela diote. Beste batzuek paradoxa edo inkoherentzia. Nik, mendekua deritzot, ez baitago maite izan zaituen norbaiten gorrotoa baino mendeku handiagorik. Mille grazie e arrivederci.

Gizateriaren urratsak

Jon Haitz Legarreta Gorroño
Mungiako institutua
Mungia

Aitonak zera esan zuen behin, “Ez zaitez saiatu ikusten ez duzunari aurka egiten, seme”. Gogoan dut oraindik hura bota zueneko aldia: senide guztiok biltzen ginen urtean behin, gutxienez, egun oso bat elkarrekin igarotzeko. Uztailaren 21a izaten zen, lurralde berri hartara heldu gineneko eguna. Hamaika izaten ginen elkar ikusteko eta kontu-kontari ibiltzeko aukera hura ez genuen inoiz galtzen. Ondo astintzen genuen mingaina, bai. Aitonak eta amonak gauza berriren bat kontaktzen ziguten urtero, eta beraientzat hain garrantzitsua zen entzunak izateko nahia eta beharra aldi baterako asetzen zuten.

Jolaserako astirik ez nuen izaten nik horrelakoetan; bazkalondoan amaren ondora hurbildu eta edadetuenek beraien sekretuak noiz argitara aterako zain egoten nintzen. Batzuetan lo geratzen nintzen amaren magalean. Bitartean, nire lehengusu eta neba-arrebek gure etxe inguruko sahatsen ostean kukumikuka aritzen ziren. Inoiz ni ere jolasten nintzen, derrigorrean. Behinola, ostentzea egokitu zitzaidan batean, arratsalde osoa eman zuten nire bila. Zeruari begira geratu nintzen zuhaitz baten adarretan, munduaz ahazturik.

Ordukoa hemeretzigarren urtea zen eguzkia eta ilargia egunero agertu eta ezkututzen ikusten genituena. Izan ere, guk noizbehinka bakarrik ikusi ahal izaten genituen zeruetako gorputz hauek, udan eguzkiak muzin egiten baitzion sartzeari eta neguan ez zelako ausartzen irtetera. Zer zati bi haiek gure buruetara noiz jausiko pentsatzen jardun nuen nik etxetik kanpo bizi nintzenetik. Baina ilargiak erakartzen ninduen gehiago; gau batzuetan borobila zen eta beste batzuetan kirten gabeko igitaiaren itxura izaten zuen. Dirudienez, ez zizkidan bere lilura eta kontu guztiak erakutsi nahi izaten, nik adi-adi itxaroten nion arren.

Gure herriak milaka urte eman zituen zeruari begira. Eta itsasoz egindako bidaia aitzindarietan izarrek erakusten zieten bidea. Aparteko gerlari eta konkistatzaileak izan omen ziren gure arbasoak. Buruari doitasun handiz egokitzen zitzaizkion metalezko babesgarriak eramaten zituzten, haietako askok behi adarrak alde banatan zeramatzatelarik. Ohitura zahar horiek aspaldian galdu dira, baina oraindik ilehori eta ilegorriak gara.

Gure bizilagunek bikingo deitzen digute. Baina hitz hori ezagutu arte denbora luzea igaro da nire amaren sabelak kanporatu ninduenetik. Hermansverk (Norvegia) delako herrixkan jaio nintzen 1928an. Zerbaiten beldurrez ondo ezkutaturik zegoela ematen zuen gure herriak; mendi garaiek inguratzen zuten, babesa eman nahirik, eta itsasoak ihesbide izan nahi zuen guretzat. Zurez eta harriz egindako etxe txikietan bizi ginen eta arrantza zen gure bizibidea. Horrez gain, artalde txiki batek eta noizean behin harapatzen genuen oreinek eskaintzen ziguten elikagaia.

Baina herria hustuz zihoan, bizitza gero eta zailagoa zen guztiontzat. Berrehun bat lagun izango ginen ni jaio

nintzenean eta kopuru hori jaitsiz joan zen hazten nintzen heinean. Amonak hazi gintuen arreba biak eta ni, aitak arrantzan joan behar izaten baitzuen eta ama barnealdeko herrietara joaten zen, arrainen truke ogia, irina... lortzeko. Garai hura gogorra izan zen guztiontzat. Hala ere jolasari eta zoriontasunari tartetxo bat egiten genien noizbehinka –nik behintzat–: artaldea etxeratu behar izaten zen bakoitzean esaterako, nik hartzen nuen lanaren ardura, zeren ongi bainekien mendian gora igo eta ardiak beherantz abiaraziaz batera ni ahariaren gainean jarri eta berak jaitsiko ninduela. Batzuetan lurrera botatzen ninduen eta maldan behera jausten nintzen, etxera artaldea baino lehenago azalduz. Goiz edo berandu haiek ere heltzen ziren.

Joan ziren garai haiek eta, beraiekin batera, herritarrak. “Amerika” izeneko lurralderantz gero eta jende gehiago abiatzen hasi zen, bizimodu hobea baten bila. Ez ziren itsasoratzen gure arbasoek erabiltzen zituzten moduko ontzietan. Zahar geratu ziren alde bietan ezkutuz betetako masta bakarreko zurezko txalupak. Metalezkoak omen ziren orain. Baina horiek ikusteko bide luzea egin behar zen portu handietaraino.

1940an heldu zitzaigun txanda, herria atzean uztekoa alegia. Denbora dezente generaman bidaia prestatzen eta horretan genbiltzala aurrez ezagutzen ez genuen zerbaitekin topo egin genuen: “dirua” delako zer hori. Entzuna genuen, bai, itsasoa zeharkatzen zuten ontzi haietan sartzeko “txanponak” behar zirela –eta ez gutxi–, baina norbaiten aurpegia grabatuta zekarten “txanpon” baliotsu haiek ikustean harritu egin ginen. Metalezkoak ziren. Bada, horiek batzeari, beno, pilatzeari, ekin genion, ez baitziren beldar artean hazten: ardiak, arraina... diruaren truke eman genituen. Hilabete latzak izan ziren haiek, ez genuen aho-

ra eramateko askorik izan-eta. Etxea eta lursailak ezin izan genituen gurekin eraman eta dirutan eman genituen haiek ere.

Oso oker ez banago, maiatzaren 17an utzi genuen herria, bizilagun berriek etxea hartu zuten egun berberean. Gurekin batera, herriko beste bi familia oso abiatu ziren; herrian Olesen zoroa besterik ez zen geratu. Egia esan, gizon jatorra zen, aitarekin arrantzan ibilia, baina emazteak bere buruaz beste egin zuenetik ez zebilen oso ondo. Gurekin etor zedin eskatu genion baina uko egin zion eskaintzari, zainduko zuela bere burua...

Kontuak kontu, joan ginen itsasontziak egon ohi ziren herrira eta igo ginen metalezko ontzietara. Izugarri handiak ziren, gure egurrezko txalupen aldean leku handia zuten. Baina ez zuten mastarik, ezta belarik ere: itsasoko bide osoan zehar zera galdetu nion nire buruari, nola demontre mugitzen zen txalupa erraldoi hura aurrerantz—edo atzerantz, edo alborantz? batek daki norantz egiten zuen itsasoa zen handitasun hartan—. Azkenean urdinez jantzitako gizon txapeldun bati egin nion itauna. Ontzi osoan gora eta behera erabili ninduen, makina-gelan, aginte-gelan...

Zorigaitzak, ostera, erakutsi zigun bere aurpegia egun haietan ere. Egun gutxi igaroak ziren amonaren ahizpa bikia ontzian hil zenean, gauez, loak hartu eta ez zen berriro iratzarri. Itsasontziko nagusiak bere doluminak eman zizkigun eta hileta apal bat egitea eskaini zigun uretako ibiltari hartan bertan. Heriotzaren hurrengo goizean egin zen elizkizun edo “untzikizun” hura; kapitaina, senitartekoak eta lagun batzuk bildu ginen ontzi gainean. Leku guztietara hedatu zen isiltasunak beldurtu egin ninduen. Otoitzen

ostean amona kaxa batean sartu eta uretara bota zuten. Amari galdetu nion zergatik; ez zidan erantzun. Eguna itsasoari, zeruari begira eman nuen.

Aste ugari ura zeharkatuz eta herrialde ezezagunetan geldialdiak eginez –itsasontziak ere “elikagaia” behar zuela eta- eman ondoren, 1940ko uztailaren 2lean heldu ginen azkenean aukeren herrialdera: Ameriketara.

Itzelezko beroa egiten zuen orduan portuan, eta gu holtzak hilik bizi izan ginen ordura arte aspaldiko herrian. Berehala kendu genituen soineko larruak, bai guk eta bai gure lagunak. Zoritxarrez, portuan banandu ziren gure bizitzak. Osaba eta bi lehengusuekin ez genuen harremana galdu. Baina agian ez nuen gehiago ikusiko Thór Gudbjartsson, edo Ole Thorvalsson eta bere arreba Karen, itsasontzian nire begiak betetzen zituen neska ilehoria. Masailetan bi musuren oroitzapena oparitu zidan, eta inoiz ahaztuko ez nuela esan nion; berak nora zihoazen esan zidan: Oklahomara. Egunen baten joango nintzela agindu nion.

Adioen ondoren bakoitzak bere bideari ekin zion, saminez. Gu herriko lagun batekin abiatu ginen. Floridan geratzeko asmoa zuen honek, eta guk, inora joaterik ez genuenez, berari jarraitzea erabaki genuen. Pozik agertu zen, horrela ez zela bakarrik geratuko eta.

Itxuraz, portuan jendearen zain egoten ziren “taxilariak” edo holakoren bat deitzen ziren gizonak. Beraien ibilgailuak oso bereziak ziren: ez zuten zaldirik edo horrelako animaliarik erabiltzen eta ez ziren metalezko bi burdinen gaintetik ibiltzen, trenen antzera. Lau gurpil zituzten guztiek eta leihoz eta metalez estalitako oinetakoen itxura zuten. Batzuek, gainera, ez zuten sabairik eta beste ba-

tzuek, ostera, atzealdean zamak eramateko toki ireki bat zuten. Asko ginenez, azken modelo hori erabili genuen norakora heltzeko. Bide batez, zein zen ba gurea? Portutik ateratzen ziren bideetan bide-seinale ugari zeuden, eta guk helbide finkorik ezean, kostaldeko herri txikiren batera eramateko eskatu genion taxilariari. Baina ez zuen gure hizkuntza hitz egiten. Nik neure buruari arazo horren zergatia galdetzen nion bitartean, aita eta bere lagun Jens Boe moldatu ziren gidariak mezua uler zezan. Zera erantzun zuen:

– Ooohhh! Ai nou uer it is that pleis: iu uont tu gou tu Keip Kannaberal Isen it? Beri ekspensif trip. –Edo holakoren bat–.

Baietza eman genion, ulertu, ulertu... guztiz ulertu ez genuen arren. “Miami” idazten zen tokitik atera ginen, ba, Keip Kannaberalerantz. Seinaleetan esaten zenez, ia 200 milia zeuden haraino, bost orduko bidaia. Gure gauzak ibilgailura igotzen ari ginenean herri urrun hartara eramango gintuen gizonari begiratu nion, lehen aldiz: Zer demontre zen hura?! Itzal bat, kaka koloreko gizona, Miamiko eguzkiak erretakoa... nik jakingo nuen ba! Gainera ez zuen ilerik eta hortzak zuri-zuriak zituen. Nolatan heldu zen mundura gizon hura? Galdera horiek guztiak bueltaka ibili zitzaizkidan bidai osoan. Kontua da, bidean ere ikusi nituela bera bezalako gizonak ere, eta, are gehiago, emakume eta haurrak baita ere. Zur eta lur nengoen. Aurreiritzi eta bitxikeria hauek alde batera utzita, tipo jatorra zen gidaria; irribarrez erantzuten zuen beti. Bitartean, nik paisaia ikertzen nuen. Hermansverken elurra utzi genuen Ameriketarantz abiatu ginenean, hemen, berriz, beroak itsaso bat osatzeko lain izerdi botarazten zigun. Bertan urtuko nintzelako susmoa nuen. Hala ere, bidearen

bi aldeetara jendea lanean ikusten zen, arbola txiki batzuetatik gauza borobil eta berde, hori eta laranja hartzen, gero saski erraldoietara botatzeko. Atsegina zen, bai, Floridako ikuspegia.

Orduak joan eta orduak etorri, azkenean heldu ginen herrixkara. “Kanabera” deitzen ziren zuhaixkaz beterik zegoen ingurua. Gustatu zitzaidan. Taxilariari ordaindu beharra zegoen, eta ez gutxi; aldean generamatzan txanpon gehienak eman behar izan genizkion.

Bizitza berri bat hasi zen guretzat orduan: aita herriko argi dorreko gizonaren laguntzaile gisa hasi zen; amak herriko denda bakarrean lanpostua lortu zuen eta izebak posta banatzen zuen. Arreba biak eta ni gaztetxoak ginen eta “eskola” izeneko tokira joaten hasi ginen astean bost aldiz. Gure adineko herriko neska-mutilekin batera joaten ginen. Guretzat oso zaila izan zen hasieran, ez baikenuen hizkuntza ezagutzen, ezta berau irakurtzen eta idazten ere. Arratsaldeetan ere geratu egin behar izaten genuen hirurok atzeratutakoa ikasteko. Johnson andereñoari esker berehala igarotzen ziren orduak. Bere bikingo txikiak ginela esaten zigun.

Herriko jendea ez zen oso atsegina, batez ere kaka koloreko familia baten lagunak ginelako. Beraien semea, Billy, nire lagunik hoberena zen eta alaba nire arrebekin ibiltzen zen. Behin zera itaundu nion Billyri, ea zergatik zuen kaka kolorea. Hitz erdirik esan gabe muturreko ederra eman eta bide erdian seko utzi ninduen. Etxera odola sudurretik zeridala heldu nintzen. Amak zer gertatu zitzaidan galdetzean nik gertatutakoa esan eta hara non, zaplastako bat jaso nuen. Aitarengana jo nuen, kontsolamendu bila. Hark lasaitzen ninduen beti.

Egun batean argi dorreko gizona hil egin zen; aitak sekulako nahigabea hartu zuen. Orain berari zegokion argi dorrea zaindu eta itsasoan zeuden itsasontziak ondo bideratzea. Argi dorreko etxera joan ginen bizitzera. Jens-i utzi genion lehengo etxebizitza, bere soldatak doi-doi ostatu batean bizitzeko adina ematen baitzion.

Argi dorrea leku paregabean zegoen, herritik ez oso urrun eta basoz eta kanaberaz inguratuta. Nik zeruari begira denbora ugari ematen jarraitzen nuen, gauetz batez ere. Gaua, hori baitzen nire altxorra. Afalondoaren zain egoten nintzen beti ilargia noiz agertuko zain, Hermansverken egiten nuen antzera. Ameriketako ilargia eta gure herrikoa oso antzekoak ziren, lehen itxuraz behintzat. Egunen batean jausi eta azpian hartuko ote ninduen pentsatzen nuen; era berean, inor bertan biziko zen jakiteko irrika ere banuen.

Lurrean ez zen ilargiaren bakearen parekorik bizi: “Europa” deitzen zen itsasoz bestaldeko lurraldean jende asko hiltzen ari zen, Estatu Batuetakoak barne. Bibote xelebrea zuen bele plantako gizon batek piztu zuela guda esaten ziguten. Baina oso boteretsua zen eta bera zen jendea karioletan sartzen zuena. Estatu Batuen laguntza behar izan zen guda bukatzeko: 1945eko abuztuaren 6an gure lurraldetik urrun zegoen tokiren batean lehergailu bat botatzea agindu zuen Truman jaunak, gure lurralde berriko lehendakariak, eta hiru egun geroago beste jaurtiketa bat agindu zuen, handik hurbil. Gure harrotasunerako, Estatu Batuak izan ziren garaile bakar gerra hartan, izan ere guda guri eta ez beste inori esker bukatu zela sinestarazi ziguten-eta.

Bost urte geroago niri egokitu zitzaidan bizitza estatuaren alde arriskatzea. Garai hartan, merezi zuela uste

nuen. Koreara joan ginen. Hango ikuspegiak zeharo izutu eta aldatu ninduen. Arerioak txikitzeko agindua jaso genuen, aurrera egiteko, errukirik ez izateko... Koreako lurralde lokaztuetan iparraldeko eta hegoaldeko bizilagun eta auzokideek elkarren aurka ziharduten. Gu hegoaldekoen alde ei geunden. Ez ziguten azalpenik eman: iparraldekoek gure nazioa kaltetu zezaketela besterik ez. Jendea belauniko jartzen zitzaigun, ez hiltzeko, arren, eskatuz. Nik hildako asko errugabeak izango ziren, baina krudelkeria zen nagusi han. Malko ugari isuri nituen, lagun zirenen eta ez zirenen heriotzarengatik. Etxean heroiak bezala hartu gintuzten. Ni ez nintzen heroia baina, hiltzailea baizik.

Baina etxean gauzak ez zihoazen ondo. Aitona ni Korean nengoela lurperatu zuten, ama gaixorik zegoen eta aitari gutun mamitsu batzuk heldu zitzaizkion. Irakurtzen doi-doi zekien eta arreba gazteenari eman zion lan hori: negar egin zuen lehenengo gutuna bukatzean. Argi dorrea zegoen lekuan espazioaren esploraziorako zentroa eraiki nahi zuen gobernuak. Aitari bihotzekoak eman ez zionean! Hiriko bizitza eskaini eta lanpostu bat bilatuko zioten. Gerratik etorri berria nintzela, sekulako automobil ilara heldu zen etxera. Gorbata eta trajea zeramatzaten gizonak irten ziren haietatik. Argi dorreaz hitz egin nahi zuten. Aitak barrura sartzeko esan zien. Ez ziren guztiak sartu eta batzuk kanpoan geratu ziren, etxeari jiraka. Estatu Batuen eta bere herritarren onerako izango omen zen Keip Kannaberalgo zentroa. Aitak ez zuen 15 urtez bere etxea izanikoa utzi nahi, ordea, eta hura bota gabe inguruetan zelai ugari zituztela erantzun zien. Berak ere emango zuen zatiren bat beharrezkoa bazen. Ordu pare bateko solasaldi estugarriaren ondoren “Elkar ikusiko dugu aurrerantzean” esanez joan ziren atzean itzelezko hauts-hodeia utziz. He-

rrian berria berehala zabaldu zen eta gureganako mesfidantza areagotu egin zen. Noizean behin irainak entzun behar izaten genituen. Gizon boteretsuen bisitak, gutunak, deiak... astero izaten genituen. Hori ez zen txarrena izan: 1955eko otsailaren 7an amona etxetik eraman zuten, ama bakarrik zegoenean. Aitak ezetzean jarraitu zuen, baina amona salbu ekartzeko edozer egingo zuen. Lehenbailehen herriko polizia-etxera joan zen; poliziak ez zion jaramonik egin eta orduan zerbaitez ohartu zen: aurrean, edo atzean, estatua zegoen.

Otsailaren 9an eskutitz bat heldu zen etxera: arratsaldean etxez aldatzeko kamioia atarian agertuko zen. Eskaintza onartuz gero, amona bidean aurkituko genuen. Guztiok izutu ginen. Amaren pneumoniak txarrera egin zuen eta goiz hartan utzi gintuen. “Zaindu zuen buruak. Ez zaitezte arazoetan sartu” izan ziren haren azken hitzak. Medikuaren ahaleginak alferrik izan ziren. Lauretarako heldu zen ibilgailua. Atsekabez, gure etxea utzi behar izan genuen, urteroko familia-bazkariak, zeruari begiratzeko igotzen nintzen sahasa, Billy... guztia atzean geratzeko zen. Lur jota geunden arren, txarrena ikusteko zegoen.

Bideari ekin eta berehala aurkitu genuen amona, baina odol putzu baten erdian zegoen, buruan zulo bi zituela. Aitak mendekua hartuko zuela zin egin zuen. Tallahaseen bukatu zen gure bizitzako egunik txarrena. Gidariak ez zigun kobratu. Aitak hurbilegi utzi gintuztela esan zuen heldu bezain laster. Inork ez zion ulertu, aste bete pasatu arte.

Kanaberen paradisian hasi ziren, bai, lanak. Telebista guztietan agertzen zen Keip Kannaberal, Estatu Batuen ikur berri bihurtuko zena. 1955eko apirileko ostiral hartan milaka lagun ari ziren lanean arestian gure habia izaniko

tokian; jende garrantzitsuak zuzentzen zituen langileak. Eguerdian aita ez zen lanetik bueltatu; kezkatzen hasi ginen. Lau tiro entzun ziren paradisuari: gizon baten gorpua zerraldo jausi zen, Eisenhowerren aurrean jausitakoa aita zen. Telebista eta irratiak gaizkilea zela esan zuten. Gauez itzuli ziguten aita etxera, egurrezko kutxa baten sartuta. Ekarri zuten gizonak ez ziguten hitz erdirik esan, ezta begiradarik zuzendu ere.

1958ko urtarrilaren 31n Keip Kannaberalgo zentrotik Explorer 1a jaurti zuten, lehenengo satelite estatubatuarra. Urte bereko azaroan NASA sortu zen eta hortik aurrera espazioaren esplorazioa ez da gelditu. Hori gehien bultzatu zuen lehendakaria John F. Kennedy izan zen, 1960an aukeratutako alderdi demokratiko katolikoa. Nik ez nuen hauteskundeetan parte hartzen; Korean bizitakoak begiak ireki zizkidan. Baina norbaitek guri egindako kaltea ordaindu beharra zuelakoan nengoen. Helduko zen eguna noizbait.

Oklahomara joana nintzen Karenen bila eta estatu hura goitik behera arakatu ondoren aurkitu nuen azkenean. Bakarrik zegoen. 1956an ezkondu ginen eta urte berean alaba jaio zen: Sisse. Oklahoman bizi ginen, ehunka kilometrotan hedatzen ziren zelai eta basoen ondoan. Nire bizitzan zorientasuna kuku egiten hasi zitzaidan.

1963ko udazkenean Kennedy herrialde osoan bidaiatzen hasi zen, hurrengo urteko hauteskundeak zirela eta. Karenek lehendakaria ikusteko irrika zuen eta azaroaren 22an Dallasera (Texas) joango zen, Oklahomako hegoaldeko oso hurbil. Orduan nire baitan egonezina piztu zen, herrialde hari garai batean izan nion gorrotoa berragertu zen. Kennedy zen erruduna niretzat orain. Deabrua nire

arimaz jabetu zen. Baiezkoa eman nion Kareni. Goizean goiz heldu ginen Dallasera eta eguerdirako prest geunden lehendakaria ikusteko. Karen eta Sisse belarrez estalitako gaintxoan geratu ziren. Nik trenbidera jo nuen. Hantxe zertorren auto irekia; tiro bat entzun zen; bigarren bala bat nire pistolatik irten zen, erantzun modura. Pistola gorde eta sortu zen iskanbilari esker poliziak ez ninduen harapatu. Gertatutakoa betiko ahaztuko nuela zin egin nion nire buruari.

Gaur 1969ko uztailaren 21a da, 29 urte dira hona heldu nintzenetik; familiakoak berriz batu gara aspaldiko partez eguna pasatzeko. Neil Alden Armstrongek zera esan du ilargian “Hau urrats txikia da gizakiarentzat, baina handia gizateriarentzat” Nire familia hautsi zuen erakundearen asmoa bete du. Hala ere, ez da berea erantzukizuna. Aitonak behin esandakoa ulertzea lortu dut azkenean, gizateria ikusezina baita eta bere aurrerabidean ez baitu gupidarik izaten.

Munduko tokiren batean, historiara pasatuko ez den egunen batean.

Amaierarik gabeko gutuna

Iñaki Arruti Arruti
Santo Tomas Lizeoa
Donostia

Adiskide maitea:

Egia esan, denbora luzea zaramanat hirekin harremanetan jarri nahian, baina ez zekinat non bizi haizen eta, beraz, neure eskutitza nora bidali jakin ezinean egon naun.

Naharoki saiatu naun nire ideiak odolez izkiriatu eta haizeak elez-ele, letraz-letra, iparrera eta sartaldera, hegora eta sortaldera, udazkeneko orbel lehorrarekin nahastuz, zabaldu eta higanaino helarazten. Baina ihardespenik ez.

Eskutitza itsasora ere jaurti izan dinat, hizkiak bertako uretan hedatu zitezten eta olatuek harkaitzekin talka egitean euren orroez nire eskaria oihuka zezaten hik entzuteko bezain ozen, eta berauek aspertu eta hondartzako harean nire berbak lagatzean, kaioek irakurri eta marruma zorrotzez isiltasun guztiak zula zitzaten. Saiakera hutsala.

Baina, bazakinat bai, gutun hau ez dela antzua izanen. Hitz hauek ez ditun larrazkeneko hostaila artean sundatuko, ez ditun labarretako haitz ebakien aurka apurtu eta itoko, ez ditun hareko denboraren lorratzetan betiko alferrikalduko.

Izan ere, logela honetan sartu orduko ohartu bainaun hi ere bertan hagoela. Hire begirik gabeko begirada, sugea bailitzan, nire arimaren zirrikituetatik sartzen nabaritu dinat, hire arnasik gabeko hatsa golkoan ur bihurtu eta bizkarrean behera labainduz hotzikarak sortzen hauteman dinat, eta hire oihalik gabeko soineko beltzak harantz eta honantz dantzan dabilzala jabetu naun, nire gorputza behin eta berriz ferekatu nahian.

Dagoeneko ohartu naun, nire altzoan eseririk, nik idatzi ahala, gutun hau irakurtzen ari haizela, bizitzan bezala, izkiriatu bezain laster hitzak heureganatuz eta beraien kolore gorria goibelduz, ilunduz, belztuz.

Hire presentzia izan dun hain zuzen ere, nire bihotzeko zuhaitz malatsa astindu duena eta bertako fruituetako desira ezkutuen hazia idazketaren soro emankorrean erein duena, hitz hauek zitu dituen zuhaixka ernalduz. Fruitu hauen xedea hire heriotz gosea zirikatuz, nire eskaria betetzea dun.

Baina, nire guraria betetzea ez zain batere lan zaila suertatuko, zeregin aisit eta gustagarria izango dun hiretzat. Izan ere, azkenaldi honetan nabaritu baitinat hi heu ere nire atzetik habilela heure mende hartzeko eginahalak eginaz. Horren adierazgarri ditun, hondar aste hauetan izandako hire zenbait morroiren ikustaldiak.

Goiz batean jeiki nintzenean, nire harridurarako ohean bakarrik ez nengoela ohartu nindunan, bakardadearen konpainia ninan eta elkarri eskuburdinez loturik geundenan.

“Egunon” esan zidanan irribarre ironiko batez. “Ni, bakardadea, izango naiz hemendik aurrera zure lagun bakarra eta betierekoa, eskuburdinen giltza heriotzak beste-

rik ez baitu. Gaurtik aurrera bertako biztanle zu soilik izango zaren mundu batean biziko zara eta ni berorren jainko eta agintari izango naiz” adierazi zidan eskumuturra eutsi eta ordulariko segundo-orratza, minutu-orratza eta ordu-orratza kendu zizkidan bitartean, neure bizitzako denbora betiko geratuz eta luze eta amaigabe bilakatuz.

Egun gutxi igaro hitunan hire otseinetako bat berriz ere nigana igorri huenean. Iluntasuna zunan. Enegana hurbildu bezain laster, behe laino itxi batek nire ingurua besarkatu zinan eta itzalek nire etxea siliatu zintan, errealitatea gerlari beltzek erail balute legez, neure begibistatik alde egin zidan.

Iluntasunak irudimenaren munduan barrena barneratu nindin, benetako errealitate gordinaren isla den munduan. Milaka zatitan, miloika pusketatan apurturiko ispilubaten aurrean jarrarazi nindin eta bertan nire islada ikusi ninan. Dagoeneko ez zunan ispilua apurtu aurretik islatzen zuen irudia bereizten, baina nire malkoak eta aurpegi tristea, beira zati txikietan behin eta berriz islatzen zituan eta orduz gero, mila aldiz garratzagoak, miloika bider goibela goak ditun.

Nire aldizkako irribartxo lotsatiak, berriz, ez zituan islatzen, gerizek euren guraize zorrotzez moztu egiten zizkidatenan eta iluntasunak bere beso artean bahitu eta nigandik ezkutatzen zitinan.

Etxeko txirrinak nire patuaren adierazgarri, agoniakoaren moduan jo zuenean ere, hire miraberen bat izango zela pentsatu ninan. Nire susmoak ez zituan, ez, okerrak.

Atea ireki orduko, musika kaxa bat zabaldu izan banu bezala, blues lasai eta melankoliko baten lehen doinuak

heldu zitunan nire belarrietara. Isiltasuna zunan, bere saxo beltzaz, melodia are beltzagoak joaz.

“Gaurtik aurrera, heriotzaren mintzoa den musika hau besterik ez duzu entzungo, gainerako hots eta hitz guztiak herioren arropa ilunetan barrena galduko dira, beraietan zenduz” jakinarazi zidan.

Beraz, ikusten dunanez, hire sehiek egoki burutu dinante euren eginbeharra eta iluntasuna ene bizipozaren marmol beltzezko katabut bilakatu dun eta isiltasunaren heia-goren arantzek nire alaitasuna odolusten ditin. Dagoeneko nire bizitza heriotza dun eta hik, Heriok, hiltzen banaun bakarrik eman diezadakeen bizia.

Mesedez, ahalbait arinen, isil-isilik eta oharkabean, bilnazan hire soineko beltzen artean eta barnera nazan hire erresuma baketsuan, hezurak hauts bihurtuz, zintzurra es-tutzen didan denboraren betiereko joanaren korapiloa askatuz, nire oinaze eta oinatsak erailez.

Nire eskaria beteko dunalakoan, besterik gabe,

Egun arrunt bat gehiago

Iratxe Esnaola Aldanondo
Santo Tomas Lizeoa
Donostia

Egun arrunt bat gehiago. Argi askorekin hasten da eguna. Argi askorekin edota gutxirekin. Berdin dio. Nik, beti itxura penagarria hartu izan diet aireportu guztiei. Jendeak, besteen destino ezberdinak dituela pentsatzen du eta beren maletekin marmolezko zoruan hiruzpalau baldosa lapurtzen dituzte bekaizti. Ondoren, burua altxatzen dute eta kexuzko aurpegiak kalkamoniatzten dituzte bertako langileen begietan. Egunero zeharbideak beren arnasez kutsatzen dituzten pertsona ezberdin berdinak gorroto ditut. Ez dakit betidanik gorroto izan ditudan, edota bera joan zenetik, soilik, baina nire akorduaren apal zikinenean bermatuta iraungo dutela badakit, eta hori da, agian, gehien atsekabetzen nauena. Hain zuzen ere, gorrotatzen ditudan arren beraien presentzia irentsi behar hori. Zer nahi duzu ?... Mila pezeta dira... Zuri, etortzeagatik. Gainera, egun osoan paisaia mortu honi begiratzera kondenaturik nago. Eta bai, mortua diot, zeren nahiz eta jendearen joan-etorria iraunkorra izan, batek humanitatearen hutsa eta transparentzia irakurtzen ikasten du, horrela mugimendua dagoen tokian ezereza atzemanetz.

Bai. Hogei urte luze daramatzat aireportuko dendaxka honetan lanean, eta aitortu behar dut gainera, lehenengo

urtean izan ezik, osterantzean bizitza xurgatzeko makina bihurtu zaidala toki hau. Bezero berri bakoitzak gaztetasun tanta bat tirokatzen didala dirudi, eta eskerrak nire irribarre behartua, benetan den garrasi hiltzailea, sumatzen ez dutela! Ez... ez dugu Poloniako hiriburuko egunkari-rik-. Zer? Hiztegi poloniarra? Ez, ez... Eta nola ez! Eguneroko lanordu bakoitzak burezurrean emandako aizkorakadaren itxura hartzen du nire irudimenean. Baina, hala ere, gaitzerdi. Azken finean, gizateriari gelditzen zaion gauza baliotsuena da irudimena.

Ai! Aspaldiko garaiak ditut gogoan. Orain dela heme-retzi urte ezagutu nuen hemen bertan. Orduan, honek beste kolore bat zuen, beste usain bat. Agian gaztetasunaren begiak izango ziren. Jada ez naiz gogoratzen. Baina hartaz gogoratzen naiz, bai. Beso luzeak eta gorputz are luzeagoa zuen eta gorputzaren zurtasunak begiak elurrez betetzen zizkidan, hala bi elur mendi islatuz. Denboraren eta hegazkinen joan-etorriak, aldiz, urtu egin didate apurka elurra, eta horrela elurra bi ur putzu bihurtu zait, besterik ez. Bata begietan eta bestea ariman.

Ondoren, nire denboraren zati handiena hegazkinei begira igarotzen nuen eta herrialde urrun, hotz eta euritsuekin egiten nuen amets. Beste bizitza bat. Beste hiri bat. Beste amets bat. Baina, gerora ohartu nintzen, ametsak izarrak besterik ez direla, eta izarrak ezin dira ukitu, ez laztandu. Ezta musukatu ere. Izarrak aspergarri bihurtzen joan zaizkit luzarora eta ametsak ere, era berean, ilargiaren atzean ezkutatu zaizkit. Eta, azkenik, gerora, beste lekuetako jendea hemengoa bezain hotz, huts, aurkituko nuela ulertu nuen. Beti pentsatu izan dut nire maitearen desagertzeak, bizitza honen etsai bihurtu nauela gutxika, eta ez naiz horretaz damutzen. Badakit horrela dela. Gaur

egun, oraindik, denda ixteko orduan, aireportuari azken begirada jaurtitzen diot, bera aurkitzeko itxaropenez, eta horrela daramatzat hemeretzi urte. Bai... Marrubizkoek 250 eta besteek 300 pezeta. Zeintzuk ? Ondo... Adio.

Bai. Hemeretzi urte luze. Agian, nire fedearen gakoa esan zidatena ez sinestean datza. Istripu bat izan zela, ezer egiterik ez zegoela... Jainkoa! Hamar mila argipen gano-ragabe irentsi behar izan nituen, baina nik ez nien inoiz sinetsi. Ordurako banekien gizakien dohain nagusienetakoak gezurrak ondo esaten jakitea dela, eta hargatik isolatu nintzen nire zirkulu zarratura, gizakiengandik urrun. Egun, ulertu dut inork ez ninduela engainatu eta erabaki absurdua izan zela guztiz. Baina, era berean ulertu dut, urruti mantentzeak onura ekarri didala; nahiago ditudala auzokidetzat kontzientzia, oroitzapenak eta pentsamenduak, kirastutako hitzak baino. Gainera, irudimena eta itxaropena nahastuz garun lanak sortzen ditut hura oroitzeko, baina haxe hutsean gelditzen zait azkenaldian, gaztetasunaren ekaitza ere badatorrelako.

Egia da. Zahartzaroak konkistatu nauela dio ispiluak eta ez zaio arrazoirik falta, ez. Eta etsipena ere gerturaten ari zaidala sumatzen dut batzuetan. Denda inguruan disimuluan ibiltzen da egunkariren bat irakurtzen, edota paseatzen, baina nik badakit edozein egunetan eraso nazakeela... Horregatik, gauero antsia handiagoz bilatzen dut nire maitea aireportuan, hain zuzen ere, irudimena eta itxaropena nahastuz. Izan ere... dena horren ustekabea gertatu zen! Horren azkar gerta eta horren luze iraun... Bai. Azkenekoa. Ixtear nago... Tori... Agur.

Leihatila ixtea nire bizitzako atal bat ixtea bezalakoa da, eta atsegingarria egiten zait pentsatzea, nola burnizko

hesi batek, nire buruko harresiak ere giltza ditzakeen. Baina, gainera, nire izaera ez da lanerako jantzitako uniforme, soilik. Nire izaera munduari aurre egiteko mozo-rroa da, eta atsegin dut mozorroturik ibiltzea: besteen-gandik bereizten nau. Munduak nire inguruan biratzen duela askotan otu zait, zeren dirudienez ni naiz humanitatearen norantza dakusan bakarra. Badakit berekoi eta sasi-jakintsu bat besterik ez naizela, jendeak amorruz begiratzen didala, eta bere buruaz errukitzen den eta biktimaren soinekoa janzen duen inozotzat hartzen nauela. Hala izango da agian. Aski ziur hala izango da. Eta zer? Nahiago dut gorputz zuriaren izarazko oroitzapenetan sakondu, ganduzko begiraden artean nahastea baino, eta beraz, niri dagokidanez mundua nire inguruan biraka dabil. Egia esan, gizaki bakoitzaren bizitza bere ingurura bakarrik mugatzen da. Hala ere, gainontzeko gehienak, bizitzaren bidegurutzeetan esertzen dira, eta bertan beraien etxeak eraikitzen dituzte. Beste gutxi batzuek beste bide batzuetatik jarraitzen dute, baina nire bidean ez dut inor topatzen, eta inor topatuko banu ere, nire harrotasunak amildu egingo luke. Horrela, urrutira eta gertura begiratzen dut eta ez dakusat inor. Ba al da inor? Eta ez du inork erantzuten. Ni eta besteen arteko amildegiak sako-negiak izango dira...

Hura joan zenetik, gaueko ordu hauetan biziki berotzen naiz haren irudia gogoan hartuta, eta hankartea sutzen zait begiak itxi orduko, haren beso luze eta zuriek besarkatzen nautela imajinatuz. Hankartea sutzen zait gauero, bai, eta orduantxe aireportuko argi guztiak estaltzen direnean, orgasmo argiena sentitzen dut odolean barrena. Orgasmo zuriena.

Ondoren, argi gutxirekin gelditzen naiz.

Argi guztiak estaltzen dira aireportuan eta azken begiratua eskaini behar izaten diot iraganari eta, era berean, hegazkinen pistako zementuzko lurrari. Zementuzko lur horrek ezagutzen bainau ongien. Nire negarrak usaintzen ditu, ulertu egiten ditu eta euriak zapaltzen duenean, elkartasunezko begirada bat luzatzen dit. Zalantzarik gabe urrea balio duen begiratua. Nik, hemeretzi urteko nekearen zimurrak erakusten dizkiodanean, berak morrontzaren samina eta zapalkuntzaren urradurak ulertarazten dizkit. Eta, nik, gorputz zuri hura itzultzea nahi dudala esaten diot eta hark tonu triste batez baietz erantzuten dit; berak ere itzul dadin nahi duela. Ados gaude. Hura izan zen lehenengoa eta bakarra. Gorputz haren esperoan mila urtez egongo nintzateke eta behar adina kilometrotan zehar korapilatuko nintzateke.

Baina iluntasunak begiak jan dizkit eta, azkenik, bizkarra eman diot. Orduan, nire baitan, objektuek pentsatzen duguna baino gehiago sentitzen dutela gogoratzen dut. Ai zementua! Ez gaituzte berehalakoan urratuko! Garai bateko hegazkin zuri eta besa luzea oroitzen jarraituko dugu!

Aireportuko lehen hegazkina izan zen, aireportuko lehen dama, eta maiteena, ustezko istripua izan zuen arte. Denbora iragan da eta inor ere ez da hartaz, nire maiteaz, oroitzen.

Zementua eta ni, soilik. Bata bestea bezain gogor.

Biharamuna datorkit burura eta, jendearen aurpegi lohietsuak gogoratzean, bizitzaren nora eza ezagutzen dudala sinesten dut. Ez diet benetako sentipenei alde egiten utzi nahi, eta ez diet ez gizakien mihi pozoitsuei miazka nazaten utziko, nire azala mikatzegia baita beraientzat. Arrazoia eta egia bezain mikatza.

Bihar, berriro ere, aireportura etorri eta jendearen ilusio eta negarrak antzemango ditut, hegazkin zuriari omen egingo diot beste behin, eta zeruari erregutuko diot itzul dadin. Itzul dadin.

Bihar, berriro ere, aireportura etorri eta jendearen ilusio eta negarrak antzemango ditut, eta ziur beilen hoztasunean amestuko ditudala. Ziur. Argi askorekin edota gutxirekin, egun arrunt bat gehiago izango da, gizakiengandik urrun.

Balbea errekak bere bidea darrai

Iñaki Arruti Arruti
Santo Tomas Lizeoa
Donostia



Etxearen aurrealdeko leiho biribil honetan egun osoan zain egon ostean, azkenean Zurbeltz mendi malkartsuko bidetik Joxe badatorrela ohartu naiz.

Bihotzaren taupadak bat-batean azkartzen hasi zaizkit. Izan ere, hau baita atzoko beroaldia igaro ostean, behin eta berriz pentsatu dudan egitasmoa aurrera eramateko momentua.

Burua leihotik apur bat baztertu eta ezkerreko begia bakarrik utzi dut agerian, Joxek ikusiko ote nauen belduz. Arnasa ere gero eta azkarrago hartzen dut eta dagoneko leihoko beira nire hats beroaz lurrindurik dago. Eskuaz zati bat garbitu dut eta Joxe Zumar baserriko kaktus handiaren ondotik iragaten ari dela ohartu naiz. Ohi bezala, ahoan zigarroa darama, baina berau erretzeko moduak harritzen nau. Izan ere, bere lanari dagokion zerbait garrantzitsua burutu behar duenean, urduritasunak eraginda behin eta berriz zurrupatzen baitu zigarroa, ito beharrean. Momentu honetan aldiz, patxada osoz ari da erretzen.

Ez ote dator nire bila? Ez ote du Arantxak atzo ikusita-koaz ohartarazi?

Supituki, egun osoan beste hainbatetan egin duten bezala, nire barnean entzun ditudan Inaxiren oihuek burutazio guztiak eten dizkirate.

Lurdes, zer egiten dun! Hi erotuta hago! Baina kontuz, kontuz!

Jarraian kurrixka bat aditu dut, gero eta urrutiago, gero eta baxuago, erabat isildu den arte.

Joxeren itxurazko lasaitasunak egitasmoa burutzeko asmoa pitin bat apaldu didan arren, nire baitako Inaxiren garrasiek berehala ipini naute lasterka, beheko oilategian dauden Joxemai eta Anttonek ere laster etxean behar baitute eta ez baitut beraiekin topatzeko gogorik.

Albait arinen baserriaren atzealdeko atetik irten naiz. Udareondoa saihestu dut eta Joxek ikusten ez nauela ziurtatu ostean, baratzak bukatu bezain laster hasten den pagadian barrena sartu naiz arineketan. Arnasestuka iritsi naitenez, lurrean eseri naiz zuhaitz baten enborraren kontra.

Gorantz begiratu eta pagoak abuztuko eguraldi eguzkitsua dela eta, guztiz hostotsu daudela konturatu naiz, ekiaren printzek ere doi-doi lortzen baitute sartzea. Momentu batean, zuhaitzen kukulak kanpoko mundutik gerizatzeko ezkutuak direla pentsatu dut, erasoetatik babesten nauen orbelezko burbuila baten barnean sentitu naiz.

Baina, zuhaitzen orriek zaintzen nauten esetsiez landa, neronen barrukoak ere pairatu behar ditut, horiengandik ezin baitut inolako ezkuturekin babestu. Izan ere, atzo arratsean beroaldian egindakoak sortzen didan bihotz zimikoak ez baitit bizitzen uzten.

Berriz ere, Inaxiren oihuek nire baitan oihartzun egin dute, erotuta nagoela esanez eta bere amorruzko eta sor-

presazko begirada gogoratu zait, berarekin nire lepoa bihurritu nahian, Inaxi zena bera aurrean banu bezala.

Lekuz aldatuta Inaxiren oroimenak alde egingo duela pentsatuz, jauzi batean zutitu eta basoan barrena oinez jarraitu dut, Balbea errekatxorako bidera iritsi naizen arte. Orduan ekin diot atzo arratsean izan zen euri jasa handia dela eta lokatzez beteriko aldapa igotzeari.

Aranatarren baserria atzean utzi orduko, apaizaren belardiraino iritsi naiz. Larre ederra da hau zalantzarik gabe, hala zioen gure aitak behintzat. Horregatik, orain dela zenbait urte apaizak bertan haurrentzako jolastoki bat jarri behar zuela esan zuenean, herriko nekazariak, gure etxeak tartean, erotzat jo zuten, garai hartako haurrak pozez zorazten jarri ginen. Oraindik ere, bertan segitzen du sendo zabuak, beste joko guztiak, gure umetasunarekin batera, denborak berarekin eramane dituen arren.

Bertara hurbildu naiz eta dagoeneko esertzeko ohola nahiko zahartua egonagatik ezarri egin naiz. Jainkoak bakarrik daki zenbat denbora igaro ote genuen Inaxi, Arantxa Olazaharkoa eta hirurok han jolasten. Kasik arratsaldero joan ohi ginen apaizak prestatu zigun larrera eta hirurok ere, zabuan ibili nahi izaten genuenez, sarri eztabaidan aritzen ginen, Inaxik, burugogorra zenez, kosta ahala kosta zabuan eseri beharra izaten zuen. Arantxa ez zen berari aurre egitera ausartzen, baina ni, parada nuen guztietan jarkitzen nintzaion, maiz elkar jotzera ere iristen ginelarik. Hala eta guztiz, Inaxik beti bertan kulunkatzen amaitzen zuen, irribarre zabala ahoan zuela. Ondoren, baserrietara jaisten ginenean, Arantxak bere amari Lurdes Zumarrekkoa eta Inaxi Pagopekoa borrokan aritu ginela esaten zion, izugarritzko berria kontatuko balu legez.

Jolastokira joaten ez ginenean, aldiz, nire anaia Joxemielen eta Inaxiren neba Anttonen atzetik ibiltzen ginen, haiek egiten zituzten bihurrikeria guztiak arreta handiz jarraitzen. Askotan, sugandilak eta bestelako animaliatxoak harrapatu eta birraitonak bidaia batetik ekarririk gure etxe ondoan dagoen kaktus handiaren arantzetara botatzen zituzten, aldegitoko antsiaz gero eta elorri gehiago sartzen zitzaizkiela ikusiz olgatzten zirelarik.

Udaberri amaiera aldera berriz, Joxemaik ikusi gabe, beronen errieten beldur baikinen guztiok, Pagopeko atzealdean dagoen udareondora igo eta atera berriak ziren udaretxo gogorrak jasotzen zituzten, ondoren Balbea erre kara korrika abiatzeko, berandu iritsiz gero desagertuko balitz bezala.

Bertara heldutakoan, aitona Luixen ipuinen arabera jentilek lurralde urrunetatik ekarri zuten harkaitz haren atzean ezkutatzen ginen guztiok. Handik errekatxo osoa ikusten genuen, Zurbeltzeko leizetxotik jariatzen zenetik, lauzpabost metro aurrerago izugarrizko ur soinua sortuz erroitzean behera eroriz ezkutatzen zen arte.

Erreka laburra izan arren, urteetan zehar bere inguruko baserrietakooi erabilgarria suertatu zitzaigunik ezin uka, bertatik lortu izan baitugu edateko ur freskoa. Gogoan dut oraindik ere, familia osoa baratzen lanean aritzen ginenean, amak Balbeara bidaltzen ninduela ur bila. Pitxerra hartu eta bideari ekiten nionean, zain egoten nintzen amaren ohiko garrasia noiz entzungo: “Kontuz ibili jainkoaren izenean! Amildegiaren ertzetik urrundu hadi!”. Maiz aita ere entzuten nuen “Argi ibili! Hura ez dun jolasten ibiltzeko tokia!” esanez.

Baina edateko ezezik, emakumeontzat latsarrietan arropak garbitzeko ere baliagarria izan zaigu errekatxoa.

Ia eguneko ordu guztietan emakumeren bat egon ohi izan da amildegiaren ertzean arropa ikuzten, hura baita lekurik egokiena, bertan hartzen duelako urak sakonera handiena.

Hain zuzen ere, jentilen harkaitzaren gibeletik emakume haiei botatzen zizkieten gure anaiek Pagopeko udareondoko udaretxoak, jarraian lasterka hasten ginelarik, “Demonio gaiztoak! Joxe udaltzainari zuen bila joateko esango diogu!” entzuten genuen bitartean. Joxemiel eta Antton mutil gazte mardulak izanik, azkar egiten zuten hanka, baina Inaxi, Arantxa eta ni haiek atzetik harrapatu ezinik ibiltzen ginen.

Hori dela eta, sarri samar haserretu egiten zitzaizkigun bi mutilak, gu haiekin ginela ezin omen zituzten beraiek gura bezain ongi burutu bihurrikeriak eta. Halako kasuetan bakarrik ikusten nuen anaia nirekin muturtuta. Izan ere, elkar asko maite baikenuen, ez genuen sekula bata bestearentzako errespetua galtzen eta beti prest geunden elkarri laguntzeko. Bion arteko erlazio eder eta berezi haren zio nagusia, hiru urte nituenean gure aita hil izana zen, orduz gero, beste anaiarik ez nuenez, bera izan baitzen etxeko gizon bakarra, eta beraz ia aita bat niretzat.

Anttonek, Inaxiren anaiak, berriz, behin baino gehiagotan iraindu ohi gintuen eta askotan arrazoi garbirik gabe gainera.

“Alde egin ezan hemendik, hire txerri aurpegi horrekin, utz nazan bakean, ospa!”

Momentu haietan norbaitek sei bat urte geroago, udako egun sargori hartan aitortu zidana aitortu behar zidala esango balu, ez geniekeen ez berak eta ez neronek sinestuko.

Abuztuko egun sargori hartan, amak amildegia ren inguruko ohiko aholkua eman ostean, pitxarra hartu eta ur bila bidali ninduen. Harantz zuzentzen hasi orduko, pagaditik Antton bidera irten zela ikusi nuen, nigana etorri zelarik. Besoak luzatuz, pitxarra hartzeko imintzioa egiten zuen bitartean, ea bere laguntza estimatuko ote nuen itaundu zidan. Nik buruaz baiezkoa egin nion, bere jarrera aldaketa hura ulertu ezinean. Dagoeneko amildegia begibistan genuenean eta Balbea erreka bertan behera erortzean sortzen zuen hotsa entzuten genuenean, Anttonek ordurarteko isilunea hautsi zuen.

“Lurdes, gauza bat aitortu behar dizut” hasi zen, etengabe lurrera begiratzen zuen bitartean, “orain arte ez naiz oso ondo portatu zurekin, baina maite zaitut”.

Erabat mututurik geratu nintzen hura entzutean. Berak hitz egiten hasi zenetik lehen aldiz aurpegira begiratu zidan, begizeharka bazen ere, nik zerbait esateko esperoan balego bezala. Baina, ez nintzen ahoa irekitzera ausartu, ezta bera ere. Pitxerra urez bete ondoren, baserrietara jaitsi ginen elkarri begietara so ere egin gabe eta amaieran agur lotsati bat eginez.

Baina hasiera batean gure herabetasuna oztopoa izanagatik, denbora igaro ahala eragozpenak gainditu eta bion artean erlazio sendo bat ezarri genuen, bizpahiru urte geroago, maiatzeko egun batean, ezkondu ginelarik.

Data gogoangarria da niretzat, zalantzarik gabe, baina ez ekarri zidan zoriontasunagatik, orduz gero gertaturiko ezbehar ugariengatik baizik.

Pare bat hilabeteetara, izurri batek gogor jo zuen gure herria eta zoritxarrez beste hainbaten artean, bai Anttonen ama eta bai nirea hil egin ziren. Ondorioz, Joxemiel baka-

rrik geratu zen gure baserrian, Zumarren, ez baitzuen oraindik emazterik bilatu.

Hala ere, nik Pagopen, Anttonen baserrian, jarraitu nuen bizitzen, senarra, bere aita Joxemai eta arreba Inaxirekin batera, beste bi anaia gazteenak Amerikara joanak baitziren bizitza aurrera ateratzera.

Baina, etxean lau pertsona soilik izanagatik, elkar konpontzea ez zen ez erraza suertatzen, Antton eta bion arteko harremana gero eta hotzagoa zen, nire antzutasuna ere traba zelarik.

Paradoxikoki, erlazorik garratzena haurtzaroan adiskide mina izan nuen Inaxirekin nuen. Ezkondu eta berehala, Inaxiren ama hiltzean, oinordekoaren emaztea izanik, etxekoandre bilakatu nintzen. Inaxik ez zuen inolaz ere hau ontzat eman eta Pagopeko lekua kendu niola argudiatuz, nirekin erabat haserretu zen.

“Neronen etxeko lekua kendu didan bai, baina hau ez dun horrela geratuko, ez.” Mehatxatzen ninduen behin eta berriz.

Zemai horiek ez nituen nik aintzakotzat hartzen, hasierako haserrealdia fruitu zirela pentsatzen nuen, egoerara ohitu orduko berriz ere adiskidetuko ginela.

Hain zuzen ere, bat-batean bere mehatxuak isildu ziren eta horrek guztia amaitu zela pentsatzera eramán ninduen. Ez zen horrela izan ordea, Joxemielek Inaxirekin ezkondu behar zuela esan baitzidan, handik egun batzuetara. Ni saiatu nintzen Inaxik asmo onik ez zuela esanez ezkontza ezeztatzeko anaia limurtzen, baina alferrik. Nire zoritxarrerako, Joxemiel eta mendeku bila zebilen Inaxiren arteko bategitea burutu zen.

Modu honetan, Inaxi eta ni bata bestearen jatorrizko baserrietan geunden etxekoandre, bera Zumarren eta ni Pagopen.

Egoera hartan, denboraldi batean ekaitza baretu zen, neguko egun hotz batean berri lazgarri hura senarrak neureganatu zidan arte. Nire anaia maitea bihotzeko batek jota hil omen zen. Berri hura kolpe latza izan zen niretzat eta mendeku desio gogorrak piztu zituen nigan. Izan ere, beroaldi hartan, esanak esan, ziur bainengoen nire anaia ez zuela bihotzeko batek hil, Inaxiren lana izan zela pentsatzen nuen, Zumar baserria bereganatzeko xedeaz.

“Aaaaaaaa!” Inaxiren oihuak oldarka sartu dira nire gogoan, erreka ur soinu batekin nahasturik.

Ur hots horrek zabutik salto batean zutituarazi nau eta aldatsean gora jarraitu dut Balbea errekastoraino iritsi bitartean. Jada bertan egonik, atzo euria ari zuen bitartean hara ailegatu eta amildegi ertzean arropa garbitzen ari zen Inaxik ni ikustean ipini zuen izu aurpegia gogoratu zait. Hark bazekien nire anaiaren heriotzari buruz nuen iritzia eta gerta zitekeena aurreikusiz zutik jarri zen, lasterka batean hurbiltzen nintzaiola ikustean “Lurdes, zer egiten dun! Hi erotuta hago!” oihu egin zuen ahots dardaratiz. “Baina, kontuz, kontuz!” entzun zen bailara osoan eta jarraian denboratxo batean kurrikaka garratz bat eta ondoren Balbea erreka hots lasaia.

Ondoren atzera begiratu nuen eta Arantxaren aurpegi zurbila ikusi nuen jentilen harkaitzaren atzetik begira. Nire begiradak berearekin topo egitean korrikari eman zion, nire kontzientzia lasaitasunari eskutik helduta.

Erroitzaren ertzera hurbildu naiz, egun osoan behin eta berriz pentsatutakoa burutzeko asmoz. Kartzelatik libratu

nahi dut, Joxek bertan sartzen ez banau, damutasunak nire bihotza bizitza guztirako preso hartu baitu, gaur goizean medikuak nire anaia maitea benetan bihotzeko baten erruz hil dela baieztatu baitit.

Bailara osoan atzokoaren moduko beste garrasi bat entzun da eta ondoren berriz Balbea erreka-stoaren ur-jarioaren soinu barea, betierekoa.

Aita, zer gertatzen zaio munduari?

Maite Arozena Velez
Garaialde lizeoa
Urretxu

OTSAILAK 14 (14:45)

Heldu da eguna. Hain denbora luzez itxaron ondoren, heldu da eguna. Gaur nire bizitza aldatuko da. Aljerian bizi izandako 9 urteak alde batera utzi eta oraindik falta zaizkidan urte guztiak Mediterraneoaren bestaldean igarotzera bideratuko nauen bidaiari abiatuko naiz gaur. Hau da urduritasuna! Egun hau iristeko irrikitan nengoen eta eskurazina zirudiena gertatu da. Badirudi aitak urte hauetan guztietan dirua aurrezteko egindako ahaleginek fruitua eman dutela eta, azkenean, Espainiako lurak zapalduko ditugu. Nolakoa ote da bertako paisaia? Jendea jatorra ote da? Ze ohiturak ote dituzte? Nolakoak ote dira bertako neskatxak? Ederrak badira, haietariko batekin ezkonduko naiz eta han geratuko naiz bizitzen. Imajinatzen dut, etxe handi batean emaztea, ni eta, nola ez, bi alaba, zein baino zein ederragoa! Azkenean, honek amets bat izateari utziko dio eta zoriontsu biziko naiz betiko.

Bertara iritsitakoan egingen dudan guztia antolatuta dut jadanik. Hasteko, aitarekin joango naiz lan eta etxe polit baten bila. Gero diru pixka bat lortzen goazen heinean, ka-

litatezko jakiak erosiko ditugu eta, era berean, amari eta Shaika txikiari diruaren zati bat bidaliko diegu. Jarraian, inguruko herriak ezagutuko ditugu eta opor garaian Espainia osoa ikustera joango gara aita eta biok. Eta, bukatzeko, ama eta Shaika eramango ditugu Espainiara eta han biziko gara denok poz-pozik. Gustatzen al zaizu plana, egunkari? Azken batean, zu ere bertan sartzen zara.

Eguerdiko 15:00ak dira jadanik eta aitak deitu nau bidaiarako poltsa prestatzen laguntzeko. Hau da bidaiaren aurretik idazten dudan azken momentua, bi ordu barru bizitza hobera eramango nauen barkua hartu behar baitut.

Gero arte.

Rachid

OTSAILAK 14 (19:00)

Iluntzen ari da. Eskerrak linterna bat ekartzeaz gogoratu naizen, bestela ez bainuen ene poztasuna zuri adierazteko aukerarik izango. Txalupan eserita nago aitaren eta emakume gizen baten artean. Ekin diogu bidaiari eta zortzi bat ordu barru Espainian lehorreratuko gara. Aljeria atzean utzi dugu.

Itsasoratu baino lehen jende asko elkartu gara kaian eta hiru txalupa txikitik banatu gaituzte. Ni aitarekin batera sartu naiz txalupa urdinean, han zeuden gizon batzuei aitak diruz beteriko kartazal bat eman ondoren. Hasiera batean hiru txalupa txiki horietan jende hori guztia ez zela sartzen pentsatu dut, baina oker nengoen. Hala ere, pertsona gehiegi goazela iruditzen zait, ez dakit txalupa honek zama guztia jasango duen. Oso estu goaz, estuegi.

Jendearen aurpegietan larritasuna eta nekea ikusten dira. Ez dut ulertzen. Nolatan egon daitezke hain kezkatu-rik? Ez al goaz, ba, gure ametsetako bizitzarantz? Aitari galdetu behar diot zergatik duen jendeak aurpegi luze hori, ea berak esplikatzen didan, nik ez baitut ezer ulertzen. Aitak esan dit ez dela ezer gertatzen, ez kezkatzeko, dena ondo irtengo dela eta ordu gutxi barru Espainian egongo garela. Jendearen aurpegietan ikusten dudana familia atzean utzi izanaren tristura dela esan dit. Normala iruditzen zait. Niri ere zaila egin zait amari eta Shaikari agur esatea, baina laster elkar ikusiko dugulakoan nago.

Beno, geroxeago jarraituko dut. Gero arte.

Rachid

OTSAILAK 14 (21:00)

Gaua iritsi da itsaso mugagabe honetara. Dena oso ilun dago eta ilargiaren argi-izpiek irudikatzen dute gure bidea. Oso gau polita da, iluntasunean murgildurik gaude eta izarrak eta ura besterik ez dugu ikusten. Ilargia ez da betea, baina, hala ere, harro-harro agertzen da gure begien aurrean, gure zaindari bailitzan. Izugarrizko lasaitasuna sentitzen da. Apenas entzuten diren jendearen elkarriketak. Gehienak etxetik ekarritako janari apurra jaten ari dira eta beste batzuk jadanik lo daude. Bidaia aspergarria da, gero! Eskerrak nik badudan zertan pasatu denbora, zuregatik ez balitz! Oso luzea egiten ari zait eta oraindik asko falta omen da. Baina, ez zait asko axola. Modu honetan denbora luzeagoz gozatu ahal izango dut ilargiaz. Itsas azalean egiten duen zilarrezko isla izugarri polita da.

Gose eta egarri naiz. Eskerrak aitagia eta fruitu batzuk ekarri dituen. Zerbait jango dut eta izarrei begira egon ondoren, loak hartuko nau.

Beno, gero arte.

Rachid

OTSAILAK 15 (01:00)

Ai, ene! Ez duzu sinetsiko zer gertatu den! Lotan nengoelarik bat-batean mugimendu basatiek eta oiheri bortitzek esnatu egin naute. Begiak ireki ditut eta ba al dakizu zerekin egin dudan topo? Jende guztia garrasika zegoen, zoro moduan, beldurturik. Ni aitaren besoetan nengoen eta estu-estu heltzen zidan. Txalupa kulunka zebilen eta ura sartzen ari zen. Dirudienez, itsasoa erabat haserretu da momentu batez eta, gorrotoz beterik, eraso egin digu. Oso momentu arraroa izan da, ez baitut ezer ikusi, baina jendearen etengabeko histeria garrasiak sartu dira ene belarrietatik eta mugimendu indartsu horiek beldurra hezurretaraino sartu didate. Bat-batean, “Kontuz! Ahmed, eseri! Arriskuan zaude! Kontuz!” entzun dut eta begirada estali dit aitagia. Zer gertatu da? Aitagia ez dit kontatu nahi zergatik dagoen jende guztia triste eta erabat beldurturik. Itsasoa lasaitu da honezkero, eskerrak.

Ez dakit linterna honek luze iraungo duen, baina badaezpada ere, itzali egingo dut eta beste batean jarraituko dut. Sentitzen dut, baina ez naiz gai gehiago idazteko, erabat nekaturik eta nahasturik nago eta aitagia lo egiteko esan dit.

Gero arte.

Rachid

OTSAILAK15 (03:10)

Ez dakit zer gertatzen den, baina zerbait gaizki doa. Gauzak ez dira uste bezain ondo atera. Ordu erdi dela esnatu egin naiz eta txaluparen puntan gizon talde bat ikusi dut berriketan. Oso baju ari ziren hitz egiten, baina nik zer esaten zuten entzun dut. Beraien aurpegietan seriotasuna eta ahotsean larritasuna nabaritzen zen, diskutitzen ari ziren. Ez garela Espainiara iritsiko esan dute, harrapatuko gaituztelako. Nik ez dakit horrekin zer esan nahi izan duten, agian txikiegia naiz hori ulertzeko, baina badakit ez dela ezer ona. Dirudienez, kostaldea oso jagotuta dago eta zaila da bertaraino iristea. Nola izango da, ba, zaila, dena ilun-ilun dago-eta? Inork ez gaitu ikusiko, oraindik asko falta baita eguzkia irteten hasteko. Ez dakit ze arazo dagoen orduan!

Gogoratzen nola esan dizudan lehen, Ahmed izeneko-ari garrasika ibili direla? Ba, gerta zekiokeen okerrena gertatu zaio. Gizon horiei entzun diedanez, itsasoaren egoera txarraren eta barkuan pertsona gehiegi egotearen ondorioz, txalupa kulunka ibili da gogor eta Ahmed gajoa uretara erori da, itsasoan desagertu delarik, honek irentsi izan balu bezala. Ezin dut sinetsi, oraindik ahoa bete hortz nago. Ene begien aurrean pertsona bat hil da eta nik ezin izan dut hau ekiditeko ezertxo ere egin. Hala ere, zer egin nezakeen ba? Itsasoaren indarraren aurka ez dago joaterik. Hau da hondamendia! Bidaia hau okertzen ari da eta ene ilusioak baztertzen ari dira, izuari lekua utziz.

Bestalde, elkarrizketa horretan jasaten ari garen kondizio txarrak aipatu dituzte. Pertsona gehiegi omen goaz, nik hasieran esan bezala, eta txalupa oso arina da. Gainera, ez daukagu mugitzeko lekurik eta hain denbora luzean

postura berean egotea oso txarra da guztiontzat. Hau da entzun dudan guztia eta nahiago nuke entzun ez izana, gehiago ikaratu bainaiz. Zer gertatuko zaigu orain? Noiz iritsiko gara? Oso ilun dagoenez, ezin dugu lurra ikusi, baina gertu gabiltza. Harrapatu egingo al gaituzte? Itsasoa berriro haserretuko al da? Espero dut ezetz. Momentu hauetan konturatzen zara ze garrantzitsua den maite duzun Jainko bat izatea, bai baitakizu nora joan laguntza eske. Espero dut laguntza eskaerari erantzutea, bera baita nire azken esperantza.

Oso urduri nago eta aitarekin hitz egin behar dut honetaz guztiaz, jarraituko dut iristen garenean. Eta lasai egon, entzundako guztiaren gainetik, hurrengoan lan bat dudala eta behar bezalako etxe batean nagoela idatziko dut, seguru.

Orain arte.

Rachid

OTSAILAK 15 (06:00)

Zer gertatu da? Hau da zoritxarra! Amesgaizto batean nagoela dirudi, baina oraingo honetan ez naiz esnatuko. Dena oker atera da, azkenean nire beldurrak egia bihurtu dira. Espainian nago, ez etxe batean eta esperantzaz beterik, baizik eta komisaldegi batean. Zer gertatu den galde-tuko diozu zure buruari; lasai, dena kontatuko dizut.

Goizeko hiru eta erdiak inguru izango ziren urrun-urrunean lurra ikusten hasi ginenean. Bat-bateko alaitasuna sartu zitzaigun denoi gorputzean gure bidaiaren bukaera zorionsua ikusi genuenean begien aurrean. Momentu batez pentsatu nuen: “Zergatik beldurra eta estutasunak?

Bukaeran dena ondo atera da.” Ahmed bertan ez egoteak eman zidan pena eta otoi egin nuen bere arimarengatik. Aitak estu-estu besarkatu ninduen eta asko alaitu nintzen bere irribarre zabala ikusi nuenean. Gisa honetan geundela, bat-batean gizon batek isiltzeko esan zigun eta zerbait entzun nahi balu bezala hasi zen keinuka. Urrunetik zetorren zarata bat entzun genuen eta denak kezkatu egin ziren zer izan zitekeen pentsatuz. Geroz eta gertuago entzuten genuen zarata, momentu batean hizketan egonda ere, entzutera iritsi ginen arte. Aitari galdetu nion zer izan zitekeen eta berak zera esan zidan: “Ai seme, bukatu diragure ametsak. Harrapatu egin gaitu Espainiako poliziak eta ezin izango dugu Espainian lehorreratu. Sentitzen dut. Baina zu lasai egon ez baitzaigu ezer txarrik gertatuko.” Hau esan ondoren, mutu geratu nintzen, ez nekien zer esan. Mundua gainera erori balitzait bezala sentitzen nuen. Zer esan nahi ote zuen gure ametsak bukatu zirelako horrekin? Zergatik harrapatu gintuzten, ezer txarrik egiten ari al ginen ba? Milaka galdera etorri zitzaizkidan burura, baina hauek planteatzeko momenturik egokiena ez zela pentsatu nuen. Oraindik zirauen zarata gogaikarri hark. Bat-batean, argi indartsu bat piztu zen barkuaren eskuinean. Denok beldurtu egin ginen eta, era berean, ahal zuenak bere burua ezkututzen zuen jende artean, argi jasangaitza ekiditeko. Barku handi bat zen jadanik gainean genuena. Bertan bost bat pertsona zeuden guri begira eta horietariko bat mikrofono antzeko batetik hitz egiten hasi zen. Nik ez nion ezertxo ere ulertu, noski, baina aitak, gaztelaniaz dakienez, gero esplikatuz zidan esan zuena. Beren barkura igotzeko agindu omen ziguten, kostaldera eraman behar gintuztelako. Banaka-banaka igo ginen eta gela handi batean sartu gintuzten. Ni oso beldurturik nengoen momentu hartan, ez bainekien zer gertatzen zen,

izan ere, aitak ez zidan ezer esan nahi. Geroxeago barkua nola geratzen zen sentitu genuen. Bertatik jaitsarazi gintuzten eta non geunden ikusteko denborarik eman gabe, furgoneta handi batzuetan sartu gintuzten, beste norabait eraman nahian. Espainiara iritsiak ginen, baina hain nengoan despistatuta eta beldurtuta non ez bainuen horretan pentsatzerik izan. Furgonetak geratu egin ziren. Zerua argitzen ari zen ordurako nahiz eta eguzkia oraindik lo egon. Eraikuntza handi batean sartu ginen, non gizon pila bat zeuden, denak berdez jantzirik. Nik ez nuen aitaren eskua askatu. Gizon horiek beraien artean asko hitz egiten zuten, nik ulertzen ez nienez, begira geratzen nintzaien. Gizon “berde” bat guregana hurbildu eta gela handi-handi batean bukatzen zen pasilo batetik zehar joateko agindu zigun. Bertara iritsitakoan, manta batzuk eman zizkigun eta bertan gelditzeko keinuak egin zituen.

Ba, hementxe nago. Denbora luzea da hemen gaudela eta ez dirudi laister askatuko gaituztenik. “Askatuko” hitza erabili dut, atxiloturik gaudelako. Aitak esan dit gu etorri garen moduan bidaiatzea ez dagoela onartuta, legeen aurka doala eta horregatik gaudela komisaldegi batean. Eta zer egingo dute orain gurekin? Aitak esan dit bi aukera ditugula: Espainian geratu legearen kontra ez joateko behar diren paperak lortzeko edota berriro Aljeriara itzuli. Nik lehenengoa nahiago dut, dudarik gabe, baina oso zaila dela esan dit aitak. Ikusiko dugu zer gertatzen den. Nik, behintzat, laguntza eskatuko diot Jainkoari eta ez dut uste berak huts egingo didanik.

Jateko zerbait ekarri digute gizon “berdeek”, geroxeago jarraituko dut idazten.

Rachid

OTSAILAK 15 (12:00)

Lehenengo eguna Espainian. Komisaldegian gaude oraindik. Inork ez daki zer gertatzen den. Ez zait justua iruditzen gizon “berde” hauek egiten dutena. Nire ustez, zer gertatzen den esan beharko ligukete, gure etorkizuna dago jokoan. Hemen gaituzte gela batean sarturik, zer egin ez dakigularik. Jendea lo dago, ni, aldiz, oraintsu esnatu naiz. Denbora luzea daramagu hemen, ezer ona izateko. Urduriegi nago. Aitak lasaitzeko esaten dit, ez zaigula ezer txarrik gertatuko. Baina nik badakit aita gezurretan ari dela, aurpegian nabaritzen zaio. Ez dauka bestetan izaten duen segurtasun izpirik. Alferrik du ni lasaitzeko ahalginak egitea, oso ondo ezagutzen dut eta begietan duen tristurak ez nau engainatzen. Gure etorkizuna ilun dago, nire burua Aljerian ikusten dut berriro. Bere alde ona begiratzen saiatuko naiz. Ama eta Shaika ikusiko ditut berriro, irrikitan nago jadanik, asko maite baititut. Hala ere, pena ematen dit dirua faltan dugula itzultzeak. Amari huts egin diogu eta ez nuke bere negarra jasango.

Norbait datorrela dirudi. Utzi egin behar zaitut.

Rachid

OTSAILAK 15 (14:45)

Gaur bigarren aldia da barkuan ibiltzen naizena, baina oraingo honetan kontrako biderantz goaz eta barkua askoz ere handiagoa da. Espainiarekin batera ametsak utzi ditugu atzean eta gure lurralderantz goaz, Aljeriarantz. Espainiatik bidali gaituzte bertan bizi ahal izateko behar genituen dokumentuak ez genituelako. Hain zaila al zaie paper horiek guri eskuratzea? Dirudienez, errezago egiten zaie

etorkinak baztertzea eta aukerarik eman gabe beraien jatorrizko lurraldera bidaltzea. Ez al dakite bizitzeko oinarrizko baliabiderik egon ezean norabait joan behar dugula horiek eskuratzera? Ezin al dituzte beren ondasunak banatu? Soberan dutenarekin konformatzen gara, gero! Ezin dut sinistu egun batean zenbateraino alda daitekeen 9 urteko ume baten bizitza. Ilusio guztiak pikutara joan dira, inoiz ez ditut nire ametsak beteko. Pobrezia bizitzera kondenatuta nago betiko. Zein zentzu dauka bizitzak orduan? Momentu honetan nahiago nuke hilda egongo banintz. Goiko Jaunak ere huts egin dit, nola jarraituko dut berarengan sinesten? Ez dakit zer pentsatu ere, orain arte pilaturiko balore guztiak, gorrotoak eta amorruek zanpatu dituzte. Ezin naiz inorretaz fidatu, gizarte hau benetan gaixorik dago eta ez dirudi inoiz sendatuko denik.

Aita ere lur jota dago, aurpegian nabaritzen zaio, hau bere egoeraren isla baita. Nola esango dio amari joan ginen bezain txiro itzuli garela? Oso zaila izango da aitarentzat eta baita amarentzat ere. Shaika gajoa. Oraindik oso txikia da hori ulertzeko, baina ez zait batere gustatzen bizitza osoa miserian eta tristuran nola pasatzen duen ikustearen ideia. Harrigarria da zein maltzurra izatera iritsi daitekeen gizakia. Berekoiegia da eta, horrela, bere burua suntsitu besterik ez du egiten. Aita, zer gertatzen zaio munduari?

Beste bat arte.

Rachid

PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

Askatasunaren bila

Eneko Lekuona Artola
Santo Tomas Lizeoa
Donostia

Mendi artean galdutako Galesko herri xume batean etxe bat erosi dut duela gutxi. Zaharra da oso, eta berrikuntza ugari behar ditu. Hori gutxi balitz, bertatik gertue-neko denda kotxez hiru ordu laurdenera dago, eta bertakotzeko ez dago harriz eta zuloz beteriko bidexka bat besterik. Hori guztia jakinik, ziur zuen buruari galdetu diozuela zerk bultzatu ote nauen etxe bat erostera horrelako leku malapartatuan, ezta? Maite dut bailara hau. Ingu-rune honetan hain ugariak diren orein beldurtiak eta erdi elurturiko mendi tontor zoragarriek liluraturik naukate. Horretaz gainera, hiriko zarata eta ohikeriatik ihes egin beharra neukan etxea erosteko erabakia hartu nuen une hartan; denboraldi batez “zibilizazioa” delakotik urrundu beharra.

Halako egun batean, etxeko lorategiko belar txarrak kentzen ari nintzela, erdi lurperaturik zegoen kaxa batekin egin nuen topo. Kaxa ez zen oso erakargarria, zaharkituta eta erdi lizundurik zegoen, eta herdoilduriko iltzez josita zeukan tapa. Ireki nuenean, bihurritutako burdinazko lepoko bat eta liburu zahar bat aurkitu nituen barruan. Izugarrizko aztoramena sentitu nuen, liburua etxe hartan lehena-

go bizitako pertsona baten egunerokoa izan zitekeela pentsatuz, baina ireki orduko orriak hauts bihurtu ziren. Burdinazko lepokoa, berriz, oso zikina zegoen, eta garbitzea lortu nuenean, zera zioen esaldi bat deskubritu nuen bertan:

“Sir John Stanley gizon honen jabea da”. 1797

Orain, lepokoa nire laneko mahai gainean daukat, paper-euskailu gisa ordenagailuaren ondoan, eta noizbehinka hartu eta bertan jartzen duena irakurtzen dudanean, hitz egin ahal izango balu, bere izatearen zergatiari buruz kontatuko lidakeenaren jakin minaz geratzen naiz behin eta berriz.

I. Bisitari garrantzitsuak

Lehen elurren urtzearekin batera hasten dira sortzen, udaberri oro bezala, lehen errekatxo garden eta miresgariak High Gleen-eko mendietan. Gailurretik behera hasten dira jaisten lehen iturritxo bakanak, bat-batean beste batzuekin elkartzuz, erreka sendoago bat sortzeko. Errekaren handitzearekin batera hasi gara ikusten lehen zubiak ibaia zeharkatuz eta, urrunean, herriko tximinietako keak. Ehiza ugariko baso batzuk zeharkatu ondoren herrira heldu gara. Etxe txiki eta xumez beterik dago, eta bake eta lasaitasun kutsua sumatzen da nonahi. Bien bitartean, muino gainean ageri dira nor baino nor Stanleytarren gaztelua eta Hallin alargunaren etxe eta lur zabalak.

– Ez dut aukera hau galduko, Mary. Ezin dut pasatzen utzi; edo orain edo inoiz ez-esan zion Jack-ek bere arreba Mary-ri.

– Badakit nahi duzuna egingo duzula edonola ere, baina oso arriskutsua da Sir John Stanley-ren aurrean horre-

lako gauzak esatera ausartzea –erantzun zuen hark, hasperen bat botaz.

– Mary, badakit lagundu nahi nauzula, baina gutun honen geure egoera alda dezake, ez al duzu ulertzen? Hemen, libre garela esaten du! –Egin zuen oihu, besoak altxatuz.

– Badakizu Sir John-ek ez dizula hain erraz irteten utziko, oso buruargia da eta gaitzerdi haserretzen ez bada...

– Ni ere haserre nago, ba! Entzun beharko dit.

Eta besterik esan gabe irten zen etxetik. Oso mutil gihartsu eta dotorea zen Jack, bere meatzari lanagatik gehienbat, eta argia eta ausarta izateaz gain, burugogorra zen oso. Argi utzi nahi zuen bera ez zela gainontzeko langileen modura isilik geratuko bere askatasun eskubidea lapurtzen ziotela ikusirik. Bidean, Jefferson anderearen tabernan zeuden zenbait lagun agurtu zituen eta elizarako bidea hartu zuten denek. Jende ugari zegoen ordurako atarian bildurik eta batzuk jada barruan zeuden. Orduantxe entzun zen urrutian, zaldi batzuen arrapalada, eta han agertu ziren Stanleytarrak euren zaldi eta autoarekin. James, anaia zaharrena, eta Lars zaldiz zetozen eta auto barruan, berriz, Stanley senar-emazteak. Ez zen ohikoa urte sasoi hartan familia guztia High Gleen-en elkartzea, baina bazebilen herrian James anaia zaharrenak Lady Hallim-ekin ezkontzeko asmoa zuelako zurrumurrua. Jack-ek ez zuen uste Lady Hallim-entzat James gizon egokia zenik.

* * *

Amari ez zitzaion batere ongi iruditu elizara ni bakarrik eta zaldiz joatea, baina ez nuen kotxez joateko gogo-

rik; bidea txarra zen horretarako eta zaldiz lehenago ailegatuko nintzen. Elizara iritsi nintzenean, York elizgizona-rekin luze hitz egin nuen, eta barruan nengoen bitartean iritsi ziren James eta gainontzekoak. Amarekin eta York apaizarekin hitz egina nuen James-ekin ezkontzearena, baina artean nire zalantzak nituen. Negozio gizon garrantzitsua zen eta diru asko eta izen handia zuen; gainera, aita hiltzen zitzaionean, haren ondasun guztiak bereganatuko zituen, baita legegizon eta duke titulua ere. Horrek guztiak, erosotasunez beteriko bizitza eskaintzen zigun amari eta bioi eta, baita gure diru zorrak ordaintzeko aukera ere. Baina, interesak utzirik, ondo nekien ez nuela maite.

II. Eztabaida

Elizkizuna ezin hobea suertatu zen, nik ondoren egitea pentsatuta neukanerako. York aitak egiari buruzko irakurgai bat hautatu zuen. Garaia iritsitakoan, orduan esaten ari zen gauza bera mantenduko zuelakoan nengoen.

Egia esateko, ez neukan batere garbi egitera nindoanak ekar zekidakeen ondorioa, Sir John-en presentzia hutsak beldurrez airean jarri baitzidan gorputza. Elizkizun hartan esklabutza promesa bat egin behar zen. Jen, nire lehengusinak, seme bat eduki berria zuen, eta ohitura zen bezala, umea bataiatzearekin batera aitak zera esan zuen: “Hitz ematen dut nire seme honek Sir John Stanleyren meategietan lan egingo duela gaztetatik hil arte”. Orduan, Sir John aldarera abiatu zen, familiari hamar librako ordaina ematera esklabutza hitz ematearen truke.

Une hartantxe erabaki nuen altxatu eta hitz egitea.

– Diruak ezin du pertsona bat erosi!

Hori entzutean, Sir John, gelditu egin zen korridorearen erdian, zurbil, eta inguruko jende guztiak hari zuzendu zion begirada, ondoren gerta zitekeenaren beldur.

– Ume hau ezin da meategira betiko lotu –esan nuen, ahotsa dardarka nuela.

– Eseri zaitez, zentzugabe hori, eta itxi ahoa! –esan zidan Sir John-ek, eta erabili zuen tonu mesprezagarriak are gehiago haserrarazi ninduen.

– Eseri eta isil zaitez zeu ... –erantzun nion, eta jende artean harridura aurpegiak ikusi nituen.

– Zer esan nahi duzu, Jack? –galdegin zidan York apaizak.

– Esklabutza! Hori esklabutza da! Zuk badakizu hori ez dela bidezkoa. Oraintxe bertan egiaz hitz egin duzu, defenda ezazu orain lehen esana.

– Beno, badakizu zein den Galeseko legea, Jack, meategiaren nagusia meatzarien jabe da legez, eta urte bete eta egun bat bertan lanean daramatenean askatasuna galtzen dute.

– Egia da hori, baina zer gertatzen da pertsona horrek bere adin –nagusitasuna lortzen duenean? Legez, adin horretara iristean aske izan beharko luke!

– Hitz egingo dugu biok elizkizuna amaitzean. Jarrai ezazu York aita –esan zuen Sir Jhon-ek haserre, apaizaren eta bion eztabaida amaitutzat emanaz.

York aitak azken abestiari hasiera eman zion ezertxo ere gertatu ez balitz bezala eta nik han segitzen nuen ezer ulertu ezinik, tontaturik. Eliza hartako hamabost bat muti-

lek ez zuten oraindik hogeita bat urte, eta ez zuten zirkinik ere esan, laster libre izateko eskubidea zutela entzun zidatenean.

– Ez, argitu esandakoa! –esan zuen bat-batean Mack Lee-k. Mutilak, ihes egiten saiatu eta harrapatu zutelako, lepoan lepoko bat zeraman zera zioena: “Sir John Stanley gizon honen jabea da.”

– Hurrengo hilean hogeita bat urte beteko ditut, eta libre izango naizen ala ez jakin nahi dut–. Jende artean onartze zurrumurrak altxatu ziren.

– Zu ez zara inoiz libre izango –esan zion James Stanleyk.

– Hori ez da ba honek dioena –erantzun nion Ingalaterrako legegizon batek, nire eskaerari erantzunez, bidali zidan gutuna eskuarte hartuz.

– Zer da hori, Jack? –galdegin zidan apaizak.

– Irakurriko dizuet. Hitz ematearen zeremoniak ez du inongo zentzurik legedi ingelesean. Gurasoek ezin dute saldu beraiena ez dena, are gutxiago pertsona nagusi baten askatasuna. Semea behartu dezakete hogeita bat urte bete arte meategian lan egitera, baina orduan alde egiteko aske izango da!

Bat-batean elizan zurrumurrua altxatu zen, irakurri berri nuenak, ordura arte sinestarazi zieten guztia hausten baitzuen. Legeak zioena erabat argitzeko jarraitu nuen:

– Adin-nagusitasuna bete ondoren, urte bete eta egun bat meategian lan eginez gero, galtzen du pertsona batek bere askatasuna.

– Utzidazu ikusten Jack –eskatu zidan York apaizak. Berarengana hurbildu eta gutuna eman nion. Jarraian James-ek, altxatu eta gutuna bereganatuz, oihu egin zuen:

– Legegizon inozo batek dioenak ez du garrantzirik.

– Legea, legea da –erantzun nion indarrez.

– Zuretzat legea zure jabeak esaten dizuna da! –eta gutuna hautsi zuen.

– Beldurtu egin zaitu bertan jartzen duenak, ezta?

– Alde hemendik! –agindu zidan. Hura gehiegizkoa zen. Pertsona sinestun batek ez zuen beste bati elizatik alde egiteko agindua emateko eskubiderik.

– Hau zer da, Jainkoaren etxea ala Sir John Stanleyrena? –galdegin nion York aitari. Eta hark ez zuen bere mailan egoten jakin.

– Hobe izango duzu hemendik joatea Jack –esan zidan burumakur.

Nik ezin izan nion erantzuteko tentaldiari eutsi.

– Mila esker egiari buruzko irakurgaiarengatik. Ez dut inoiz ahaztuko.

Buelta eman eta aterantz zuzendu zen Jack. Baina ez zen bakarrik irten elizatik. Lehenik bere arrebak eta jarraian beste meatzari guztiek segitu zioten atzetik. Une hartan ohartu zen Jack, berak esandakoak izan zuen eraginaz.

Sir John bere bi semeekin etxera iritsi zenean oso haserre zegoen. Saloian sartu bezain laster, zerbitzariari mezu bat eman zion, herrialdeko xerif-ari eman ziezaion.

– Esan Ratchet-i, bi gizon nahi ditudala zubian gau osoan eta ez diezaiotela inori pasatzen utzi.

– Eta menditik ihes egiten saiatzen bada? –galdegin zuen James-ek.

– Gerta liteke, baina hori egingo balu, garaiz jakingo genuke eta mendia zeharkatuz bidaliko genituzke nire gizonak haren bila. Azkar erakutsiko diogu gure aurka altxatzeak duen ondorioa –esan zuen irribarre maltzurrez.

III. Meategian gauez

Zaldiz etxera zihoala, Lizzie-k ezin zuen Jack-ek esandakoa burutik kendu. Ume bat besterik ez zenean, Jack eta bere arrebarekin askotan aritzen zen jolasean, baina baziren urte batzuk haiekin harremanik ez zuela. Ziur zegoen Jack-ek esandakoa egia zela, baina bazekien, baita ere, horrekin Stanleytarrak asko haserretu zirela eta Jack gogorki zigortzeko eta kontrolatzeko zerbait pentsatzen ariko zirela. Bidean aurrera zihoala, urrunean, oinezkoren baten tankera zuen zerbait sumatu zuen, eta hurbiltzearekin batera, Jack zela konturatu zen. Bere parean geratu eta zera esan zion:

– Nola ausartu zara zure jabearen semeari horrela hitz egiten?

– Nola ausartzen dira beraiek gu esklabu bihurtzen, legeak debekatzen duenean?

– Meatzari guztiok eskertu beharko zeniokeste Sir Jhon-i meatzeen esplotazioa. Berari esker bizi zarete era duin batean.

– Hallin andereñoa, jaitsi al zara noizbait meategi batera? Ba al dakizu zer den han lan egitea?

– Ez zaitez inozoa izan.

– Bistakoa da ez duzula mundu hori ezagutzen. Inoiz jaitsi izan bazina, ez zenuke sekula esango jauntxoari gure esker ona eman beharko geniokeenik.

Jack-ek bideari ekin zion, Hallin andereñoa bere pentsamenduetan murgildurik utziz, baina neska atzetik joan zitzaion.

– Eraman nazazu meategira.

Jack-ek ezentzunaren itxura egin zuen, baina Lizzie-k berriro ere eskaria errepikatu zion.

– Mesedez, eraman nazazu. Gizonez mozarrotuko naiz eta inork ez nau ezagutuko.

– Ez dakit –Jack-ek bazituen bere zalantzak, baina ez zuen beste aukerarik izan, Lizzie-ren aurpegi errukiorra ikusita.

– Ondo da. Egon zaitez prest gauerdian zure etxeko atzealdean, ados?

Eskerrak eman eta alde egin zuen neskak, Jack-i irribarre bat eskainiz.

Jack-ek onartu behar izan zuen oso neska berezia zela Lizzie. Txikitan ohartu zen hartaz, beti mutilekin egiten baitzuen jolas, eta ez zuen inongo erreparorik edukitzen norbaitekin borroka egin behar zuenean. Ez zen beste nesken antzekoa, hala ere kontuan hartu beharra zegoen, bera ez bezala, klase altukoa zela Lizzie, sarritan beste itxura bat ematen bazuen ere.

* * *

Jada jantzirik nago eta oraindik denboratxo bat falta da gauerdirako. Eskerrak amak lo hartu duela, oso gaizki hartuko luke ni mutilez jantzita ikustea. Inoiz ez zaio gustatu, eta asko haserretuko litzateke gehiago ez janzteko esan eta gero, kasurik ez diodala egin jakingo balu! Oraindik ere itxaron behar. Zein itxura ote daukat horrela jantzita? Ispilua non dago? Jainkoa! Aurpegia ikatzez zikintzea ahaztu dut, bizar itxurak egiteko. Ea ba... pixkatxo bat hemendik eta beste apur bat bestetik. Ondo horrela! Txapela jantzi eta kalera. Han Jack-en itzala. Badator. Egia esateko auzarta da mutila. Ziur nago beste inor ez litzatekeela prest egongo nirekin meategira jaisteko. –Ez da dama batentzat leku egokia– esango luke James-ek. Ooo! Gogaikarria da. Gaur mezetan tontolapiko bat bezala portatu da Jack-en gaintetik geratu nahian eta, azkenean, Jack geratu da beste guztien gaintetik. Erabat lotsarazi ditu bai John bai James eta baita York aita ere. Hori gutxi balitz, herri osoa bere alde jarri du eta orain denek buruzagitzat dute. Eta ni? Bai, ni ere nahiko aldekotzat nauka, baina ezin naiz nire klasekoen aurka jarri meatzari baten eskerra lortzeko. Garaia da.

Korridoreko atea poliki ireki eta eskailerak isil-isilik jaitsi ondoren atea ireki eta Jack-ekin elkartu naiz. Sentsazio arraro bat dut gorputzean, betiko etxetik joatera banindoa bezala. Zein txorakeria!

* * *

- Non dago? Esadazu non dagoen, zure onerako!
- Ez dakit. Ez dit ezer esan.
- Ihes egin al du?

– Ez, ezetz uste dut. Ez baitit ezer esan. Benetan!

– Hobe izango da zuretzat Jack azaltzea. Ihes egitea lortu badu gezurretan aritu zarela esan nahiko du eta zure zigorra edukiko duzu.

Mary beldurtuta zegoen oso. Bazekien Jack-ek ez zuela ihes egingo berari ezer esan gabe, baina bera ere kezkatu-rik zegoen. Normalean ez zen etxetik kanpo denbora gehiegi egoten eta ez zuen elizako istiluaren geroztik ikusi. Gainera, gizon haiei sinesten zien berari tokatuko zitzaion zigorrarena.

– Bueltatzen bada, esaiozu bere bila gabiltzala eta zaila egingo diogula ihesa. Une honetan legez kanpokotzat hartzen dugu, beraz, harrapatzen dugunean, zigorra jasoko du! Ja ja ja!

– Ja ja ja! –egiten zioten koru gainontzekoek.

Ez zen ezer ikusten eta ez zekien hanka non jartzen zuen. Eskerrak Jack-ek eskutik helduta zeramala. Hiru meazulo hartu zituzten ezkeralderantz eta han ikusi zuen lehen langilea. Metro eta erdiko altuerako zulo batean erdi etzanda zegoen lur hotz eta bustian eta etengabe ematen zion paretari pikarekin; beldurgarria iruditu zitzaion gizon haren esfortzua. Jack-ek neskaren burutapenak sumatu eta eskua emanda kanporako bidea hartu zuen. Meategitik irten zirenean, han zituzten zai, James, Ratchett langile-burua eta beste bi gizon handi. Laurak armaturik zeuden eta Jack-i irribarretsu begiratzen zioten.

– Begira nor dagoen hemen? Hau al da gure Jack zintzoa?

– Lan egitera etorriko zinen, ezta?

Orduan bi gizon handiek, Jamesen keinu bati kasu eginaz, Jack preso hartu zuten. Meategian borroka ugari egon ohi zen eta Jack oso ohitua zegoen halako egoeretara. Bati ostiko indartsu bat eman zion hankan eta muturreko bat aurpegian. Bestea bi ukabilkadaz utzi zuen lurrean. Jarraituko zuen, baina James eta Ratchett armekin zeudela konturatu zenean, errenditzea erabaki zuen.

Jack lotu bezain laster John Stanley-k zera agindu zion langile-buruari:

- Presta ezazu gurpila.
- Gurpila?... baina, jauna, urteak dira inor ez dela horrela zigortu.
- Ekar ezazu –agindu zuen berriro ere gogorki John-ek.
- Baina ... nik... , ezingo nuke...-erdi bukaturik utzi zuen esaldia.
- Ongi da. Ekar ezazu zaldi indartsu bat. Orain ikusiko du honek zer den ona!

Zaldia ekartzerako, Jack-i, Mack Lee-ri bezalako lepoko bat jarri zioten eta burdinazko kate batez lotu zuten gurpil itxurako gida batera. Zaldia ere gurpilera heldu ondoren, Jack animalari begira lotu zuten, atzerantz korrika egin zezan eta zaldiaren bidetik aldendu ez zedin. Jack berehala ohartu zen “gurpila” izeneko zigorra betearazi nahi ziotela. Gaztetan ikusi zituen bere aita bezalako gizonak halako zigorra betetzen eta baita Mack Lee bera ere. Batzuek lortu zuten bizirik ateratzea. Berak ere lortzea espero zuen.

Jarraian zaldia astindu zuten Jacki atzerantz korrika eginaraziz, eta ia berehala estropozu egin zuen zaldiaren

apo artean geratuz. Haietatik aldentzea lortu zuen arren, bizpahiru segundoz arrastan joan zen; zentzua galdu eta apoen azpian ikusi zuen bere burua. Sabela eta ezker hanka zapaldu zizkioten, baina zutik jartzea lortu zuen. Erritmoa hartzea lortu zuenean irrist egin eta zaldiak bekain gaina zapaldu zion. Berrero ere altxa zenean, zaldia nekaturik zegoela ikusi zuen eta bien artean nolabaiteko elkar ulertze bat eman zen. Izan ere, biak zeuden loturik eta bobobil baten inguruan korrika egitera behartuak. Zaldia asintzen zutenean, Jack-ek azkarrago egiten zuen korrika; estropozu egiten zuenean berriz, zaldiak moteldu egiten zuen erritmoa.

Lizzie-k negarrari eman zion, eta hainbestekoa zen bere samina, ezin zuen begiratu ere egin. Belauniko eskatu zien zigortzaileei Jack aska zezatela baina ez zioten kasurik egin. Orduan, belauniko zegoela, eskua Sir John-en pistolara eramanean zuen, hartu eta John-i zuzendu zion.

– Aska ezazue, oraintxe bertan!

– Lasaitu zaitez, Lizzie, utz ezazu arma lurrean, ez dakizu zer egiten ari zaren –esan zion Sir John-ek kezkatuak.

– Askatu ezazue oraintxe bertan eta emazkidazue zuen armak.

Neskak agindutakoa egin zuten, bere aurpegia ikusita edozer gauza egiteko gai zela ohartu baitziren.

– Ondo al zaude, Jack? Goazen, altxa zaitez!

– Bai, ondo nago. Zergatik egin duzu hori?

– Ezin nuen hainbesteko indarkeriarik onartu. Beste edozeinengatik ere gauza bera egingo nuen.

– Eta zergatik zaude negarrez?

– Ez nago negarrez. Igo zaldira, ihes egiten lagunduko dizut.

– Eta hauek zer, ez al ditugu lotu behar?

Laurak meategian sartu eta elkarri lotuta utzi zituzte-nean, zaldi banatan zubirantz alde egin zuten. Bidean burdindegitik pasa ziren, Jack-ek ez baitzuen lepoko lotsagarrri harekin segitzeko asmorik. Pertsona libre zen eta inork ez zuen bere eskubidea deuseztatuko. Lepokoa mailuarekin askatu ondoren, zubira iritsi ziren eta bertan ez zuten inor aurkitu, ziurrenik John eta James-ekin zeuden bi gizon haiek ziren guardia egiten egon behar zutenak. Jada zubia zeharkatu zutenean Jack-ek bere zaldiari gerarazteko agindua eman zion eta zera esan zion Lizzie-ri:

– Hemendik aurrera bakoitzak bere bidea hartuko du. Asko eskertzen dizut hainbeste lagundu izana, nahikoa eta gehiegi egin duzu nigmatik. Baina, ez zaitut zure familiarengandik banatu nahi; ezin zaitut nirekin eraman.

Lizzie-k ez zuen erantzuteko indarrik izan eta bertan geratu zen burumakur Jack-ek bere ihesari ekiten zion bitartean. Etxera bueltan bere benetako sentimenduei bide eman zien eta baita ohartu ere ezin zituela betiko ezkutuan gorde. Ordura arte ez zuen onartu nahi izan, baina gogoko zuen Jack. Gainera, bailara hura asko maite arren, preso bailitzan sentitzen zen bertan. Bizitza osoa zeraman horrelako aukera baten zain! Behingoz klase altuko betebeharrei uko egin eta bizitza ezberdin bati hasiera emateko aukeraren aurrean zegoen. Bitan pentsatu gabe bira eman eta zaldia astindu zuen. Jack-en ondoan emango zion hasiera bizitza berriari.

IV. Askatasun taupadak

Gau osoa igaro zuten zaldi gainean eta eguzkia irtetearekin batera, herrixka batera iritsi ziren, Gettysbourgera. Londresetik bi egunera zegoen eta bertan geratzea erabaki zuten aste pare batez, Sir John eta besteak, beraien atzetik etorriz gero, Londresera zuzenean joan zirela pentsa zezaten. Handik bi astera, Londreserako bidea hartu eta bertan etxe bat alokatu zuten. Gau hartan bertan, ihes egin zutenetik hiru bat astera, Jack-ek berarekin ezkondu zedin eskatu zion Lizzie-ri eta honek baiezkoa eman zion.

Ezkontzaren berri emateko, bere amari gutun bat idatzi zion Lizzie-k, eta baita betiko agurra emateko ere, ez baitzen inoiz gehiago etxera itzuliko. Haurdun zegoelakoa aurrerago esateko utzi zuen, dena batera jakitea gehiegizkoa izango baitzen amarentzat, bere ustez.

Jack-ek ikatz zamaketari lana aurkitu zuen. Gogor egiten zuen lan, baina merezi zuen emaztea eta bidean zetorren haurra aurrera ateratzeko. Lizzie-k, bitartean, jostun lana egiten zuen egunaren tarte batzuetan; bestee-tan, senarraren eta bien arteko maitasunaren fruitua izango zen eta erraietan zeraman haurrarekin egiten zuen amets.

Iritsi zen espero zuten eguna. Neskatxa jaio zen, eta bien akordioz Mary deitzea erabaki zuten, Jack-en arre-baren omenez.

* * *

Pasa dira bost urte, eta une honetan Jack ikatz zamaketari koadrila baten nagusia da. Etxe dotoreago batera alda-

tu dira eta eroso bizi dira, hala ere, badute nolabaiteko herrimina. Itxaropen batek bakarrik pozten ditu: jaio ziren lurraldean, agian ez duela beste inork eramango norbaitek bere jabetza duela adierazten duen lepokorik.

Oroitzapenak

Mikel Babiano Lpz de Sabando
J.M. Iparragirre institutua
Urretxu

Isiltasunaren arnasak pasilloa estaltzen zuen. Arrastiria zeharkatzen zuten kotoizko txalupek noraezean ziharduten eta gauaren ispilu ziren aingeruak euren erreginarekin batera piztu ziren. Erabaki egokia hartu ote nuen pentsatzea egokitu zitzaidan eta burua zertxobait astindu nuen, arratsalde hartan jazotakoa uxatu nahian bezala. Alde banatara nituen harrizko paretek antzinako kontuak xuxurlatzen ziztuztela zirudien, eta aurpegia laztantzen zidan haize izoztuak urruneko erreka baten murmurioa herrestan zekarren. Ahazturiko bailaren arrosa zimelek nire oin-hotsak errepikatzen zituen klaustroa mugatzen zuten eta denborak marraskaturiko pilare boteretsuetan barrena urik gabeko iturri biluzi bat hautematea iruditu zitzaidan. Zergatik, baina, suertatu zitzaidan paraje hura? Pilareek arrandiatzen zuten kapiteletan zizelkatuta, Bibliako zenbait pasarte bereiz nitzakeen eta zutabe bat eta besteren artean irekitzen ziren arkuek ilunabarraren koloreak islatzen zituzten urrezko ostadarrak ziruditen. Aurrera jarraitu nuen. Armiamek ehunduriko tapizek kilima goxoak egiten zizkidaten eta konturatu orduko, ahoko hortzak dantzan hasi zitzaizkidan, gauaren erraietan babesturiko hotz eragole hark adoretuta. Klaustroa eratzen zuen amaigabeko pasilloa atzean utzi eta

berehala, marmolezko eskailera batekin tupust egin nuen. Begien bistan neukan zulo beltzera benetan jaitsi nahi ote nuen jakin nahian nenbilen, monasterioaren txokoren batean ezkutaturiko negar zotin mingarri batek nire belarrietan eztanda egin zuenean. Ingurura begiratu eta gauaren iluntasuna besterik ez nuen antzeman. Leku haren isiltasunean lohituriko lantu bakartia errepikatu egin zen eta aparteko zer egiteko barik, harmailak jaisteari ekin nion, patxadatsu, presarik gabe. Halako batean, estropozu egin eta eskaileretan behera amildu nintzen, harrizko egituraren oinean atsedetzen hartzen zuten itzalen enkontrura.

– Ondo al zaude, mutiko?

Inguruan zebiltzan oilarretako bat hurbildu eta sudurra mokokatu zidan, zizare bat zelakoan edo.

– Zer ... ? –hitz egiten ahalegindu nintzen.

– Eskaileretan behera jausi zara eta konortea galdu duzu –argitu zidan– Ondo al zaude?

– Baietz uste dut, ez kezkatu.

– Horrela bada, banoa, presaka nabil. Laguntza behar izanez gero, jo Migel anaiarengana, hark jakingo du zer egin.

Hitz hauekin batera, alboan nuen oilarra uxatu eta eskaileretan gora abiatu zen.

– Mila esker arretagatik! –oihukatu nion urrunduz zihoan hari.

Beltzezko apaizak beso bat goratu zuen, kontuari garrantzia kendu nahian bezala, eta harmaila atzean desageratu zen.

Non ote nintzen? Nola iritsi ote nintzen toki hartara? Zeinen eskutik? Galdera gehiago pilatzea baino, nahiago izan nuen azken hauek argituko zituzten zirrikituak bilatzea eta bi aldiz pentsatu barik harmailetan gora abiatu nintzen.

Momentu batez, eguzkiaren argitasunak begiak ixtera derrigortu ninduen eta azken hauek erdi irekitzea posible izan nuenean, berauen bitartez behaturiko paisaiak harri-durazko oihutxo bat askatu zion nire eztarriari. Patioaren erdian kokaturiko iturri ederrak ahotik ur txorrotada zerien aingeru bi islatzen zituen eta pare bat astok likido prezia-tutik edateko borrokan ziharduten. Oilo eta oilar ugari alde batetik bestera lasterka zebiltzan eta bazen txoko batean kokaturiko ardiei jana ematen ari zen pertsonarik ere. Abereen zintzurretatik ihes eginiko hotsek goiz oskarbia itotzen zuten. Basoaren erdigunean ezarririko bordaren batean al nintzen?

Patioa zeharkatu eta harri borobil batean pausaturiko emakume lodikote bati zuzendu nintzaion:

– Barka eragozpena, baina non gauden esango al didazu?

Andreak, irakurtzen ziharduen liburutik begirada altxatu eta imintzio itsusi bat oparitu zidan.

– Zuk zer uste duzu? –iradoki zuen goitik behera aztertu ostean.

– Nik...

Emakumea zutik jarri eta patioaren beste muturrean zegoen zurezko aterantz jo zuen. Inguruko abereek sortzen zuten zalaparta izugarria zen eta handik lasterrera neskatila bat hurbildu zitzaidanean normala iruditu zitzaiz-

dan bere deia ez sumatzea. Edonola ere sorbalda partean bultzadatxo bat nabaritu nuen eta biratu nintzenean hantxe topatu nuen kreatura txikia, soineko zaharkitu batean bilduta. Ozeano urruna gogorarazten zidaten begiak zeuzkan eta burua estaltzen zion ile luze eta horixkak urrea zirudien. Panpina bati eusten zion bularraren aurka eta ahots xume eta eztiak mintzatu zen:

– Prioreak ezagutu nahi zaitu.

– Prioreak?

– Jarraitu niri, mesedez.

Patioa eta klaustroa alde batera utzi eta eguzkiaren argian bainaturiko zenbait pasillo iragan ostean haurrak beltzez jantziriko monje bati fidatu ninduen. Ibiliaren ibiliz harrizko ate sendo batera iritsi ginen eta azken hau keinu bizkor batez ireki ondoren, apaizak beste aldean sumatzen zen gelara sar nendin erregutu zidan. Gogo onez onartu nuen eta eskerrak eman bezain laster atea nire sorbalde-tara itxi ziren.

– Ongi etorri –agurea paper mordoxka batez estaliriko mahaiaren gainean makurtuta zegoen. Bere atzealdean egur puska batzuek elikaturiko sua nabarmentzen zen.

Irribarrea ezpainetatik ezabatu eta buruan borborka nuen galdera jaregiteko betarik izan baino lehen agurea bigarren aldiz mintzatu zen:

– Nor zaitugu? Nondik zatoz?

– Ezinezkoa zait bigarren galderari erantzutea. Gogora dezakedan bakarra gurasoen errieta eta... –isilune bat egin nuen. Zer dela eta ari nintzaion kontatzen hura guztia? Aski seguru nengoen agureak ez zidala ez ulertuko eta ez

sinestuko. –Tontakeria dirudien arren, ez dakit nola iritsi naizen hona. Baina nora?

– Etxean zaude, seme, –priorea lagunkoi agertu zen– ez beldurtu. Gure artean zaudela ez zaizu ezer txarrik gertatuko eta nirekin konforme bazaude, gaixoen etxean atsedan hartu ahal izango duzu...

– Barka kontraesana, baina ni ez nago gaixo.

– Horrela bada, –agurearen begirada itzali egin zen– besteekin batera egongo zara. Ondo al deritzozu?

– Besteekin? –listua irentsi nuen.

– Bai, eta orain utzi bakarrik mesedez, egin behar ugaridut eta.

Harrizko ateetarantz nindoala nire esker ona aditzera emango zuten hitz gutxi batzuk askatu nituen:

– Zuen alde ezer egin al dezaket?

– Ez, eskerrik asko.

– Laguntzarik behar al duzue? –tematu nintzen.

– Ez...-gizonezkoak begirada altxatu eta begiak zertxobait naretu ostean nigan finkatu zituen–. Edo agian bai. Galdetu komentuko sukaldeetan. Berton aurkituko duzu lantxoren bat edo beste.

– Eskerrik asko, jauna. –agure eskuzabala bere bakardadean utzi eta kanpoan zain neukan apaizarekin elkartu nintzen.

Sukaldaria gizon argala zen, sudur zorrotz eta begirada lasaikoa. Monasterioaren jakitokian hartu ninduen eta abegitsu portatu zen nirekin.

– Lanen baten bila zabiltzala al diozu? –atzamar bat ezpainetara eraman zuen–. Utzi pentsatzen...

– Prioreak sukaldea proposatu dit.

– Bai, halaxe da. Normalean gu gara, apaizok, monasterioaren kontu eta zaintzaz arduratzen garenak baina azken aldi honetan lagun talde baten laguntza ere badugu, diru apur baten truke lan egiten duena. Beraiei elkartu gura duzu? Kanpotik jaso dezakegun laguntza guztia eskertzekoa da eta esfortzuaren arabera soldata jasoko duzu.

Hitz izutiak eztarriaren sakonenean ezkutatu zitzaizkidan.

– Ados al zaude?

– Bai noski, mila esker –Mintzatzea lortu nuen–. Eta noiz...?

– Gaur arratsaldean bertan, nahi izanez gero.

– Atsegin handiz.

Monasteriora momentu oro iristen ziren elikagai pilolak sailkatzeak ez zirudien oso betebeharrak egokia ni bezalako mutil koxkor batentzat, baina unean uneko eskakizunetara egokitu beharra izan nuen. Jakitoki erraldoian lan egitea suertatu zitzaidan eta piltzarretan bilduriko atzerriar gutxi batzuen laguntza banuen ere, kostata egiten genuen aurrera. Jende hark bihotza uzkuratzen zidan. Hain zen xumea, apala eta bakuna... Berauetariko gehienak sukaldean aritzen ziren, jo eta ke, lo egiteko bakarrik atsedeen hartuz. Nik beraiekin batera egon beharra nuen baina azkeneko minutuan sukaldariak despentsan jarri izanak errudun sentiarazten ninduen. Patio zabalean ezagutua

nuen neskatila panpoxak ere –begi ezean itsasoak zituena– sukaldean lan egiten zuen eta jende hark nire bihotzean esnatzen zituen sentimenduak zirela medio, laguntza apur bat eskaini nion, euren bizitza piztuko zuen gozokiren bat edo beste.

Udazkena atzean utzi genuen eta naturaren edertasuna astiro-astiro lokartuz zihoala antzeman nuen. Apaizek be-
raiekin bizi nendin onartu zuten, baina euren ohiko bizitza-
ra egokitu beharra nuela irakatsi zidaten, mezetara, bilere-
tara, baratza lanetara... joanez. Hasiera batean eskatzen ez
bazidaten ere, denborarekin egunsentiko maitinetara ere
joan beharra izan nuen. Teologia eta beste zientzia ezeza-
gun batzuk ezagutu nituen eta apaizek –gehienek behin-
tza- anaiatzat hartu ninduten. Horrelaxe jakin nuen ko-
mentua, lur haietako beste komentu batzuen zergak biltzen
bazituen ere, nahiko txiroa zela eta hainbeste handitasun
mantentzeko baliabide urriegiak zituela. Hau inguruko ko-
mentuek dirurik bidali ez eta jakiak besterik igortzen ez
zizkiotelako gertatzen zen. Monasterioak eta azken honen
kanpoaldean zabaltzen zen herriak merkaturik ez zuela an-
tzematean prioreari zuzendu nintzaion:

– Zergatik ez dauka berorrek merkaturik?

– Erregeren baimena behar dugu. –izan zen haren erantzuna.

Orduan ideia bat otu zitzaidan. Sukaldean jo eta ke ari-
tzen ziren pertsoneri komunikatu eta hogeiren bat urteko
neskatila eder batek nirekin batera erregeren palazioetara
abiatzea onartu zuen. Erabakia hartu eta berehala, arazo
bati aurre egin behar izan genion. Gure esperientzia kax-
karrak monarkarekin hitzaldia antolatzea ezinezkoa bila-
katzen zuenez, Rikardo izeneko apaizarengana jo genuen.

Neskatilaren laguna zen eta prioreari bere egin beharretan laguntzeak prestigio apur bat zekarkion. Neskatzaren hitzen arabera, bihotz oneko pertsona zen, oso eskuzabala eta umila. Hitzok xuxurlatzen zituen heinean konturatu nintzen neskatila hark zenbaterainoko maitasuna gordezten zuen apaiz harenganako.

Egunsentiarekin batera abiatu ginen, gutariko bakoitza zaldi baten gainean. Niri egokitu zitzaidana hiruretan bizkorrena zen eta *Hodei* izenaz bataiatzea otu zitzaidan, kolore zurixkaren omenez. Harresiak atzean utzi eta urkidi baten erraietan murgildu ginen.

Oso bidaia neketsua suertatu zitzaigun, baina gurekin genituen jakiei esker aurrera jarraitu eta hiriburura iristea lortu genuen. Zaldiak hiriaren kanpoaldean kokaturiko abeletxe batean uztera derrigortu gintuzten eta beren zaintza egokiena izango zela ziurtatzeko, gurekin genuen apaizak txanpon gutxi batzuk askatu beharra izan zuen.

Kaleak lanbide eta mota guztietako jendez beterik zeuden. Saltzaileak, diru apur bat eskuratzearen truke kale erdian dantzan aritzen ziren pailazoak, langileak... Kale kantoï bakoitzeko nahi adina –nahi izatekotan– emagaldtu agertzen zitzaizkigun euren ontasunak erakutsiz eta egiteko kapaz zirena aditzera emanaz. Asko kostata, erregeren gaztelura iritsi ginen eta sarreran zegoen zaindariari monarkarekin zita garrantzitsu bat genuela esan ostean, honak bere atzetik jarraitzeko erregutu zigun. Eskaileretan gora eramán gintuen eta argizari batzuen argitan bainaturiko gela batean utzi ondoren zorte ona opatu eta bere postura itzuli zen. Emakume lirain eta aberats baten alboan eseri ginen eta zegokigun txanda iritsi zenean, guardia batek erregea zain zeukala jakinarazi zion apaizari. Neskati-

lari eta niri bertan itxaroteko agindu zigun eta bere nahia zorroztasunez bete genuen.

Apaizak kopetilun zirudien elkarrizketa amaiturik gurekin elkartu zenean.

– Hegoaldeko lurrak eskaini dizkiot, egurra ziurtatuko diotenak...-murmurikatu zuen.

– Eta?

– Eta... –begiak piztu zitzaizkion– onartu egin du! Gu-rea da igandero merkatua egiteko baimena!

Denborak herrestan ekarririko hilabeteak zeharo zoriontsuak izan ziren komentua eta herriarentzat. Aberastasuna handituz joan zen eta merkatua baldintzatu zuen neska-karen eta bere jendearen lan jarduera izugarri lasaitu zen. Soldata hobea izateko eskubidea irabazi zuten eta eskuratuturiko diruari esker herrian zenbait etxe erosi zituzten.

Zorigaitza udako arratsalde lainotsu batean iritsi zen. Urrutitik bidaliriko gazta mordoxka bat sailkatzen nenbilen, apaiz ezagun bat hurbildu eta metro gutxira lanean ziharduen emakume bat begiz jo zuenean.

– Zu izan zara, ezta? –Begietan txinpartak zituela zuzendu zitzaion– Daukazun gizonarekin konformatu ez eta beste bat nahi al duzu?

Emakumeak burua makurtu zuen eta negar zotinka hasi zen.

– Ni...

Apaiza despentsaren pareta biluzi batean gailentzen zen irteerara hurbildu eta gela uztearekin batera atea dandateko batez itxi zuen.

Gau hartan bertan monjeei entzun nienaren arabera, emakume hark adulterioa egin zuen eta bai berak eta bai bere jendeak herria utzi beharko zuten, tamaina horretako bekatuen ordain.

Komentuak merkatua izatea egia bihurtu zuen neskatxa, priorearen erabakia aditzean, su garretan kiskali zen eta apaizen borondatearen aurka ezer egiterik ez zegoela ulertzean maltzurkeria bat bururatu zitzaion.

– Aizak, mutiko –deitu zidan gau batez– Laguntza apur bat eskainiko al hidake?

– Zer dela eta?

– Lagunak gaituk, ezta?

– Bai, halaxe da eta zer ... ?

– Litekeena duk gustuko ez izatea baina hire laguntza behar diat, ezinezkoa zaidak hainbesteko ardura zamatzea. –neskatxaren begietan distira berezi bat nabaritu nuen.

Herria utzi behar zuten egunaren bezperan burutu genuen. Neskatilak olioeko lanpara bat garraiatzen zuen eta haren argi dardaratiak monasterioko paretan ilunetan dantzatzen egiten zuen. Gauaren itzalekin nahastuta, txoko batean sumatzen zen eliza bakartira hurbildu ginen. Neskatilak olioeko lanpara goratu eta eskuineko besoaz lagundurik, tenpluaren paretan irekiriko leihoaren aurka jaurtiki zuen. San Telmoren irudia islatzen zuen beiradura milaka zati txikitan amildu zen goieratik eta olioeko lanparak elizaren zorua besarkatzean sorturiko soinu apala aditu genuen.

– Egurrak erraztasun osoz hartuko dik su. –neskatila mintzatu eta berehala komentuari itzaletan desagertu ginen.

Su kanpaiak kantari hasi zirenerako ohean aurkitzen nintzen, ezer gertatu izan ez balitz bezala.

Hurrengo goizean arraro samar nabaritu nuen laguna. Begiak oso gorrituak zeuzkan eta ezpaineak dardara egiten zioten.

– Jabetzen al haiz bart gauean egin genuenaz?

– Nola? –haren hitzek harritu egin ninduten.

– Itxaron hemen.

Ordu erdira edo itzuli zen.

– Rikardo apaizarekin hitz egin diat eta dena kontatu zioat. Zorionez gure alde jarri duk eta iraganbide sekretu bat erakutsiko ziguk herritik, harresietako kontroletik iragan gabe, irteteko –etsipenezko hitz hauekin besotik heldu eta pasilloetan barrena eramán ninduen.

Rikardo anaia zurezko gelaxka batean zain genuen. Gurutzefika handi batek bere sorbaldetara kokaturiko paretan estaltzen zuen eta azken honen alde banatara liburu triste batzuk bereiz zitezkeen, apaletan antolatuta.

Apaizak betozkoa uzkurtu zuen eta neskak arretarik eskainiko ez ziola jakinik, azken saiakera bat egin zuen:

– Zure lagunak ez dute herria utziko. Sutea itzaltzen laguntza handia... Neskatilaren begiak malkoz bete ziren. Baldosa pitzatua eskuinera desplazatu eta gure aurrean agerturiko zuloa begiztatu genuen. Neskatxak apaiza azken aldiz aztertu zuen eta bere bedeinkapena jaso ostean, iluntasunaren erraietan murgildu ginen.

Kideak eskuetan sostengatzen zuen olioeko lanparak pasillo hura bezain ilunak ziren gogoetetara bultzatzen

ninduen. Haren sugarrak denboran hildako korridore usteldua argitzen zuen eta noizean behin, saguren baten garrazi zoria aditzea iruditzen zitzaidan.

Karbe hura atzean utzi genuenerako eguzkiak zeruan irekiriko zauri odoltsu bat zirudien. Hilabete batzuk lehenago hiriburura iristeko iragan beharra izan genuen urkidia bereizi nuen eta zirkinik egiteko betarik izan baino lehen, bi zaldun hurbildu zitzaizkigun, indartsuak, dotoreak, zaldi gainean. Hasieran kontra egiten ahalegindu baginen ere, laster etsi genuen.

Besoak eta hankak ibilgetu, eskumuturrak soka lodi batez inguratu eta monasteriora bihurtu gintuzten. Albo batera nuen gaztea malkoetan urtu zen harresietan irekitzen zen sarrera nagusira hurbiltzean. Berton Rikardo kopetilun bat zain genuen, herriko biztanle urduri eta kitziatuak atzean zituela:

- Sentitzen dut. –murmurikatu zuen berak.
- Zergatik ... ?

– Ezinezkoa zitzaidan komentua bezalako toki sakratu batean atxilotzea. Atzo burutu zenutena –begirada hits bat jaurtiki zidan– gehiegizkoa izan zen. Ezinezkoa zait horrelakorik barkatzea. Bihotzez sentitzen dut.

Bilduriko jendeak justizia egin zedila oihukatzen zuen artean, neskatilak hanka eta eskumuturretako sokak kendu ziezazkiotela erregutu zien zaldunei. Rikardok eskaria onetsi egin zuen. Aita bat galdua zuen kreatura harresietan gora igo zen eta garaierarik handienera iristean begiak itxi eta arroka pisutsu bat bailitzan jaurtiki zen hamarren bat metrora zuen belardira. Heriotzaren hatsa usaindu eta konortea galdu nuen.

Mantso-mantso, zutik jarri nintzen. Esku bat burura eramanean eta bi hanken gainean sostengatzeko gai izan nintzenean begiak irekitzen ahalegindu nintzen. Iluntasunaren zama nabaria zen eta haurraren borondatea eratzen zuten aurrien artean bere lantu esteiaria aditu nuen, amaigabea, zorigaiztokoa, mutikoaren bizitzaren parekoa. Zertarako jarraitu? Umearen oinaze eta sufrimendu bera pairatzera kondenaturik nengoen, bere amesgaiztoak islatzera eta haren gogoa osatzen zuten aurri erori, txikitu eta ilun haietan barrena noraezean ibiltzera, neure ingurua argitu eta berre-raikiko zuen pozaren bila, ezbeharrek eta sentimenduek es-taliriko mundu hartan preso, ni, pentsamendua bainintzen.

Beste mundua ezagutzen

Paloma Quintana Martinez
Garaialde lizeoa
Urretxu

Gizakiak gainontzeko munduarekiko duen jokaera ulertzea zaila da eta niretzat, orain arte “gizarte garatu” bezala izendatutako sisteman bizi izan ez den neska baten-tzat, zailagoa da oraindik. Egia esan, ez dakit nola defini litekeen garapenaren kontzeptua, ez baitut uste nire fami-lia apurtu eta nire herriari bere bizimodua eta ohiturak ukatu dizkion gizakia gizarte garatu batekoa denik. Baina horrelakoa da bizitza, dirudienez ezer ez da ematen duena, dena geruza opaku baten azpian ezkututzen da, amaiera iritsi arte ezin zeharka daitekeen geruza. Horregatik, nire istorioa era labur batean kontatzea erabaki dut, honen irakurleak bizitzaz eta pertsonaz zerbait gehiago ikas dezan eta, batez ere, maiz ahazten den ikasgaia gogorarazteko: gizakia, aipatutako estalki horren azpian gaiztoa da. Agian istorio hau irakurriaz ulergarriagoa egin lekizuke, irakurle, bizitzan hain funtsezkoa den irakaspen hau.

Gure jainko itowa-ren berpizteaz geroztik 226. urtean jaio nintzen nire Ilmonahaya irla maitean. Hau, gaur egun Antilla Txikiak deituriko artxipelagoa osatzen duten irla-tako bat da. Noski, orduan genuen bizimodua zeharo desberdina zen gaur egunekoarekin alderatuta. Garai hartako

gizakia zoriontsua zen, behintzat Ilmonahaya-n bizi zena. Orain, ordea, ni naiz nire tributik bizirik dirauen pertsona bakarra eta ez nuke esango zoriontsua naizenik. Jasandako pairamen guztia nire bihotzean metaturik dago, neguan landareen hostoetan antzigarra pilatzen den moduan. Izo-tzezko kapa fin hori urtu dadin eguzkia behar du eta nik oraindik eguzki hori topatu ez dudanez, nire bihotza izoz-turik daramat, zoriontasuna niregana noiz helduko zain.

Nioen bezala, irlaren ekialdean kokatzen zen nire etxe-txoa. Han bizi ginen anaia, gurasoak eta ni. Aita arrantza-lea zen eta goizero, etxetik abiatu eta nahiz erreka nahiz itsasaldetik beti zerbait ekartzen zuen bazkaltzeko. Arran-tza munduak asko erakartzen ninduen eta, askotan, sukaldaritzari buruzko amaren esplikazioak entzun baino, nahia-go izaten nuen aitaren txalupa zaharra hartu eta inguruko irlak bisitatzera joatea. Itsasoan galdutako pertsona bat nintzela imajinatzen nuen askotan. Horixe zen nire jokorik gogokoena. Koralezko arrezifera gerturatzea ere asko atsegin nuen, hantxe egoten baitziren nire lagun izurdeak. Noski, etxera bueltatutakoan egundoko errieta botatzen zidaten gurasoek, arriskutsua baitzen hamahiru urteko neskatxa bat bakarrik itsasoratzea. Baina, bizitako esperientzia kitzikagarriaren ondoren ezerk ez zidan axola, abentura bati aurre egin ondoren denak errazagoa baitirudi.

Bakarrik jolastea atsegin nuen arren lagun asko nituen. Nire lagun mina Batoya zen. Denbora asko igarotzen genuen elkarrekin eta gure artean ez zegoen sekreturik. Barre egiten zuen bakoitzean alaitasunez betetzen zuen giroa, gela ilun batean sartzen den eguzki izpiaren antzera. Ai! Bere irribarrea gogoratzen dudan bakoitzean oroitzapen anitz datozkit burura eta, jakina, oroitzapenekin batera, tristura.

Haurtzaro zorionsua izan nuen nire bizitzako 16. urtea iritsi zen arte. Atzo gertatu izan balitz bezala gogoratzen dut. Iluntzean, zazpi urteko anaia *Yamoeh*-rekin batera talaiako sagarrondotik fruituak jasotzen ari nintzela, hodei ertzean beltzune bat ikusi nuen. Hasieran balea bat zela iruditu zitzaidan, baina, urperatzen ez zenez, izaki bizidun bat ezin izan zitekeela pentsatu nuen. Minutu batzuk igarotuen beltzuneari begira, gerturatzen ari zela ohartuz. Bat-batean, itsasgainean zebilen txirla moduko horretan pertsonak ikusi genituen eta orduan hasi ginen konturatzeko munstro haren dimentsioak izugarriak zirela. Gure herriko txalupa guztien laukoitza zen eta ezagutu gabe nuen egitura zuen. Hasieran, *Yamoek* etxera korrika bueltatzeko kinada izan zuen baina atxiki egin nuen, gogor helduz, itsasontzi misteriotsu haren jatorria aurkitu nahi bainuen. Arinago heltzearren bide-zidorretik hondartzara jaitsi eta behean zeuden zuhaixka batzuen atzean ezkutatu ginen.

Itsasertzetik hogeit bat metrotara ainguratu zuten untzia eta txalupa bat hondartzara iritsi zen. Gure tribuko buruzagia, *Husnemptoeh handia*, hantxe zegoen hondarraren gainean zutik, atzerritarren zain, bere nahiak ezagutzeko asmoz:

– Nortzuk zarete eta zer nahi duzue? –esan zuen *Husnemptoeh* -k bere ahots indartsuaz. Herri guztia zegoen jada hondartzan arraza zuriko gizonek zer esango zuten zain. Baina, jasotako erantzuna *Ilmonohaya-ko* inork ez zuen ulertu. Argi zegoen pertsona haiek lurralde urrun batekoak zirela eta hizkuntza desberdina zutela. Baina, komunikaziorik ez zegoela ikustean, gizon zuriek beren neurriak hartu eta gure buruzagia lau gizonen artean hartu zuten, gero bosgarren batek makila beltz bat zirudien gau-

za batez seinalatu zuelarik. Denok oso beldurturik geunden, ez baikenekien zer ari zen gertatzen.

Atzerritarren nagusi zirudienak galdera bera errepikatu zion *Husnemtropoeh-ri* behin eta berriz, gero eta ozenkiago, begiak gorriturik geratu zitzaizkion arte. *Husnemtropoeh* isilik zegoen, gogor heltzen ziotenen indarrari aurre egin ezinik. Erantzunik jaso ez zuenez begi gorriko gizonak bere jantzitik beste gizonak zuen makila beltzaren antzeko bat atera eta bertatik atera zen su-lerro bat *Husnemtropoeh*-rengana zuzendu zuen. Azken hau belauniko erori ondoren, ahozpez geratu zen odolez tindatu zen hondar hezearen gainean. Hilik zegoen.

Une batez isiltasuna nagusitu zen eta ondoren gure herriko borrokalari asko, gorrotoz beterik, korrika zuzendu ziren gizon zuriengana gure buruzagiaren hilketa mendekatu nahian. Zoritxarrez, borrokalarien artean nire aita zegoen eta bere kideen ondoan korrika ari zela, lurrera erori zen beste su-lerro baten ondorioz.

Ni, arriskuaz jabetu gabe nire ezkutalekutik irten eta nire aitarengana abiatu nintzen. Ez dut sekula ahaztuko momentu hartako bere aurpegia, bere ahoaren keinua, bere azken irribarrea bere neskatxari dedikatu nahian, bere begi ilunetako distira itzaltzen zihoan bitartean. Nire masailetatik bi malko isuri ziren, batean nire bihotzeko tristura pilaturik zegoen, besteak, berriz, mendeku nahi bortitza adierazten zuen. Hura izan zen gizakia ezagutzen hasi nintzeneko eguna.

Lehenengo eguzki izpiek esnatu ninduten. Oraindik nire aitaren gorputzaren ondoan aurkitzen nintzen, jadanik hau hotza zegoelarik. Baina, non ote zeuden anaia, ama, Batoya eta beste guztiak? Hauek bilatzeko burua altxatu

nuen eta garrasi egin nuen nire inguruari so egitean. Hondartza osoa hilotzez beterik zegoen, nire herriko jendea, denak hilik. Seguraski, hainbeste gorpuren artean gizon zuriek ez zuten bizirik zirauen neskaren presentzia sumatu eta han utzi ninduten. Zuhaitzketara hurbildu nintzen ea nire anaia han zegoen ikusteko, baina hostoen artean belaunikatu bezain pronto, esku batek lepotik heldu zidan, atzeraka eroraraziz. Gizon zuri bat zen eta heriotza zekarten makila berezi haietako bat zeramanez (geroago ikasiko nuen hura eskopeta zela), ez nintzen jarki.

Irlaren hego-ekialdera eramán ninduen eta hantxe zeuden nire familia eta beste lagunak. Inbasoreak irlako zuhaitz guztiak mozten ari ziren eta gure ondasun guztien jabe egin ziren. Amak eta anaiak behin eta berriro besarkatu ninduten, negar-zotinka ari zirela. Nire inguruan jende guztia negarrez eta oihuka ari zen eta iskanbila horrek gauzak ulertzea galarazten zidan. Dena den, segituan konprenitu nuen gizon zurien preso bilakaturik geundela. Kasaren erdian Batoya-ren silueta antzeman nuen txoko ilun batean. Gu biok ginen, itxuran, lasaitasuna mantentzen genuen bakarrak, baina nire lagunaren aurpegia ikusi nuenean jakin izan nuen nire lagunaren jarrera ez zegoela trankiltasunarekin loturik, beldurra eta buru zoraldiarekin baizik. Hitz egiteko gogorik ez zuenez, laztantxoak eginez animatzen saiatu nintzen, baina ez nuen lortu lagunak lurrean iltzaturik zuen begirada direkzioz aldatzea. Ordu batzuk geroago jakin izan nuen, amak esanda, Batoya gau hartan bortxatu zutela.

Ez genuen ia ezer jan egun askotan eta lan gogorak ezarri zizkiguten, esate baterako zuhaitzen enborrak hondartzara eramán, fruituak jaso, lurra aitzurtu harribitxiak aurkitzeko, etab. Egunak eta egunak pasatzen ziren eta,

hala ere, bazirudien denbora geldirik zegoela. Kanpotar haien esanetara geunden, errespetatzen ez gintuzten pertsona gaizto eta krudel haien menpe. Ilaran joan ohi ginen hondartzaraino mineralak eta harribitxiak eramanez eta gure artean hitz egiten bagenuen jo egiten gintuzten. Gure aurpegietan desesperantza igarri zitekeen, gure etxetarren galerak mindurik, azkeneko indarrak agortzen ari ginelarik. Eta horrela, Ilmonahaya-n inor konturatu gabe, egunak astei eta asteak hilabetei esku emanez igaro zen denbora.

Arratsalde batean beste untzi bat iritsi zen hondartzara. Ni bakarrik nengoen ikusi nuenean, nire jagolearen nahastea aprobetxatuz ihes egin bainuen unetxo batez. Besteak ohartarazi behar nituela, ama, Yamoeh, Batoya eta beste lagunak ikusi nituen untzirantz abiatzen zen txalupa batean. Korrika batean hondartzara jaitsi nintzen baina iritsi nintzenerako untzia urruti zegoen. Hala ere, ez nuen amore eman eta uretara salto egin nuen barkua harrapatu nahian. Baina, indar ezak eta untzia hain urruti ikusteak sortutako etsipenak konortea galarazi zidaten.

Esnatu nintzenean ez nintzen ezertaz gogoratzen. Untzi bateko kamarote batean nengoen arraza zuriko andre batekin. Honek zopa eskaini zidan ulertezina egin zitzaidan hizkuntza batean, baina keinuen bidez ulertu eta bere eskaintza onartu nuen. Andre hura oso jatorra izan zen nirekin, nik bezala azal gorria ez zuen arren. Esfortzu handiak egin ondoren ulertu nuen esan nahi zuena: zirudienez, barku hartako gizon zuri batek ni salbatu ninduen eta gure irlara iritsi zen lehenengo barkuan bidaiatzen ari nintzen. Europarantz gindoazen. Noski, orduan ez nekien hau existitzen zenik ere eta nahiz eta salbu egon, ezin nuen nire barrena alai mantendu.

Egunak eta egunak pasatu ziren eta ez ginen inora iristen. Barkua ondo ezagutzen nuen eta gaintzorura igotzen uzten zidaten. Ura, ura eta ura. Horixe zen beha zitekeen gauza bakarra. Esan bezala, aske uzten ninduten barkuan, andre hark janaria ematen zidan eta berari esker hizkuntza arrotz hartako hitz batzuk ikasi nituen. Hala eta guztiz ere, nazka ematen zidan gizon haien menpe egoteak.

Bidaia hura, bizitzako bidai guztiak bezalaxe bere amaierara iritsi zen. Hiri handi batera iritsi ginen. Bertako gauza guztiak berriak ziren niretzat eta galdurik sentitzen nintzen.

Segituan lanean jarri ninduten, etxeak garbitzen, nik ezagutzen nituenetatik oso desberdinak ziren etxeak. Nire jendeak jasan zituen gaitz guztietan pentsatzean oso zorte ona izan nuela iruditzen zitzaidan, baina segituan konturatzten nintzen maite nuen guztia galdu nuela. Handik urte batzuetara jakin izan nuen nire familia, Batoya eta nire herriko beste jende guztiak bidaiatzen zuten itsasontzia hondoratu egin zela bere helmugara iritsi aurretik.

Askotan pentsatzen dut askoz ere hobe izango zela ni ere itsasoan ito izan banintz, bizirik irauteak ez baitu kontpentsatzen nire jendeaz gogoratzeak sortzen didan etsipena. Beraz, orain hemen nago, etsipen giroan sumatzen den mundu ezezagun batean, nire bizitzan eguzkia noiz aterako zain, ez baituzu inoiz ahaztu behar, irakurle, azken baliabidea itxaropena dugula.

Askatasun taupada

Ainhoa Ugarteburu Plazaola
Garaialde lizeoa
Urretxu

Itxarongela txiki baten lau hormen artean aurkitzen naiz momentu honetan, psikologoa etorri zain nago, nire izena esan eta bere bulegora eramán nagan, bi astetik behin egiten duen bezala. Ez dut batere gogoko, ostegun arratsaldeetan aitak esaten didanean: “*Lauretan ikastetxe parean*”. Noski, nire herritik Gasteizera joateko izaten da, niretzat betidanik “*munstro*” bat izan den mediku mental horrengana joateko.

Min handien ematen didana da errutina bihurtzen ari zaidala, gurasoek eta bizardun jaun tente horrek behartuta, noski. Ezin dut ezer egin egoera astun honetatik behingoz ihes egiteko. Bat-batean nire bizitzan sartu zen gizon batek nola jokatu behar dudán esaten dit, nola antolatu nire bizitza; baina nor hostia dela uste du horrek?

Dena orain dela hiru bat urte hasi zen, ni neska alai nintzen, lagun askoren laguna, banituen ohiko arazo batzuk, baina ordura arte niretzat bizitza arrosa eder baten parekoa zen. Momentu hartatik aurrera jakin nuen, ordea, ez dagoela arantzarik gabeko arrosarik.

Ezin nuen gehiago jasan gorputz lodi haren barruan aurkitzea, erabat ezeroso sentitzera iritsi nintzen. Hasie-

ran, ez nion garrantzirik ematen, baina jendearen burlek, telebistako iragarkiek, modak... erabaki garrantzitsu bat hartzera bultzatu ninduten: nola edo hala argaldu beharra nuen. Egunetik egunera nire argaltzeko antsia handitzen zihoan, hori baitzen munduan gehien nahi nuena.

Idea horrek erabat itsutu ninduen, ez nintzen nire inguruan gertatzen zenaz batere jabetzen, nire buruan janari-rako eta argaltzeko metodoetarako bakarrik zegoen lekua.

Hasieran zail samarra iruditzen zitzaidana, bukaerarako haur jolasa baino errazagoa izatera iritsi zen, eskuetatik ihes egin zidan jolas arriskutsua.

- Oso polita zaude, pixka bat argaldu ondoren!
- Zenbat argaldu zaren!
- Zain ezazu zeure burua!

Horrelako asko eta asko entzun behar izan nituen, batzuk intentzio onarekin esanak, besteak ordea, galdezka etortzen zaizkizun atso kontakatiluenak.

Momentu horietan nik banekien nire inguruko jendeak ez zuela hasierako jarrera bera nirekin, giro txarra sumatzen nuen nire ingurukoengan, denek begiratzen zidaten aurpegi errukiorrarekin, beste batzuk beldurturik... Nik behintzat beren begiradetan horixe hautematen nuen.

Urte oso bat pasatu zen eta nik hogeita bi kilo kendu nituen gainera; denek esaten zidaten oso argal nengoela, baina nik ez dut nire burua inoiz argal ikusi, itsutasun ika-ragarri horren barruan, ni bakarrik aurkitzen nintzelako; ni eta nire gorputza.

Nire lagunak ez ziren anorexia nuela esatera ausartu, baina denek zekiten: nire inguruko jendeak, adiskideek,

nire familiak... Denek zuten nik nuenaren berri, baina inoiz ez ziren eta inoiz ez dira niri hori aurpegira esaten ausartu. Hau inoiz ez dut ulertuko, ni ez mintzearren egin dutela pentsatzen dut.

Norbaitek ordea, jakinaren gainean jarri beharra ninduen, geroz eta beherago nindoan putzu ilun hartatik atera eta “psikologo” deituriko gizon bizardun bat arduratu zen eginbehar konplikatu hartaz.

Egun batetik bestera hantxe aurkitu nintzen, orain joan behar dudan bulegoan.

Nik, hasieran, ez nuen ideia zipitzik ere hura psikologo kontsulta bat zenik. Hara joan, berari hitz “txatxu” batzuk esan, eta gero bizardunak diru kantitate bat “lapurtzen” zien nire gurasoei. Niri oso gogorra egiten zitzaidan, baina oraindik arrosaren arantzek ez ninduten erabat ziztatu.

1999ko uztailaren 21ean ospitale batean ingresatu ninduten, niretzat zuriz jantzitako deabruen infernua zen hura. Goizetik gauerako denbora saltoan, hantxe entzerraturik aurkitu nuen nire burua, lau pareta zuriren arteko ohe erraldoi batean, eta hormaren alde batean bideo-kamera bat.

Zer zen ordea hura? Txoriek kaiolan baino askatasun gutxiago nuen, eta are okerrago, ez nuen batere intimitaterik; nola, bada? Kamera puta bat momentu oro nire mugimendu guztiak grabatzen egonda?

Handik ihes egin beharra neukan eta horretarako modu bakarra zegoen: “GIZENTZEA”. Bai, nahiz eta “*pisua errekuperatu*”, “*pisu egokian egon*” eta horrelako babokeriak aditu, niretzat GIZENTZEA zen egin beharra neukana.

Orduan hasi zen niretzat kalbarioa. Egundoko borroka zegoen nire buru barnean, jan ondoren ez nuela gimnasia-rik egingo esaten zidan buruak, baina gorputzak ez zidan uzten; burua eta gorputzaren arteko gatazkaren erdian aurkitzen zen nigan gelditzen zena.

Ia bi hilabete eman nituen toki nazkagarri hartan entzerraturik, erizain eta medikuen mehatxuen menpe, egunero-egunero “*¡Estás cavando tu propia tumba! ¡No vas salir de ésta! ¡A este paso tú no te recuperas!*” eta horrelakoak entzuten ohitu nintzen.

Zer uste zuten, beraiekin bizitzen gelditu behar nuela ala? Ez horixe! Buruan sartu zitzaidan ez nituela gehiago ikusiko ardi larruz jantzitako otso maltzur haiek eta irailaren 3an irten nintzen txerrenen leku ilun hartatik.

Nire lagunek oso ondo hartu ninduten, nahiz eta beraiek triste samar egon kurtso hasiera gainean zutelako. Niri hori gutxienekoa iruditzen zitzaidan, nik kaleko airea arnasten nuen berriz ere, haizea nire gain zegoela sentitzen nuen, nire herriko tabernez eta mendien paisaiatz goza nezakeen. Bizitzak egin zidan erregalua zen hori, heriotzaren gailurrera iristeko bi pausora egon ondoren emandakoa.

Bi urte eta gehiago pasa dira orduz geroztik, ni osasunez oso ongi nago, aspaldi eman zidan alta “*endokrino*” deituriko mediku batek.

Esan bezala, bada denbora pixka bat bila nenbilen askatasuna lortu nuela, baina oraindik ez naiz guztiz aske, jaun bizardun horren garretatik ihes egitea lortu behar dut eta ez dakit nola. Aurrerapauso bat egiten dudala iruditzen zaidan bakoitzean, lehengo egoera korapilatsuan kateatu-

rik aurkitzen dut neure burua, irteerarik ez duen labirinto bukaezin batean.

Egokiera honetaz nazkaturik, ni kontrolatzen nauenari kartak mahai gainean jartzea erabaki nuen duela hila-bete.

Ostegun euritsu bat zen eta ni oso seguru nengoen egin behar nuenaz, hortzak erakutsi behar nizkion, behingoz adi zezan nik benetan pentsatzen nuena.

“¡Estoy hasta los huevos de venir aquí! ¡No me ayudas en nada, y lo único que haces es robarles dinero a mis padres!”

Nire barnean egundoko hutsunea nabaritu nuen, odola burura igo zitzaidan eta halako gorritasun batek nire aurpegia erabat estali zuen ...

Isiltasuna zen momentu hartan bulegoaren errege, ez zuen ordea luze iraungo.

– Oso ongi egin duzu hori esanez –erantzun zidan berak kastellanoz– uste dut orain arte inoiz ez didazula horren zintzo hitz egin, zoaz, deituko dizut.

Batere indarririk gabe kotxera abiatu nintzen, hobeto esanda, hankek eramaten ninduten, ez bainekien nora joan zen nire burua ...

Handik hamabost egunera, berriz abiatu nintzen denok dakizuen lekura, lasai nengoen, banekielako nik esandakoari bueltak emango zizkiola. Oraingoan, ez ginen aita eta biok bakarrik joan, ama ere gurekin joan zen.

Okerrena pasaturik zegoela uste nuen, psikologoarengandik ihes egitea besterik ez zitzaidala gelditzen, baina

bere ahotik irten ziren hitz haiek, nire bihotzeraino iritsi eta iltzaturik gelditu zitzaizkidan: “*ESTÁS CAYENDO EN LO MISMO*”.

Horixe izan zen aho ilun hartatik nire bihotzeraino iritsi zen labankada. Negarrari eman nion, ito beharrean aurkitu nintzen, negarrez beteriko itsaso batean igeri nenbילה. Nire amorrak edozer esango zion orduan nire begien aurrean nuen gizon hari.

Baina ez, okerrago izanen zen, edozer esanda ere, nire kontra erabiliko zuela banekielako. Zein egoera zaila! bizitzan pasatu dudan zailena! Esaten duzunaren baitan dago dena; hortzak erakustea erabakitzen duzunean, aizkora batez jotzen zaituzte, isilik geratuta ordea, ez duzu ezer lortzen.

Zergatik niri?

Zergatik niri?

Zergatik niri?

Hiru egun pasatu dira hori esan zidanetik, ez nago prest berriro ere anorexiaren gatibu izateko. Ospitaletik irten nintzenean neure buruari zin egin nionarekin gogoratzen naiz: “*Ez naun berriz heriotzaren tuneletik pasako*”.

Eta horri tinko eusteko prest, bizitzarengatik borrokatzeko prest, eta “Etsaiak” musika taldearen disko batek zioen legez, bihotzaren taupadak erabat askeak izateko; ez dut inola ere nire promesa hautsiko.

Nahiz eta psikologoari aurre egin behar izan ...

Nahiz eta Gasteizera alferrikako mila bidaia egin ...

Nahiz eta ...

Nahiz eta ...

Nahiz eta...

Mila lerro okupatuko nituzke horrela, oztopoak eta oztopoak idazten. Baina oztopoei mila lerro badagozkie, gauza onei hamar mila, ez? Ba, horiengatik bizi beharra dagoelako, inoiz ez amore eman eta, beti aurrera segi beharra dagoelako, ... BIZI NAHI DUT!!!



Xabi eta Fermin

Kati Olaizola Gabirondo
Salbatore Mitxelena ikastola
Zarautz

1. Xabi

“El sexo es lo mejor” halaxe zioen behintzat arrats hartan entzun nuen irratsaioak. Uste dut lau tertuliakide dituen horietako bat zela, eta oilategi batean bezala guztiek batera hitz egiten zutela, ezer ulertzen ez zelarik, baina hitz naufragio hartatik esaldi hura erreskatatzea lortu nuen, autoaren kristalen aurka leher zedin baino lehen. “El sexo es lo mejor”, tentelkeriarik entzuteko gogorik ez nuen eta emisorea aldatu nuen. “Radio 3-todo noticias-”, argi zegoen egun hartan ez nuela frekuentzia euskaldunik entzungo, beraz, TAPE sakatu eta kasetea jarri nuen martxan. “... the west, is the best ...” klik! Alferrik zen, lagun batek kasetea aldatu zidan, eta Jim-en ahots “sentsuala” irten zitzaidan bafleetatik, pausatua, lasaia, laster garrasika hasteko prest.

Egia esan, gorroto nituen Doors-ak, edo hobeto esanda, gorroto nuen Morrison. Bere irudiak zuen erotismoa, sentsualitatea gorroto nuen. Bere mugitzeko eta kantatzeko era, kontzertuetan biluzteko ohitura, bere musika, letra lizunak... hitz bitan: **gorroto nuen.**

Bai, herra nion hari, baina baita hippie guztiei ere, Lennon, Joplin... denak zitzaizkidan gogaikarri, beren “do the sex, not the war” harekin; urruti iritsiko gaituk ba sexuarekin! Hobe zuten bai haiek denek probetxuzko zer-bait egin eta ez denbora galdu porro, whisky eta orgiatan. Hobe lukete, bai, lanen bat egitea beren bizimodua ateratzeko, eta ez besteen bizkar barrez bizi.

Kasetea atera nuen tramankulutik, leihotik barrena botatzeko gogo biziari eutsiz. Eskuarekin alboko apalean begiratzen hasi nintzen eta Lertxundiren zinta bat atera zen –Hau bai ona!– ... Oi Baldoorba, ooi ...

Hark bai erlaxatu ninduela, hura gozamina zen bela-rrientzat, tradizionala zen hura, etxekoa.

Lagunek diote itxiegia naizela, soinu eta kultura berriak ere entzun beharko nituzkeela, eta nik baietz erantzuten diet behin eta berriz, jakin arren ez dudala egingo.

Zeren nik ez dut aldatu. nahi, gustura nago nire txalekoa (zaharkitua), gorbata (señoritoena), Benito (klasikoa) eta andregai formalarekin (sexurik ez? Ez hago burutik sano). Egia esan, lagunek barre egiten badidate ere berdin dit, Mirenek berak ere hala baitio, nahiago duela ezkontzara birjin ailegatu, eta denborarik ez galdu horrelako itsuskerietan.

Astero nire gurasoei bisita egiteaz eta alardeko emakumeen aurkako manifestazioetara joateaz harro nago. Beno, hori... beharragatik egin nuen, zeren ni ez naiz batere politika zale, ezta horrelako iskanbiletan sartzearen aldeko ere. Nahiago dut ertzean geratu, nire Mireni eskutik helduta, eta jende oldea pasatzen ikusi, zezenak ikustean bezala, “desde la barrera”, askoz ere seguruagoa baita, arris-

ku gutxiago du. Behin, gaztetxo ginenean, joan nintzen koadrilakoekin manifa batera, eta... jendea bultzaka aritu zitzaigun. Hantxe ibili nintzen, noraezean ezagutzen ez nuen jende uholde batean galdurik. Gogoratze hutsak hotzikarak sortzen dizkit! Uste dut hobe dudala burutapen horiek alde batera utzi eta errepideari arreta gehiago jartzeari.

2. Fermin

Jode, hau duk hau, sekulako txortaldia izan nian atzo. Ederra zegoan markinarra! Hotzak direla esaten ditek gero... atzokoa behintzat, ez zuan ez!

Sekulako ganadua zuan. Kristoren titi pareta, handiak, baina aldi berean gogorak, gainera niki gorri estu haren azpian, jode... soinean bularretakorik ere ez zeraman. Itzelak! Jode, kotxe puta! Ia jo diat, arreta gehiagoz gidatu beharko diat. Eepa, semaforo gorri bat!

Izan ere, ipurdia ere ederra zian, hasieran ez zian ematen, galtza zabal haiekin, baina kulero beltzak soinean, biribila!

Gainera postura denak ezagutzen zizkian, atzetik, aurretik, ahoarekin. Argi zegoan hura jakituna zela, ez zuan ez lore bateko erlea! Lanak izan nitian, bai, hura asetzen, nork eta nik!

Eskerrak ia bakarrik bizi naizela, bestela ederra festa izango zitean pisukideek. Baina Xebas bezalako zomorrotan batekin bizitzeak baditik bere alde onak; harekin bizi edo ez, faktura txikiagoak ordaintzean zagok alde. Egun guttia pantailari entxufatuta ematen dik. Seguru orain ere infernuko tramankulu horri begira dagoela. Telebista puta!

Zer edo zer egin beharko diat. Atzo ere hantxe zegoan, ni eta... Jode, nola zian izena markinarrak? Hain ona zegoan, ez nintzen izena galdetzeaz ere gogoratu. Leire, ez; Andrea... ezta. Ba berdin dik, total, atzo egin genizkian egitekoak eta aire! seguru ez dudala berriz ikusten. Beste denekin berdina izango duk.

Beste semaforo gorri bat! Gaur baietz denak harrapatu!

– Jarriko haiz, ba, behingoz, berde, kaguen!

KAKA ZAHARRA! Bihar azterketa diat! Fisikakoa gainera! Fermin baboa haiz, babo konpletoa, zeinek esan zian hiri Ingeniaritza ikasten hasteko? Nor demontrek? Hori enpolloientzat duk, hik Arte Ederrak hartu behar hituen, hori bai pagotxa! Lanik egin ez eta, gainera, sekulako neskak zeudek; ingeniartzan denak muermo hutsak dituk, zeharo zatarrak gainera.

Beno, musika pixka bat jarri beharko, giroa alaitzeko.

– *“Hay que estudiar, algo con porvenir...”* Jode, hau duk hau buruko mina.

Jesukristoren erresaka zaukat, bajuago jarriko diat. Zergatik ez ote nuen atzo gauean bokata bat jan, ajearentzat onena duk. Gainera erre nuen kosto guztia erreta, ia ezertaz ez ninduan enteratzen, ederra itsua nuena. Baina ez ninduan bakarra, ni neskarekin joatean hantxe geratu zuan Haritz kalean botaka, eta Naika ere bai. Je, je... ni berriz “dale que te pego”, eskerrak ez nintzela asko pasatu zurrutarekin, ze bestela! Beno, edo, agian, gorputza ohituta izango diat, emandakoak eman eta gero! ... Jode! Ia harrapatu diat atso hori!

– Bzjhdkjsdj #jfh#jdsfuj!!

- Baietz, baietz, barkatu! –hori duk hori malaletxea–.
- ... gaur egungo gazte hauek, ez edukaziorik, ez ezer...
- Lasaitu e! Ez da ta ezer izan, gainera gorri zegoen semaforoa.
- Gainera hori, zahar gaixoei bota erruak!
- Lasai, lasai, banoa eta... Gaur egungo gazteak... bai zera! Amonak okerragoak dituk, semaforoa gorrian eta hale, aurrera! Gainera gero beraiek omen ditek arrazoia, eta hiri orroka hasten zaizkik. Apaizak baino okerragoak dituk.

La ostia!... karreterari begiratu beharko ...

Semaforoa gorri, laranja... berde, listo!

Kaka, gorri zagok. IIINNP.

KRAKKKRAKKKRAKKA.

KAKAZAHARRA. PUTA MIERDA!

3. Xabi eta Fermin

- Kaka zaharra! Gaur ziur irratian aterako naizela.

Irratia: Pin pinpin... Trafikoaren informazioa: ... gaur goizean, istripu bat gertatu da Bilboko Lauaxeta kalean. Opel Korsaa gorri batek Fiat Brava berde baten muturra jo du, semaforoa gorri pasa ostean, gainera...

- Kank!

- Kank!

Biak kotxetik atera dira

– Hara, ederra kolpea. “Ederra itxura, sekulako ajearekin dago hau.”

– Bai, kristoren ostia hartu diagu. “Jode, hori duk hori tipo xelebrea.”

– Beno, pentsatzen dut aseguruak dena ordainduko digula. Zein da zure aseguru etxea? “Ziur ez duela halakorik, horrelakoek ez dute izaten.”

– Bai, bai. Paper denak eguneratuak ditiat eta ez duk arazorik izango. “Zer uste dik honek, baboa naizela ala?”

– Ondo, eh... nola konponduko dugu dena? Tira, peri-toarena eta hori. “Seguru ez dela gizajo honen lehenengo istripua, praktika izango du.”

– Beno, nik ingeniari-tza klaseak ditiat goizez, baina arratsaldeak libre. Hik ez baduk arazorik... “To! ikasten ari nauk, seguru ez huela hori espero. Kontuz gero nirekin! ni jende inportantea nauk”

– Tira, nik astearte eta ostegun arratsaldeak libre ditud, ez baitut bufetera joan behar. Beraz, aukeratu egokien zai-zuna. “Ingeniari-tza, jontxo! Seguru “aitaren umetxo” horietako bat dela, diruarekin irakasleak erosten dituen, ze bestela ...”

– Beno, orduan arratsaldean bertan gera gintezkek, astearte denez ... “...”

– Oso ondo. Beno, orduan, arratsaldean hor alboko tabernaren aurrean, Kalea izena duen horren aurrean. “Badaezpada, hobe da ezagunek ez ikustea gizajo honekin batera, beraz, etxetik urruti egokiena.”

– Ondo. Orain grua bati deitu beharko zioat... Ea kabina-ren bat dagoen inguruan. “Segapotoa izan baietz honek.”

– Lasai, nik badut telefono mugikorra. Nahi baduzu neronek deituko diot gruari. “je je, ni baino gazteagoa izango zara, baina ez zara batere modernoa.”

– Beno, molestia handia ez bada, asko eskertuko nia-ke. “Harritzekoa!, pijo bat segapotoarekin, honek behintzat nahiko majoa ematen dik, ez duk hasieran uste bezain mozoloa.”

– Ez, ez. Ez da molestia handia, minutu bateko kontua besterik ez da. “Hara, badirudi ez dela hasieran uste nuen bezain tipo kolgatua, nahiko jatorra dirudi”

Bip-bip-bip, bai orduan ... 15 minutu barru... ondo.

– Tira, hamabost minutu barru hemen izango direla dio. “Eta zer egin behar dugu guk tarte horretan?”

– Beno, ba, zain egon beharko diagu. “Zertaz hitz egingo ote dut nik tipo honekin?”

– “Agian nire txartel bat emango banio, hizketarako gaia izango genuke ...” E, tori, nire bisita txartela da, zer edo zertarako behar baduzu, hor dituzu nire helbidea eta telefonoa. “Ez dut uste ezertarako beharko duenik, baina, tira.”

– Ah! Eskerrik asko. Itxoin, agian papertxoren bat izango diat hemen, nirea jartzeko. “Ni ez nauk eta horren errefinatua.”

– Hartu beste txartel bat, eta atzealdean jar ezazu. Ai! Jesus, beherago ez zarete ba joango. “Ederra baldarkeria!”

– Lasai, lagunduko diat jasotzen. “Ez haiz, ez, oso esku trebea.”

– Mila esker. “Orain ere geratu naiz barregarri!”

– Hara, nor da argazki horretakoa? ezaguna zaidak.
“JODE! Markinarra duk hori; baietz, bera duk.”

– Hau? Nire neskalaguna da, Miren. “Non demontretik ezagutzen ote du honek?” Ezagutzen al duzu, bada?

– Ah! Ba, ez zekiat; agian Bilbon edo ikusiko nian.
“Hi, txo! Gaur egun ez zagok fidatzerik, honelako mutil lagun formala eta serioa eduki, eta bera ezezagunekin txortan! Izan ere, sexua onena duk!”

POESIA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

Sua sutan

Maite Uriarte Gil
Elgoibarko institutua
Elgoibar

Buruan
historia osoko asesinatzaileak dabilzkidanean
iruditzen zaitut eta
zu ere ez zara salbatzen
J.L. OTAMENDI

Ohe gainean etzaten zara,
bere gorputzaren beroa
desioen konplimendua.
Tristurak ez du biolinez jotzen,
galdu egin ditu partiturak...

Isiltasunak
zulatu egin dizkizu belarriak
nota hautsien egarri hutsez...

Ohe gainean...
Arnas hasperenak etengabe,
laster, urte bisustuetako musuak
sentitu ere ez dituzu egingo.

Oroimenaren pospoloa, azken argi-tanta
bere oihartzuna irentsi duen oihuaren kantoietan...

Aurrerantzean,
argia ez da zorigaiztoko doinu bat
besterik izango...

Kraterraren ezpain elurtsuak su ontzian
desegiten dira,
mantso-mantso
bizitzaren taupadaz,
eta akaso
zure arima anonimoa bortxatuko dute
inkontzienteki.

Hor dagoen iletxo hori
bere pubisekoa izan ote daiteke?

Denboraren azkazal zorrotzak,
grano bat bailitzan,
ametsa lehertzen dizute.

Zure ezpain lehorrak bustitzen dituen
ez da bere haziaren azken tanta,
zure lehen malkoa baizik.

Ken ezazu zure oinaze perfumatua
bere masail minduetatik,
aldendu beregatik,
bularra izozten dizun hatsa.

Semaforoan intermitentziak
prostitutei lana arindu nahian dabilta,
ñir eta ñir eginez
bezero tristeei,
negarrez
euritako mutuz estalirik,
zotinka
auto gurpilen doinu atsekabeaz.

Ardoak oroimenari zenbait adaska lapurtu dizkio
disimuluz,
okre monotoniatik ihesi.
desertuak urtetan ukatutako kolore-jauzien bila.

Bihotzean zauritu zaitu
odolusten ari zara,
plazerraren plazerrez aire husten,
begiak lausotzen,
denbora biriketan harrapatzen,
sor zitekeen oihua zure bularreko ikaran.

Ozeanoak malkoz beteta daude
maitasuna hutsune itoez,
eta semaforoan keinuz prostituten begiradak.

Sutan erre zenuen gorputza
suak hartutako zure gorputzaren klaskadan,
sua sutan itzal zedin.

Negar zotinek
oihuz itsatsi diote gauari bere izena ...
jai gabeen pozezko deiadarrak,
alargunen orgasmo etsituak,
sekula esnatuko ez den telefonoaren garrasia...
ez duzu aurrerantzean
entzun beharrik izango.

Entzudazu! Malko bakar batek
ezin du itzali
bere sexuaren kallagorriak eskainitako
sute itzela.

Argi amatatuetan itzal bat

Odei Arregi Izagirre
Ikasberri ikastola
Azpeitia



Ezohiko urduritasun
bati eskutik obaturik.
Oinak bata bestearekiko
lehian, lehenago nor iritsiko.
Baina pausu luzeegirik
eman gabe,
pausu bakoitza ongi
neurtuz, bizi.
Nire zapata hotsak
gela osoa beteko luke
gela hutsik balego,
baina jendearen hanka azpitik
ihes egiten dute
urduritasunez zipriztinduriko
hanka hotsok.
Lurrera so nabil
aurpegia ezkutatu nahi
inkontziente batez.
Oinak,
oinak eta oinak,
zapatak eta
oinak.
Besterik ez da
ene begien beltzean.

Hankak ibilian
gurutzatzen zaizkit
pentsamenduetan.
Takoidunak,
lokarri solteak
eta sandaliak
denak batera, etengabeko
pausu zaparrada.
Eseri egin naiz,
orain eskuak zulatzen
ditut nire begiradaz,
nire pentsamenduetan
oinak bat bestearen
gainean gurutzatu dira,
eskuen dantzari
leku utziz.

Argiak amatatu
dituzte.
Bat-batean gaua
egin da.
Gelako marmarra
ere itzali du
iluntasunak.

Orain krispetak
dabiltza berriketa bizian.
Irudiek pentsamendua
okupatu didate,
irribarre batek
ihes egin dit,
zailena eginik dago.
Ikuskizuna hasi da.
Fotograma herdoilduetan
odolez ziprztinduriko arima
itzalak bereiz ditzaket
whisky botila hutsen artetik.
Amodio hezeen kolorgeetan
bereiz ditzaket
arima hutsalok,
joko debekatuen
testigu fidel.
Zapataz beteriko zineetako eserlekuen pean
gordetzen diren marrubizko
txikleen ondoan
ezkututzen ditut nik
maitasun hitz
lapurtuak.
Filmeko protagonistaren
logelan,
poliziak nire arima
gaizkilea
bilatzen duen bitartean.

Bizitzaren drogak

Odei Arregi Izagirre
Ikasberri ikastola
Azpeitia

Hitzak nire ezpainetatik
suizidatzen soma
ditzaket,
isiltasunaren amildegian
oihartzun eginez.
Pentsamenduek
larre klandestinoetara
egiten didate
ihes,
bideko hanka marka urdinak
ezabatuz,
inoiz ez itzultzeko
intentzio antzuaz.

Badira izarrak
gau ilunean,
zirrikitu galduenetan
aurkitu ditut
inoiz bilatu gabeko
sentipen hitsak.
Ordulariek engainatu naute
eta denbora
ez dela pasa
sinetsi dut.

Sinetsi nahi izan dut.
Orain hondarrezko ordulariz
betetzen ditut poltsikoak,
nolabait denborari
bere izana lapurtu nahiz,
galdutako denbora
berreskuratzeko ahaleginean,
ahalegin ustelean.
Hiri galduetako
karrika hutsetan
ere badira
ametsez beteriko
zakarrontziak,
malcoek herdoilduriko
zakarrontziak.
Iribarre guztiek
gordetzen dute
sekreturik, pekaturik,
pentsamendu lizunik
eta begi guztietan
ikus daitezke
maitasuna eta gorrotoaren arteko
guda amaigabeak.
Guda isilak.

Asko dira
urtaroen joan-etorriak
ustelduriko promesak,
promesa ahaztuak.
Zerutik tximeleta hori gilotinatua
jausten diren egun horietan
ere badira
zubirik gabeko suizidak,
suizida frakasatuak.
Eta zer da, ba, bizitza
isuri gabeko malko
bat besterik,
zubirik gabeko suizida bat
besterik.
Oroitzen ditut
iragan gabeko
ordu haiek,
bizi gabeko
egun haiek.
Denborak bere baitan
gorderik izango dituenak
nonbaiten.

Gogoan ditut,
larre debekatueta
eginiko bidaiak,
entzun gabeko
maitasun hitzak.
Itzuli nahi nuke,
hegan eginez.
Eta atzeko patrikan
bilatzen dut
itzulera giltza,
orratzek nire oroimena
zultatzen duten bitartean.

Kafetegi gibeletan
arrosak ahazten dituzten
maiteminduak
inbidiatzen ditut.

Bizitzaren mandamentuak

Nagore Etxabe Iruretagoiena
Lizardi institutua
Zarautz

Zure sabeleko berotasunean
egin zenidan kabia
eta ezerezetik beste ezer bat
jaio zen,
NI,
alegia.

Dena zinen niretzako,
ni zuretzako ezusteko.

Sustrai bat bota nuen,
bota nizun,
eta zomorro gaiztoak bezalatsu
indar guztiz egiten nuen tira,
tabernetako lasto koloredunez
zurea zen dena,
orain nirea izango dena,
ezerez bihurtu arte,
harik eta edalontzia hustu arte.

Zu izan zinen nire bihotza,
nire birika,
habiatik irten nintzen lehen segundu haietan ere.
Zure izerdiak instantean gozotu ziren.
Min egiten nizun, baina
harro:
nire alaba,
horra!

Bat ginen oraindik, ordea,
erortzen zitzaizkidan odol malkoek ere
iturri bereko zure negar tantekin
egiten baitzuten bat.

Zure sabel gainean jarri ninduten
eta euria hasi zuen,
hasi zen
nire begi bietatik.

Ilargia itzali zen han kanpoan,
lokartu iluneko katu umezurtzak,
ito haize zakarraren hitzak.

Irribarrea izoztu zitzaizun zuri,
ama,
baina medikuak zorrotz begiratzen zizun
ai ama!
zure besoetan bilduz belarrira xuxurlatu zenidan:
Amaia,
eta bion arteko magari eman zitzaion
amaia.

Lehen arnasa hartu nuen,
nik bakarrik,
zure ahoaren beharrik
gabe, nire koloredun lastorik gabe.

Eta orduan konturatu nintzen
udan loretan egon ginen zuhaitza
udazkeneko lehen haize hotzekin
desegiten ari zela.

Ni nintzen ordea dena,
sustrai berriak errotu zituena.

Zu,
orritz betetako liburu bat zinen,
idatzia dagoeneko,
eta arnasa hartu nuen unean
bat erori zen,
nire beso zabaletan ximeldutako hosto bat,
ez bainuen jada horren beharrik.

Gaur,
negu hotzeko hezurdura biluzi bihurtu naiz,
zure orririk gabea.

Baina aspertu nau iluntasun
hotz
tristura
honek.

Ilargia eguzkia bezain lodi dagoen oro
kimuak irteten zaizkit,
loratuko nauen baten bila,
beltza zuri,
ekaitza eguzki eta
okerra ongi dagoela sinestaraziko didan
printzearen bila.

Eta nire amaren omenez,
berriz bat izango gara,
hosto eta zurtoin,
zurtoin eta hosto.

Baina berriz ilargia itzaliko da,
berriz lokartuko dira katu umezurtzak,
berriz itoko dira haize zakarraren hitzak
eta nire liburuko orriak
zoriz

(onez ala txarrez ez dakit)
udazken andereak eramango ditu.

Itsasgoran olatuek lapurtu
eta urak irentsiko nau
au
u.

Azken itsas bidaia

Maialen Sarasua Oñden
Santo Tomas Lizeoa
Donostia

Itsaso bat
jaiotzen da,
zure malkoetako batek
lur ernezko
begi ertzetatik
irrist
egiten dizun
bakoitzean.

Atsegin osoz
murgilduko nintzateke
bertan,
nire mihi puntaz,
uren gazitasuna dastatu...
Baina
beldur naiz,
itotzeko beldur,
gaziaren gaziz
eztarria eta bihotza
erreko zaizkidalako beldur.

Badakit
zuk eskurik
luzatuko ez didazula,
olatu artean
besarkatuko nauzula;
azken musu bat bailitzan
itsas haizearen hezetasuna,
nire masailean gora
nabarituko dudala.

Eta...
hondoratzen
ikusiko nauzu,
ekaitz haserrearen azpitik.

Eta...
ahaztuko nauzu,
makina kostatan
heriotza aurkitu duten
itsasontzi zaharrak
ahaztu diren legez.

Itsaso bat
jaiotzen da
zure malkoetako batek
lur ernezko
begi ertzetatik
irrist
egiten duen
bakoitzean.

Nire azken trabesiara
naraman ontzitik,
azken agurra
luzatzen diet
zure begiei.
Masail borobiletan barna,
itsaso bareegi batek
azkena gertu dudala
aditzera ematen dit.

Ezpain dardaratien
gainetik kulunkatuz,
labar aurreko
azken muinoan
kokatzen naiz
une batez.
Atzera
begiratzen dut,
begiak itxirik dira jada...

Ulertzen dut, maite,
egizu putz ...
Itsasoa
nire azpitik
tolestatuz
hobirik sakonenean
betiko galtzen naiz,
eta betiko
galtzen zaitut zu,
eta, zurekin,
paradisu amestua.

POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

Udazkeneko oster

Oihan Zubizarreta Iribecampos
San Frantzisko Xabier ikastola
Arrasate

Udazkeneko oster hartan,
haizeak ekarri zituen
zuk bidalitako muxuak.
Haizearen ferekek
laztandu,
besarkatu egin ninduten eta.
Berehala joan ziren muxuok,
haizearekin batera,
hegan.
Nik zerura begiratuz
eta eskuak altxatuz
lainoa harrapatu nahi nuen.
Haizearekin bat,
zure muxuekin bat,
zurekin bat,
hegan joateko.
Urrunean ere,
bakardadean,
maite zaitudalako,
alboan gura zaitudalako.

Udazkeneko oster hartan,
euri tantek zure hitzak
ekarri zituzten.
Ene aurpegian kolpatuz,
belarrira xuxurlatuz.
Ostadarrak irri egin zuen arte
zeruan,
eta euriak
ez zuen hitz gehiago esan.
Zure hitzen jarioa
atertu egin zen.
Ostadarrari heldu nahi nion,
eta jauzi egin nuen
zure kolorez,
maitasun kolorez,
lainoak margotzeko.
Bion maitasuna,
mila kolorez
bustitzeko.

Udazkeneko osteran hartan,
amets egin nuen,
eta izarren artean,
beste izar bat zinelarik,
nire bidea argiztatu zenuen.
Ilargia nintzelarik,
keinu egin zenidan
eta...
ekiaren esnatzea
batera ikusi genuen.
Argi printzek,
urtu gintuzten arte.

Gaur gauez,
“Udazkeneko ostera” batekin
amestu dut.

Biok batera,
elkar maitatuz,

Barre,

Amets,

Negar,

egin dugu.

Haizezko laztanetan,

Eurizko hitzetan,

Izarrezko ametsetan,

ITO

GAREN

mAitatu

baRe

ameTs

nEgar

Minbiziari

Oier Zurutuza Arin
Loinazpe institutua
Beasain

I. Oso mutiko ederra nintzen
pausoa nuen arina
neska kontutan abila eta
benetan dantzari fina.
Herriko neskek euren errege
nindutenean egina
gaixotasunak ebatsi zidan
nuen bizitzeko grina.
Gaur ohea dut tronoa eta
burukoa erregina.

II. Beti ohean atsedentzea
ez zait egiten erraza
nire bizitzak galdu zituen
bere piperra ta gatza.
Berdinak dira egunsentia
eguerdia ta arratsa
agortzear da itxaropenez
bizi iraun nauen hatsa
daukadalako bizi nahi eta
hilik dagonaren antza.

III. Non da lehengo suhartasuna,
non da lehengo indarra?
amaitu zaizkit gaztetasunak
ta sentitzen naiz zaharra.
Beti barrenak jaten dabilkit
gaixotasunaren harra
eguneroko bizitza ere
ez zait egiten edarra
eguzkitik eguzkira hemen
ohean egon beharra.

IV. Alde batera utzi nahian
minbiziaren morrontza
husturik daukat jada barrena
eta sentitzen dut hotza.
Ilea zuri, azala lehor
lakartua zait ahotsa
agorturik ditut esperantzak
agorturik bizipoza.
Behin betirako deskantsatzera
baitoa nire bihotza.

V. Gazte nintzela minbizia bat
barnean zitzaidan sartu.
Mutiko alai zoriontsua
lehor zuen bilakatu,
lehen nituen lagunak ere
dira nirekin nazkatu.
Gainera nire bizitzarekin
behar du orain bukatu
gaixotasunak kendu didana
ezin dit inork bueltatu.

VI. Nahiz ta oraindik ez dudan galdu
erabat itzaropena,
esango nuke horixe dela
geratzen zaidan onena,
buru barnea lasai dut oso
benetan bare barrena
joanak zaizkit beldur guztiak
joana zait nuen pena
dakidalako atea jotzen
dabilkidala azkena.

VII. Hainbeste urte badaramatzat
gaixotasunaren menpe
minbiziaren maizter leiala
naizela esan liteke.
Gehienez ere geratzen zaizkit
bizpahiru hilabete
egoera hain miserablean
ni nola egon naiteke:
Hiltzear eta bizitza zer den
oraindik probatutzeke.

VIII. Badakidanez laster naizela
hilerrirako bidean
heriotzaren esku ankerrak
heldu bainau bat-batean
momentu oro sufritutzen dut
hemen nagoen artean,
gauza bakarra amets nezake
zerurantz hurbiltzean
San Pedro hantxe egongo dela
esku zabalik atean.

Bizitza amets; eta zu?

Ion Muñoa Errasti
Loinazpe institutua
Beasain

Bizitza, amets balitz,
amets soila litzateke,
baina, ametsa bizi balitz,
egia litzateke.

Horregatik, zara zu,
egia izan nahi duen
amets soila.

Zu nirekin zaitudanean,
udaberrian sasi artean,
ozta-ozta bizi den gereziondoaren
lore zurixkak,
agor bilakatzen
hausten
txikitzen
puskatzen
desegiten
eta birrintzen
dituen ekaitzaren gisakoa,
nire bihotzaz jabetzen da.
Egia izan nahi duen
amets soila zarelako.

Zu nirekin ez zaitudanean
desira zaitut,
denaren gainetik
amesten zaitut,
zure presentzia
behar bilakatzen zait
eta orduan...
nirekin ez zaudela ikusita,
egia izan nahi duen
amets soila zarela
ohartzen naiz.

Gure haragiaren kontaktuan,
zure ezpainen zartadura
nire bihotzaren pitzadura
bihurtzen da,
bion arteko pasioa,
ezerezaren sentsazioa,
eta
gure besarkada
itxurakeriaren dardara.

Eta orduan ere ohartzen naiz
egia izan nahi duen
amets soila zarela.

Hain gertukoa zaitudalarik,
urrun ikusten zaitut;
ukitu zaitzakedalarik
ortzadarraren isla zatzaizkit.
Maitasunaren egiatasunari
itogina dario,
gezurrarekin estaltzen den itogina.
Maite zaitut,
baina ez behar adina
behar zaitut,
baina ez maite adina;
Huts-huts eta soil-soilean
egia izan nahi duen
amets soila zarelako.

Zuhaitza

Amaia Laka Arozena
Garaialde lizeoa
Urretxu

Nire begien aurrean zaitut,
beso ugariko gizon,
zure gorputz sendo eta mardulaz,
zure beso arin eta mugikorrez,
zure hatz fin eta hauskorrez.
Hor zaude beti,
ene etxe ondoko lorategian,
berdin da
negu, uda,
eki, euri,
ilun, argi,
isiltasun, iskanbila
bakardade, jendarte
sekula eta beti bertan zaitut,
nire aldamenean,
nire ahotik hitzak
noiz aterako zain.
Hor dabilta dantzan
zure beso eta hatzak
zerutik datorren haize hotz
zein beroaren agindupean,
batzuetan soka batzuk bailiran
hutsari zartadak emanaz,
besteetan dantzari zehatzak bailiran
erritmo berean mugituz.
Noizean behin,
hor egoten zara:

hezurretaraino bustia,
hotzez dardarka,
ttanttanak zure gorputz ataletan zehar
pasioan dabilzala,
batzuek puenting eginez bezala
salto eginez...
hala ere,
zuri ez dizu axola,
ikaragarri laket baituzu
zuri kilimak egitea.
Zure besoen gainean
egon ohi diren
txorien kantuak entzutea
biok dugu atsegin
baina nik ezingo dut inoiz
euren oinek zukan
sentiarazten dutena sentitu.

Izugarri gustatuko litzaidake,
egun bakar batez balitz ere,
zu ni izatea,
ni zu izatea,
gorputzak elkar trukatzea.
Pentsa ezazu,
zuk, hamabi urteko haur batek,
egun osoan zehar eginiko oro
egin ahal izango zenuen:
eskolara joan,
hitz egin,
jolastu,
amestu,
pentsatu,
usaindu,
sentitu,
entzun,
ulertu...
Eta nik, aldiz,
zer egingo nuke?
esaterako:
txorien txorrotxioekin esnatu,
natura
eta jendea behatu ...
eta nola ez, hegaztiak
nire besoen gainean pausatzean
egingo lizkidaketen kili-kiliez gozatu.

Hesiak gaitzen

Nagore Arriolabengoa Bengoa
Arrasateko institutua
Arrasate

Ene bakardadeko iluntasunean,
oroitzapenen kutxan arakatzean
zuk emandako larrosa aurkitzen dut.
Bi petalo dauzka soilik
zurea, eta nirea,
maitasunez elkartuak,
baina burdin hesi batez bananduak.

Ezintasunaren jopu,
Zergatia jakin ezean.

Zergatik ezin ditut ahaztu
zurekin igarotako gau basatiak,
konpartitutako Kontxako iluntzeak,
zure begirada eztia
eta gorritzen ziren masailak...
Zuk xuxurlatutako hitz goxoak,
horiexek, hitz horiexek dira
mugarik gabeko arraitasun eroan
punpulatzen nindutenak,
jadanik gaur galaraziak
ez zaudelako nirekin.

Zure mihi hezea
nirearekin korapilatzea dut desio,
zure malko gaziak
lehortzea nahikari,
zure gorputza
nirearekin desegitea gura,
dena, ordea, ezinezko,
amets hutsa,
haize ziztuekin
desegiten dena.

Zu burdin sare batean preso
eta ni mundu zabalean bakarrik
zure maitasunak giltzaperatua, zergatik?

Etsipenaren morroi,
erantzuna aurkitu ezean.

Ez al zara konturatzen,
ene ttiki laztana,
maite,
desio zaitudala?
Ez, ezin duzu
urrunegi baitzaude atxilotua,
atxilotu eta erbesteratua.

46 ordu errepidean,
10 minutu zurekin
beira batek apartatzen gaituelarik.

Maitasun bila dabiltzan
bi noharroin gara,
ezarpen ezberdinekin, ostera,
zu hor, ni hemen.

Isuritako malkoek
gure larrosa lilitu,
eta hauen sustraiek
gure arteko hesia gainditu,
hostoek,
burdinazko eten hau
Erromako zubi bihurtuko dute.
Lorearen altzoan kulunka gaitezen...
kulunka gaitezen... betiko.

URRZUNOTARRAK

1986-2001

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Agirre Aranguren	Iraitz	Ohore Galdua	1998	115	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Burua tente mutilak!	1999	81	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Maite duen orok...	2000	19	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Gorrotoaren mendekua	2000	27	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	La dolce vendetta	2001	19	Prosa
Agirre Arriolabengoa	Manex	Aitona	1997	155	Prosa
Agirre Elgarresta	Martin	Idazmakina bakarti baten azken narrazioa	1986	11	Prosa
Agirre Larrea	Antziñe	Irrati baten gora-beherak	1986	55	Prosa
Agirre Lazkanoiturburu	Mikel	Zergatik?	1989	143	Poesia
Aizpiolea Martikorena	Maialen	Azken orbela	1997	145	Prosa
Aizpiolea Martikorena	Maialen	Zerua negarrez denean	1999	19	Prosa
Aizpuru Segurola	Kristina	Isiltasunaren oihartzuna	1999	65	Prosa
Aldabaldetrekua Etxeberria	Gotzon	Itzultzerik gabeko bidaia	1993	97	Prosa
Altuna Angiozar	Nekane	Niregandik urrun	1987	95	Poesia
Altuna Angiozar	Nekane	Baldin argia ikustera iristen banaiz	1988	117	Poesia
Altuna Jauregi	Karmele	Praisku mutil zaharra	1986	99	Poesia
Altuna Jauregi	Nuria	Bizitza horrela delako	1987	11	Prosa
Alvarez Gerriko	Ion	Betidanik, betirako	1990	155	Poesia
Alzate Azpiroz	Jon	Zozketagai xelebrea	1992	103	Prosa
Alzugarai Sacristán	Aitziber	Zergatik?	1988	167	Poesia
Amondarain Ipiña	Gaizka	Margotu ninduten	1999	193	Poesia
Amondarain Ipiña	Gaizka	Urtaroen klandestinitatean, zu	2000	137	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Gogoratzen haiz	1995	195	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Malekoitik so	1997	185	Poesia
Amozarrain Mendizabal	Idurre	Pentsamenduak	1995	201	Poesia
Anzizar Lizarraga	Nerea	Blues bat gauaren iluntasunean	1997	35	Prosa
Apaolaza Goena	Amaia	Amaigabeko itukin latzak	1992	17	Prosa
Apaolaza Goena	Amaia	Zaharra berri... orain eta beti	1993	59	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Apaolaza Larrea	Uxue	Azken bost minutuak	1996	77	Prosa
Aranburu Aseginolaza	Iñigo	Sahatsaren azken negarra	1987	19	Prosa
Aranburu Aseginolaza	Maria	Bi hitz nire pentsamenduen maizterrari	1990	113	Poesia
Aranburu Zeziaga	Xabier	Hiriaren ostadarra	1989	113	Poesia
Aranguren Juaristi	Olatz	Aztiaren eskuetan...	1996	125	Poesia
Aranguren Mujika	Josune	Ni ez naiz Amaia	1997	65	Prosa
Aranguren Oiharzabal	Ainhoa	Gauaren atsedean isila	1989	171	Poesia
Arbelaitz Lekuona	Usua	Helmugara iristea, hori da kontua	2000	77	Prosa
Arozena Velez	Maite	Aita, zer gertatzen zaio munduari?	2001	73	Prosa
Arratibel Galartza	Enara	Begi ditziratsiak	1995	49	Prosa
Arregi Elosua	Ainhoa	Konfidantzaren ordaina	1988	41	Prosa
Arregi Izagirre	Odei	Itsasoaren besoetan	1999	169	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Amets gaiztoetatik ihesi	1999	175	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Sentimentuetan galdurik	2000	177	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Aingeruen negarra	2000	183	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Argi amatatuetan itzal bat	2001	159	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Bizitzaren drogak	2001	165	Poesia
Arrese Iturbe	Olaia	Maitemintzearen gaztigua	1993	175	Poesia
Arriolabengoa Bengoa	Nagore	Hesiak gaintitzen	2001	211	Poesia
Arrizabalaga Linaza	Mirari	Zereko zera zertzeko	1986	105	Poesia
Arruebarrena Lizarralde	Miren Gurutze	Iluntasuna	1994	179	Poesia
Arruti Arruti	Iñaki	Amaierarik gabeko gutuna	2001	47	Prosa
Arruti Arruti	Iñaki	Balbea errekak bere bidea darrai	2001	61	Prosa
Arruti Errazkin	Idoia	Ametsen Bakardadean	1998	63	Prosa
Arruza Elgezabal	Amaia	Naturaren legea	1988	49	Prosa
Artetxe Arrien	Ainara	Isilpean bego Anttonen itxura	1988	89	Prosa
Artola Iriondo	Mikel	Nagusia eta hirurok	1992	87	Prosa
Artolazabal Amilleta	Amaia	Beltza ez delako hain beltz eta zuria ilunago	1996	195	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Artolazabal Amilleta	Amaia	Iluntasunean lorea zimeltzen den lez	1997	221	Poesia
Artolazabal Amilleta	Amaia	Denborak ez du astirik	1997	237	Poesia
Asurabarrena Zipitria	Lierni	Aitonaren heriotza	1996	137	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Igor	0 14	1991	155	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Iñaki	Merezi al du paradisuak?	1987	101	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Leire	Zure zain	1996	153	Poesia
Auzmendi Agirre	Agurtzane	Omnia vincit amor - maitasunak dena garaitzen du	1990	161	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Jaiotza bat	1996	171	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Garaiak	1996	187	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Desgaraiko olerki zentzugabe solteak	1996	213	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Zer dakarkit erreka urak zure negar malakoak ez badira?	1997	163	Poesia
Ayllón Corral	Mikel	Zure xerka	1995	187	Poesia
Azkarate Egaña	Belen	Amona, egia ote?	1990	19	Prosa
Azkue Ibarbia	Xabier	Azken hitzak	1987	107	Poesia
Aztiria Etxeberria	Nekane	Lamintxo	1986	17	Prosa
Azurmendi Lasa	Ane	Zaharrak berri	2000	83	Prosa
Babiano Lpz de Sabando	Mikel	Oroitzapenak	2001	105	Prosa
Barbantxo Galdos	Iñigo	Soinu izoztuak	1999	123	Poesia
Baroja Arrue	Miguel M ^a	Apokalipsis 1913	1994	25	Prosa
Basterra Fernandez	Ainhoa	Bihotzeko kontraesanak	1986	26	Prosa
Bastida Loinaz	Ana Isabel	Igande gau batetako eztabaida imaginarioa	1987	29	Prosa
Baztarrika Otegi	Unai	Etenaren trilogia	2000	157	Poesia
Beloki Lizarralde	Leire	Itsasoaren menpean	1994	185	Poesia
Beloki Lizarralde	Leire	Amodioaren desterruan	1995	211	Poesia
Bengoa Santxo	Mikeldi	Zu eta ni (hiria medio)	1988	135	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Etorkizunaren lurraldean	1997	193	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Atzera begira	1997	199	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Zure gorputzaren abenidetan galduriko azken intifada	1997	205	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Benito Aranberri	Jon	Amaraun Anonimoetan	1998	177	Poesia
Beobide Azpeitia	Begoña	Abestiaren argia	1989	161	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Amodioaren itsasoa	1990	145	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Auñamenditik zure leihora	1990	151	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Amodioaren sehaskan	1992	161	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Poesiaren magalean	1992	167	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Iraunen dute	1993	169	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Kimeraren harresietan	1994	137	Poesia
Betzuen Arana	Kepa	Seiak eta hamar	1995	113	Prosa
Bilbao Barruetaña	Leire	Herioaz maitemintzean	1995	165	Poesia
Bilbao Barruetaña	Leire	Denboraren denbora	1996	117	Poesia
Bilbao Barruetaña	Leire	Farolpeko itxoitea	1996	161	Poesia
Bilbao Barruetaña	Urki	Beltz	1998	217	Poesia
Bitorika Albizu	Arkaitz	Bat-batean baturik	1994	167	Poesia
Bizkarguenaga Jugo	Amaia	Itsastar baten gogoetak	1996	145	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Jazza dut maitale	1991	109	Prosa
Cano Jauregi	Harkaitz	Denboraren hautsontzian	1992	127	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Amodioa, gorriz jantziriko emagaldut hori	1993	125	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Erresuma ahituak	1993	133	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Jitolore	1993	45	Prosa
Cano Jauregi	Harkaitz	Kaosaren abantailan	1993	143	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Urak ekartzen duena	1993	183	Poesia
Collado Legorburu	Sergio	Leihotik begira	1994	115	Prosa
Churruca Fernandez	Xabier	Boga-boga sareetan	1988	81	Prosa
De los Mozos Olaizola	Izaskun	Semeak beti seme	1990	131	Poesia
De los Mozos Olaizola	Izaskun	Heriotza	1988	155	Poesia
De Miguel Arnaiz	Olatz	Amaren Heriotza	1998	205	Poesia
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Esan al dizut inoiz...	1994	173	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Orkidea beltza	1995	131	Poesia
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Gau euritsu batean ezagutu nuen	1993	87	Prosa
Egiguren Imaz	Izaskun	Aitorpenak ilunabarrean	1988	11	Prosa
Eguren Etxabeguren	Iñaki	Hallelujah! Hallelujah!	1991	117	Poesia
Elduaien Uranga	Estitxu	Bizitzan hamazazpi urte	1993	113	Prosa
Esnal Badiola	Aitor	Eguna	1988	123	Poesia
Esnaola Aldanondo	Iratxe	Garraisi mutuak	2000	149	Poesia
Esnaola Aldanondo	Iratxe	Egun arrunt bat gehiago	2001	53	Prosa
Esnaola Aldanondo	Iratxe	Gau Hotza Eta Lainoa	1998	127	Prosa
Esnaola Goienetxea	Mateo	Ezkortasun boladetako gogoetak	1986	111	Poesia
Estankona Bilbao	Igor	Kondairak dioenez	1992	95	Prosa
Estevez Fernandez	Monica	«The beautiful life of the drugs; very-very beautiful life...»	1996	181	Poesia
Estévez Fernández	Mónica	Lehenaldia ahazten, oraina bizitzen	1995	223	Poesia
Estévez Fernández	Mónica	Desioan galdu arte	1997	177	Poesia
Estévez Fernández	Monika	Poetaren Bidea, Amaierarik Gabeko Kalea...	1998	153	Poesia
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Udazkeneko arrats euritsu bat	1994	63	Prosa
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Au revoir, maitea	1995	29	Prosa
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Azken trenaren zain estazioan	1995	19	Prosa
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Bekatuaren isurkia	1995	57	Prosa
Etxabe Iruretagoiena	Nagore	Bizitzaren mandamentuak	2001	171	Poesia
Etxaniz Iraola	Ainitze	Ametsa egi	2000	43	Prosa
Etxebarri Coello	Aritz	Burruka	1988	149	Poesia
Etxeberria Yoldi	Naiara	Badajoztik edonora	1994	81	Prosa
Etxezarraga Ziarrusta	Irantzu	Arbasoen ahotan	1991	19	Prosa
Etxezarreta Etxarri	Enekoitz	Nire baitakoa zara	1999	159	Poesia
Ezeiza Ramos	Ainhoa	Idazle proiektu baten aburuak	1989	25	Prosa
Ezkiaga Iparragirre	Amaia	Heriotz Andereak zuria du laket	1990	39	Prosa
Fernandez Jauregi	Ander	Bakardadearen miseria	1999	53	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Ferreiro Villaluenga	Daniel	Zakurra	1998	105	Prosa
Ferreiro Villaluenga	Daniel	Maite Bengoetxea begira zegoen	2000	61	Prosa
Franko Sudupe	Jaione	Zerutar inperioaren zedean	1988	97	Prosa
Galarraga Aiestaran	Patxi	Oihartzun eta tenk	1989	121	Poesia
Galarraga Aiestaran	Patxi	Taiga eta Zorrilla	1989	127	Poesia
Galarraga Aiestaran	Patxi	Une hartan... eta orain	1990	137	Poesia
Galdos Arrondo	Olaia	Agurraren lezioa	1994	17	Prosa
Galparsoro Sarriegi	Ainhoa	Pailazoak irrifarra galdu du!	1992	61	Prosa
Ganzarain Etxaniz	Xabier	Ziutate postmoderno historiagabea	1992	55	Prosa
Garcia Aretxabaleta	Alexander	Fraileen arteko kontuak	1996	93	Prosa
García Berasategi	M. Jesus	In memoriam	1992	141	Poesia
Garcia de Cortazar	Miren	Hutsune eta itxaropen	1987	35	Prosa
Garcia de Kortazar Agirrezabal	Jon Ander	Azken etapa	1992	69	Prosa
Garmendia Etxabe	Jaione	Markel	1986	31	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Bakarrik	1996	87	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Sei Puntako Izarra	1998	33	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Txantxangorriaren Kantua	1998	53	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Laztana	1999	37	Prosa
Garmendia Munduate	Larraitz	Amodioaren garapena	1992	155	Poesia
Gil Munarriz	Jorge	Izarren izenean	1997	123	Prosa
Gil Munarriz	Jorge	Heriotzak Ez Zekiena	1998	143	Poesia
Gil Munarriz	Jorge	Metro	1999	137	Poesia
Goenaga Jauregi	Jon	Gertaera arraroak	1991	89	Prosa
Goia Imaz	Garazi	Amodioaren pasioa	1996	49	Prosa
Goikoetxea Asurabarrena	Ekaitz	Gauaren Ilunduran	1998	187	Poesia
Goikoetxea Asurabarrena	Irati	Asko maite duenak asko sufritzen du	1999	187	Poesia
Goikoetxea Asurabarrena	Irati	Koloreak, bizitzaren arima	2000	167	Poesia
Goikoetxea Gezuraga	Josu	Frenopatiko triste eta eroa	1991	123	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Goikoetxea Gezuraga	Josu	Azken fotogramak	1992	121	Poesia
Goikoetxea Zabaleta	Idoia	Björkeport maldizioa	1999	101	Prosa
Goitia Pastor	Leire	Galdutako bihotzaren bila	1989	79	Prosa
Gómez Alonso	June	Gaueko kronika bat	1997	131	Prosa
González García	Kristina	Errugabea	1998	77	Prosa
Gonzalez Montero	Claudia	Betiko maitasuna	2000	107	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Leticia	1997	111	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Londresko Bluesik Ederrena	1998	69	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Baserritik	1999	29	Prosa
Gorrotxategi Azkune	Miren	Herio	1997	229	Poesia
Gurrutxaga Uranga	Amagoia	Bi eguneko egunkaria	1986	71	Prosa
Gurrutxaga Zubimendi	Iñaki	Espaloia	1999	43	Prosa
Ibargutxi Gisasola	Lierni	Holyhead en gertatu zena	1991	99	Prosa
Imaz Ganzarain	Itziar	Bizitzaren egia	1991	69	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Fenixaren pabeiloia	1986	61	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Montparnasse-ko usoak dira igaro	1989	31	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Zentzu eta funts	1989	135	Poesia
Intxausti Ormazabal	Garbiñe	Heriotzaren magalean banengo	1989	177	Poesia
Iribarren Aristizabal	Ibon	Romeo eta Julio	1992	41	Prosa
Iribarren Aristizabal	Ibon	Erretratua	1993	27	Prosa
Iribarren Aristizabal	Ibon	Okerreko gaua aukeratu nuen maitemintzeko	1993	149	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Behin betiko	1993	193	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Bizi baihaiz	1993	207	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Metalezko zuhaitzak belaze berdeetan	1994	145	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Amodioaren frentean hildako azken soldaduari	1995	145	Poesia
Iturriaga Zugaza-Artaza	Unai	Gaua eta zu	1992	135	Poesia
Iza Totorika	Ibon	Zaparrada lehorra	1991	51	Prosa
Jauregi Larrañaga	Aitor	Ahotik ere ihes egiten dun	1989	167	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Jauregizuria Lopez	Maidier	Zu ez zaudenean	1990	57	Prosa
Kano Ormazabal	Nagore	Emagalduek deitzen gaituzten horiei	1990	75	Prosa
Kastañares Etxezarreta	Asier	Itsasoak daki	1989	151	Poesia
Laka Arozena	Amaia	Zuhaitza	2001	205	Poesia
Landabidea Urresti	Xabier	Sua	1997	215	Poesia
Larrabide Elexpuru	Leire	Opari misteriotsua	1995	103	Prosa
Larrañaga Ormazabal	Ane	Alaba galdua	1996	39	Prosa
Larrañaga Ormazabal	Ane	Laura	1997	23	Prosa
Larrañaga Zabaleta	Oihana	Zugatik	1995	87	Prosa
Larrarte Otegi	Miren	Panpina bat besterik ez	1989	41	Prosa
Lazkano Orbegozo	Aitzpea	Eguzkiak begiratu eta irri	1989	11	Prosa
Legarreta Gorroño	Jon Haitz	Gizateriaren urratsak	2001	33	Prosa
Leiaristi Guenaga	Amaia	Ihes betea zilegi balitz	1988	27	Prosa
Lekuona Artola	Eneko	Askatasunaren bila	2001	87	Prosa
Leturia Iurrita	Iñaki	Genesi	1987	45	Prosa
Lizaso Urrutia	Maidier	Zu eta ni zigarroa medio	1991	59	Prosa
Loidi Garitano	Ane	Infernu berotik	1987	115	Poesia
Longarte Arriola	Maria	Fiat voluntas tua	1992	25	Prosa
Lopetegi De la Granja	Ekhi	Garai bateko hondarrezko erloju goibela...	1999	181	Poesia
Llona Ormaetxe	Idoia	Gizonak egin eta apurtu zuena	1987	53	Prosa
Madina Milikua	Txomin	Faroko zoroa	2000	35	Prosa
Madina Ugartemendia	Mikel	Ezetzta	1990	173	Poesia
Maiztegi Landa	Haize	Bizitza txuri beltzean	2000	119	Prosa
Makazaga Eraña	Nerea	Ilunbeko Neska Txikia Eta Hegoak	1998	211	Poesia
Makazaga Eraña	Nerea	Kolorezko bideak	1999	131	Poesia
Malagon Zaldua	Ana	Beleak kontaktzen	1994	87	Prosa
Malagon Zaldua	Ana	Beti mugan, zerbait ulertu nahian	1996	19	Prosa
Malagón Zaldua	Ana	Maitasunaren beste definizioa	1995	37	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Manterola Arostegi	Nere	Bizitzeko arrazoia	1991	77	Prosa
Martin Iriondo	Amaia	Txori bati begira	2000	143	Poesia
Martinez Zabalegi	David	Zerurako bide bi	1999	89	Prosa
Mendia Usabiaga	Saioa	Denboraren ganbara	1994	97	Prosa
Mendieta Lasarte	Arantxa	Akatsa	1988	61	Prosa
Mendieta Lasarte	Arantxa	Autobeldurtze prozesua	1989	63	Prosa
Mendieta Lasarte	Arantxa	Azken gogoetak	1990	29	Prosa
Mendikute Zulaika	Maitane	Itsu zulora	2000	91	Prosa
Mendiolha Agirre	Aitzol	«Oficialdegui-k orhoitt ükhenen dü Santi Unzueta «»vasco»»-a»	1991	37	Prosa
Mitxelena Albisu	Inge	Kutxa zahar baten istorioa	1986	77	Prosa
Mitxelena Albisu	Inge	Ander	1988	21	Prosa
Muguruza Sarasua	Lorea	Musika baino pista hoberik non?	1999	73	Prosa
Muguruza Sarasua	Saioa	Udazkeneko bakardadea	1991	147	Poesia
Muñoa Arrigain	Karmele	Ametsondoa eta gero	1994	123	Poesia
Muñoa Errasti	Ion	«Bizitza amets; eta zu?»	2001	199	Poesia
Muruaga Lejona	Ainhoa	Superbizipenaren burruka ikaragarria	1990	101	Prosa
Negeruela Izagirre	Ainhoa	Maitasun poesia	1992	147	Poesia
Oiarbide Aldasoro	Asier	Amodio gorrotagarria	1988	111	Poesia
Oiarbide Aldasoro	Asier	Premio santu hura	1988	129	Poesia
Olabarri Aldape	Iñigo	Orbaindu gabeko zauriak	1988	161	Poesia
Olaizola Gabirondo	Jurgi	Gaztelua	1996	103	Prosa
Olaizola Gabirondo	Kati	Xabi eta Fermin	2001	141	Prosa
Olarra Allika	Gotzone	Poema sozialen artean amodiozkoren bat	1986	123	Poesia
Olaskoaga Bereziartua	Naiara	Ume baten bizia nire eskuetan	1994	109	Prosa
Olaskoaga Bereziartua	Naiara	Zoriona, maitasuna	1996	55	Prosa
Olazabal Elorza	Arantzazu	Garaia	1986	133	Poesia
Ormaetxea Irleta	Amaia	Familia baten beharra	1987	59	Prosa
Ormaetxea Irleta	Amaia	Iraganarekin topo egitean	1989	93	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Ormaetxea Irleta	Amaia	Maitasun gorrotatua	1989	183	Poesia
Ornoz Antxordoki	Belen	Plisti plasta	1990	167	Poesia
Otaduy Zubizarreta	Juan Pedro	Iraganetik datorren ekaitza	1994	37	Prosa
Padron Plazaola	Araiz	Denborak ez du dena sendatzen	1991	131	Poesia
Padrón Plazaola	J. Luis	Ilargi gabeko kalea	1987	121	Poesia
Padrón Plazaola	Araiz	Pago zaharraren azken arnasa	1993	155	Poesia
Paia Ruiz	Alfredo	Oroitzapenak	1999	145	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Tontoarena	1997	245	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Dakitenek Jakingo Balute	1998	227	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Lau bekatu hilezkor	1999	151	Poesia
Panizo Saiez de Maturana	Amaia	Luis XIII.ari, xake	2000	53	Prosa
Paya Ruiz	Xabier	Agur laztana	2000	131	Poesia
Peruarena Ansa	Mikel	20 eta 12	1995	173	Poesia
Pikaza Irigoien	Nora	Zentzugabeko paktua	1986	91	Prosa
Quintana Martinez	Paloma	Beste mundua ezagutzen	2001	121	Prosa
Redondo Pares	Laura	Gau hartan... iluntasunean	1989	85	Prosa
Rios Bernaola	Itziar	Amets gaiztoa	1987	71	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Ilunabarreko kantu malenkoniatsua	1997	85	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Aneren Kaiera	1998	19	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Hogei hilotz	1996	65	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Eternitatearen Memorian	1998	167	Poesia
Salinas Elosegí	Aitziber	Ibai baten esamesak	1992	113	Prosa
Salinas Elosegí	Aitziber	Mercedesdunaren seme ez zena	1993	107	Prosa
Sansinenea Aizpurua	Ainhoa	Heriotzaren oihua	1990	91	Prosa
Santiago Arizaga	Mikel	Hosto bat bailitzan	1989	17	Prosa
Sarasua Oliden	Maialen	Azken itsas bidai	2001	179	Poesia
Sarobe Txopeitia	Leire	Beharrezkoa	1990	65	Prosa
Sarriegi Galparsoro	Aitor	Galeperrak espazioan	1991	137	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Sarriegi Galparsoro	Aitor	Horizontea	1991	143	Poesia
Sarriegi Galparsoro	Aitor	Ardi galduaren malkoak Urepeleko artzainari	1993	161	Poesia
Sariugarte Lasarte	Aingeru	Sineskeriaren egutegia	2000	99	Prosa
Sudupe Rodriguez	Maidier	Azken agurra	1995	65	Prosa
Tolosa Eizagirre	Egoitz	Gatibuari Kantua	1998	195	Poesia
Torres Renedo	Xabier	Nahitaez	1991	29	Prosa
Ugarte Zubizarreta	Larraitz	Teilen auzipean	1994	153	Poesia
Ugarteburu Plazaola	Ainhoa	Askatasun taupada	2001	131	Prosa
Urbizu Uribe	Nagore	Itsaso amaigabe hartan	1987	79	Prosa
Urbizu Uribe	Nagore	5B: bizi-tza beltz bat beltzen bizi-tza	1988	71	Prosa
Urbizu Uribe	Nagore	Argi bi	1988	143	Poesia
Urbizu Uribe	Nagore	Jostailu berria	1990	47	Prosa
Uriarte Gil	Maite	Noraezean	2000	189	Poesia
Uriarte Gil	Maite	Sua sutan	2001	153	Poesia
Uribesalgo Urizar	Larraitz	Askatasunaren negarra	1993	67	Prosa
Urkia Garmendia	Larraitz	Errege etzana	1992	77	Prosa
Urkizu Mendiola	Jone	Addis Kiptum	1994	73	Prosa
Urkizu Mendiola	Jone	Ihesi	1995	95	Prosa
Urrestilla Urizabal	Jon	Ostiral gau bat	1992	31	Prosa
Urrutia Urteaga	Maite	Noraezean	1998	135	Prosa
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Zerutik maiteari	1992	173	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Behin heldu hintzen	1993	199	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Amodio poema bat -gehiago-	1994	131	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Argazki horizatuak	1994	159	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Abazuzien pien	1995	157	Poesia
Urzelai Izagirre	Gorka	Bizitzaren gurpilean	1990	119	Poesia
Villena Camarero	Unai	Bakardadearen itzaletan	1996	219	Poesia
Villena Camarero	Unai	Naturaren muga herdoilduak	1997	169	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Villena Camarero	Unai	Odola	1998	45	Prosa
Vives Urbieta	Alaitz	Aretoaren izkin batean	1993	17	Prosa
Yurrebaso Pikaza	Iker	Ai! Bixente, Bixente	1995	121	Prosa
Yurrebaso Pikaza	Iker	Benta ilunetan da nire gogoa	1996	29	Prosa
Zabala Basterretxea	Miren	Oroitzen al duzu?	1997	73	Prosa
Zabala Ormazabal	Idoia	Anbare Grisa	1998	85	Prosa
Zabaleta Umerez	Ester	Zaldi hegaduna	1986	43	Prosa
Zabaljauregi Markuerkiaga	Matxalen	Horixe bakarrik	1996	203	Poesia
Zabaljauregi Markuerkiaga	Matxalen	Bi bide	1997	97	Prosa
Zabalo Enparantza	Katrin Naroa	Bi egun New Yorken	1989	71	Prosa
Zorita Arratibel	Yolanda	Goizeko euri artean	1990	83	Prosa
Zuazo Corral	Nagore	Hizkuntzari zerraldorik ez	1993	35	Prosa
Zubeldia Aierbe	Estitxu	Bizi	1989	103	Prosa
Zubiate Garay-Yurrebaso	Aritz	Bariku bat	1993	77	Prosa
Zubiate Garay-Yurrebaso	Aritz	Not time for love	1994	55	Prosa
Zubillaga Zurutuza	Arrate	Alaitzen jakinmina	1989	51	Prosa
Zubiri Esnaola	Harkaitz	Begira nazazu	1995	73	Prosa
Zubizarreta Iribecampos	Oihan	Udazkeneko ostera	2001	187	Poesia
Zubizarreta Iribekampos	Oihan	Etsipenezko negarra	2000	197	Poesia
Zuloaga Martinez	Nerea	Xirularen azken notak / Ez naiz itzuliko	1987	131	Poesia
Zuloaga Martinez	Nerea	Zu zara nire bizitzaren arrazoi bakarra	1987	87	Prosa
Zumarraga Azkarate	Eriz	Gazte pentsamenduak	1987	137	Poesia
Zumarraga Azkarate	Eriz	Ezezagun maite	1990	125	Poesia
Zurutuza Arin	Oier	Minbiziari	2001	193	Poesia



P O E S I A

MAITE URIARTE

ODEI ARREGI

NAGORE ETXABE

MAIALEN SARASUA

OIHAN ZUBIZARRETA

OIER ZURUTUZA

ION MUÑOA

AMAIA LAKA

NAGORE ARRIOLABENGOA

...Baina itzul gaitzen ongi pasatze kontuetara, nire ustez hortxe baitago koska. Irakasleok askotan esan ohi dizuegu irakurtzea, literatur lan on bat irakurtzea, benetako plazerra dela, abentura bat. Eta norbaitek esango dit benetako abenturak larunbat gauetan izaten dituela. Eta segur aski arrazoirik ez zaio faltako, niri ere dantzaleku *cool* batera joatea gustatzen baitzait,... eta Londreseko Sohoan bada, hobe. Baina hala ere, zerbait galtzen ari dela esango nioke irakurtzen ez duen gazte horri,... aspaldian tonikari buruzko iragarki batean esaten zuten modura, probatu egin behar dela, liburu bat irakurtzera ausartu....

Mari Jose Olaziregi



Irakaskuntza ertainetako Urruzun Literatur Lehiaketa 2001
EK15020299



**EUSKO JAURLARI
GOBIERNO VAS**

HEZKUNTZA, UNIBER
ETA IKERKETA SA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

*Salneurria: 800 P
4,81 €*